

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

1

zenbakia

3 urtea

1986 apirila



Portada: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-161-1

Depósito Legal: S.S. 116-86

Imprime: Itxaropena, S.A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

5

III urtea 1. zenbakia

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin.

Itzultzaile Eskola

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendari:

Jesus M. Zabaleta (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Hizkuntz arduradun:

Aintzane Ibarzabal (Itzultzaile Eskolako irakaslea)

Idazkari Teknikoa:

Jose Luis Agote

Batzordekideak:

Tere Barrenetxea (Elhuyarreko lankidea)

Gotzon Nazabal (UZEIko lankidea)

Andoni Sagarna (Elhuyar eta UZEIko lankidea)

Helbidea:

Itzultzaile Eskola

Barkaiztegirako bidea z/g

MARTUTENE - DONOSTIA

Tfnoa. 46 19 90

Itzultzaile Eskola

Aurkibidea

Ale honetan	11
Gaiak	
Euskal itzultzailearen egoera eta iritziak (Inkesta baten emaitzak). <i>J. M. Zabaleta</i>	15
Itzultzaile elkarte eta itzulpenaren inguruko zenbait lan Katalunian. <i>Jose Luis Agote</i>	61
Galiziako itzultzaile elkarte. <i>V. Arias</i>	69
APETI (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes). <i>K. Navarro</i>	73
Kataluniar hizkuntzazko itzulpenaren I Sinposio Nazioartekoa. <i>X. Mendiguren</i>	77
Katalunieratik euskararako itzulpenaren gaur eguneko egoera. <i>X. Mendiguren</i>	85
Sigla eta izen berezi batzuen deklinabidea. <i>Gotzon Egia</i>	93
Enfasizko adierazkera baten azterketa XIX mendeko itzulpen batean. <i>J. M. Zabaleta</i>	99
Iruzkinek	
Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	127
Bibliografia	141
SANTOYO, J. C.: El delito de traducir. MARINA YAGÜELLO: Alicia en el país del lenguaje (para comprender la lingüística).	
Berri eta albiste	
APETIk 1.981erako ezarritako tarifak	157
Albisteak	163
Itzultzaile ikastaroa Zornotzan. II Jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu. Itzulpen ikastaroa Donostian	
Itzulpena saritu asmotan. <i>Pedro Zabaleta</i>	167
Itzultzaile Eskolak: gora eta behera. <i>J. M. Zabaleta</i>	169

GAI AK

Ale honetan

1981ean Xabier Mendigurenek Euskera aldizkariaren XXVI urtea (2. aldia) alean argitaratu zuen txosten batean (988. or.) Euskal Itzultzaileen Elkarte bat aurre-irudikatzen du. Honela dio:

"Euskal Itzultzaileen Elkarte edo Antolaketa gisako zerbait beharrezkoa edo interesgarri izan liteke.

- Itzultzaile profesioaren edo eginkizunaren garantzizapenerako.
- Tarifak berdintzeko.
- Gero eta handiagoa den demanda bat kanalizatzeko.
- Gero eta itzultzaile profesional gehiago sor dadin, eta arlo desberdinetan espezializa dadin.
- Nonbait informazioa zentraliza dadin, era guztietako informazioa eta inizatibak bizkortasunez zabaltzeko.
- Prestakuntza eta "*recyclage*" erako ikastaldiak antolatzeko.
- Itzultzaile Eskolak (oinarrizkoak - espezializaziozkoak) esperientziadun ingurune bat izan dezan, irakasleak biltzeko eta beste zenbait lanetarako.
- Buletin edo argitalpenen bat aldizka argitara dadin.
- Karnet, agiri edo antzeko zerbaiten premia eztabaidatzeko."

Itzultzaile Elkarte batentzat plangintza osoa izan litekeen xede deklarazio bat da.

Orain dela bost urte era honetara egiten ziren proposamenduetatik batzuk bete dira, beharbada (ikastaldiak, aldizkari hauxe berbera), Itzultzaile Eskolak bere gain hartu izan dituelako, eta aurrerabidea eman dielako.

Beste batzuk, ordea, eta garrantzia gutxien dutenak ez hain zuzen, ez dira bete; eta nekez bete litezke, gainera itzultzaileek gaur egun duten antolamendua besterik ez baldin badute.

Egia esan, zenbait alditan Itzultzaile Eskola izan da itzultzaile askorentzat erreferentzia puntu bat, nora jo bat. Baina Eskolak ez du, eta ezin du izan, Elkarte batek duen pisua.

Beharbada garaia iritsia da Euskal Herriko itzultzaileek elkarte bat sortzea, eta nolako elkarte, sortzez geroztan, seriotan pentsatzen has daitezten. Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte bat (nolakoa ondo begiratu beharko litzateke) sortzeko baldintza espezifikoak ez dira falta. Bistan dago euskal itzultzaileok arazo espezifiko asko ditugula, alde askotatik begiratuta:

Ikuspegi linguistiko eta soziolinguistikotatik:

- Darabilgun hizkuntzaren beraren normatibizazioaren egoera.
- Itzulpena egiten den hizkuntz erabilerako alor berezietan aurkitzen den egoera (Administrazio, zientzia, etab.).
- Mezu hartzaileen urritasuna euskarazko komunikazioan.
- Itzultzaileek beraiek ere normalean izan duten hizkuntz prestaketa anarkiko eta normaldu gabea.

Ikuspegi laboral eta antolamenduzkoetatik:

- Lanbide arautugabea izatea.
- Profesionalen dispertsioa bera.
- Onarpen sozial gutxiko lanbidea izatea.

Ikuspegi akademikoak:

- Titulazio arazoak.
- Lanbide honetara iristeko modua.

Guztiaren ondorioz, itzultzailea ez dago konforme Euskal Herrian burutzen den itzulpen politikarekin (politika planifikatua ez bada ere, de facto politika modu bat gertatzen bait da beti, itzulpenari dagokionez erabakiak hartzen direnean).

Euskal itzultzaileak, ordea, itzulpenari dagokionez hartu litezkeen erabakiak ez ditu bere esku, baldin eta ez bada behintzat itzultzaile bakarti autarkikoa, gizarte honetatik urrundu eta guztiz apartu dena.

Itzultzaileari askotan, uste baino gehiagotan, beste norbaitek agintzen dio zer itzuli behar duen, nola itzuli behar duen ("erraz ulertzeko

euskara", "herri honetako jendeak ulertzeko moduan", kasuren batean "aditzak beti esaldiaren bukaeran jarri" esateraino ausartu da itzuli behar ez zuen agintaria), eta orrialdeko zenbatean (gutxien uste denak jokatu nahi izaten dio xuhurkeriaz itzultzaileari; gauza jakina da, adibidez, oraintsu zenbait argitaletzek protesta formala egin nahi izan diotela Eusko Jaurlaritzari itzultzaileen tarifak altuegi iritzirik, eta elkarren artean sinadura bila aritu direla).

Erabaki horien artean izugarritzko dispertsio eta koordinazio falta izugarriagoa ari da gertatzen gainera. Harridura handiz jakin izan ditugu zenbait berri: Gasteizko Udalak unibertsitateari fakultateak eraikitzeko lurra beraietan itzultzaile eskola bat kokatzeko baldintzarekin eman izana, eta beste hainbat taju berdineko.

Itzultzailearen izena ezkututzen egiten da (nork daki nork itzultzen dituen ETBeko filmeak? non bilatu behar da hainbat libururen itzultzailearen izena?). Eta aldi berean susmoa dago itzultzaile bat baino gehiago ate txikitik ari dela sartzen lanbidean, atezainari bere bizitza guztiko paguak zor izango dizkion moduan (zenbait anonimato defentsarik onena dira).

Kalitatearen eskakizuna ere urjentziarik handieneko arazoa da itzulpenaren munduan. Kalitatearen esijentziarekin batera, ordea, kalitate hori lortzeko bideak antolatu beharko ditu, eta antola ditzake, itzultzaileak.

Hitz batean, eta guztiak laburtuz, gure artean egiten den itzulpena eta itzulpengintza itzultzaileak berak parte hartuz bideratu beharko da.

Gogoeta horietan oinarri eta lagungarri izan daitezten, aldizkariaren ale honetan euskal itzultzaileen artean orain dela gutxi egindako inkestaren emaitzak azaltzen ditugu lehenik. Eta horiekin batera, beste zenbait albiste gure inguruan eta antzeko egoeratan aurkitzen diren beste itzultzaile multzo batzuek (galegoek, katalanek, Estatu espainolekoek) eratu dituzten elkarteen berri emateko, geurerako eredu izan litezkeen heinean baliagarri izango direlako uste osoan.

Gai horiez aparte, ohi bezala, beste batzuk ere aurkitzen dira, monografiko bat izan litekeen honetatik apartexego, baina interes bizi-koak direla uste dugunak.

Euskal Itzultzailearen egoera eta iritziak (Inkesta baten emaitzak)

J. M. Zabaleta

Itzultzaile Eskolako irakaslea

A. Sarrera

Senez aldizkari honen ale hau bereziki itzultzaile elkarteei buruz prestatu eta argitaratzea erabaki zenean, euskal itzultzaileen elkarte bat sortzeko eta antolatzeko oinarriak jartzea zen lehendabiziko asmoa. Horretara bi oinarri modu behar zirela erabaki zen: batetik gurea bezalako edo antzeko egoeratan aurkitzen diren beste zenbait hizkuntzetako edo gure inguruko hizkuntzetako itzultzaileen elkarteen berri ezagutu, gurean ere era beretsuko itzultzaile elkarte bat nola molda litekeen ezagutzeko; eta bestetik euskal itzultzailearen egoera zein den ahalik eta xeheen eta zehatzen ezagutzen saiatu. Batetik ezagutza hori edozer xedetarako ere garrantzi handikoa delako, eta bestetik elkarte bat antolatu behar izango balitz ezinbesteko baldintza delako nortzuk elkartzen diren, elkartzen direnak zein egoeratan dauden, zenbaterainoko beharra dagoen eta zenbaterainoko ahalbideak dauden ezagutzea.

Orain dela zazpi urte ere egin zen beste inkesta bat, Itzultzaile Eskola sortzeko zenean, garai hartan gure artean itzultzaile zirenek zituzten iritziak, beren prestakuntza, premiak eta asmoak jaso nahiz. Xabier Mendigurenek **Euskera XXVI (2. aldia)** aldizkarian itzulpenari buruz argitaratu zuen txostenean aurkitzen da, aldizkariaren 980. orrialdetik aurrera.

Oraingo hau 1.986ko urte honetako maiatza eta ekainean zabaldu zitzairen Euskal Herriko zenbait itzultzailei. Galdekizunei dagokienez, gorago aipatu dudan inkestaren ahalik eta parekoena egiten saiatu nintzen, era horretara, izan ere, beste xede bat ere bete bait zitekeen, oraingo egoera ezagutzearekin batera: Oraingo egoera, lehengoaz ezagutzen dugunarekin konparagarri egingo duten parametro batzuren bidez neurtu. Era horretara zazpi urte hauetan izan den eboluzioa, aurreramendua ala atzeramendua, kuantitatiboa ez baina kualitatiboa, ezagutzeko oinarri finkoagoak eduki bait genitzake. Konparaketa saio hau inkestaren emaitzak ezagutarazi ondoren egingo dut, idazki honen azkeneko partean.

Konparaketa horren balioa bere neurrira ekartzeko ordea, inkesta haren eta honen artean egon litekeen alde, diferentzia handi bat ezagutu behar da lehenik. "Egon litekeena" diot, zeren ez bait da gauza segurua dagoen ala ez dagoen, ezin liteke ziur esan badagoenik, eta ezta ez dagoenik ere, oraintxe esplikatuko dudan bezala. Izan ere, inkesta haren eta honen artean lagina desberdina izan liteke, inkesta banatzeko modua desberdina delako.

Lagina

Honela dio Xabier Mendigurenek Euskeran argitaratu zuen inkestaren sarreran: "Itzultzaileen artean zabaldu den inkestak ez du izan inolako asmo agortzailerik, eta datu eta eritziak sistematikoki biltzeari baino jaramon handiada egin diogu joera nagusiak detektatzeari.

Inkestak banatzerakoan bi erizpide konbinatu ditutu: azken hamarkadetan obra itzuliren bat argitaraturikoa izatea edota iragan hurbilagoan eta bereziki gaurregun udaletan nahiz kultur erakunde edo zerbitzuren batetan itzulpen lanetan ari izatea.

Honela bada, ehunen bat itzultzailei bidali zaizkie inkestak, nahiz eta sarritan aurretiaz jakin erantzunak jasotzea ez zela erraza izango inkestatuaren adinagatik edota zenbaiten itzulpen ekintza oso mugatua, behin-behinekoa eta denboran zehar urrundua delako.

Bestalde, txosten honetan joera nagusi batzuerakustea delarik helburu eta denbora mugatasunengatik, lehen epe labur batetan bildu ditugun 30 erantzunen gainean moldatu dugu ondoren eskainiko dugun iritzi bilduma hau" (981 or.).

Badira zenbait alde honetan guztian, oraingo inkesta honetatik, eta berau burutu den egoeratik hartara eta haren garaira. Lehenengo paragrafoan dioenari buruz, aitortu beharra dut inkesta honen asmoa askoz

ere agortzaileagoa zela X. Mendigurrenek aitortzen duena baino, bilketari dagokionez behintzat, biltzeko ziren erizpideei dagokienez mugarik ez dagoenez, alderdi horretatik mugak beti artifizialki jartzen bait dira.

Inkestak banatzeko sistema ere desberdina izan da oraingoan eta lehenagoan. Oraingo honetan oso inkesta gutxi banatu dira banan banan, itzultzaile bakoitzari bidalita. Gaur egun inork ez du dudarik egiten Euskal Herriko itzulpengintza askoz ere egituratuagoa dagoela lehen baino; itzultzaileak bezeria (edo nagusi) jakin batzurentzat ari dira lanean gehienbat (komunikabide, argitaletxe, bikoizketa etxe, administrazio eta beste zenbait zentru eta erakunde). Zehazkiago, administrazioan batez ere, garai hartan hasierako unea zuten itzultzaileek; gaur egun, berriz, oso aldaturik dago egoera: askoz ere itzultzaile gehiago dira, egoera desberdinetan, lan status desberdinekin, jatorri desberdinekoak. Inkesta honen banatzeko, beraz, itzultzaileak banan banan bilatu eta inkesta partitu baino hobe zela iritzi zitzaion itzulpen gehien erabiltzen den zentruen bidez banatzeari. Eta halaxe egin ere zen.

250-300en bat inkesta utzi ziren zentru horietan, beraietatik bana ziezazkieten bertaratzen ziren itzultzaileei. Horiez gainera, beste batzuk banaka eta eskura ere banatu dira, baina oso gutxi, multzoka banatu direnen konparazioan.

Horren ondorioz baliteke desbideraketaren bat gertatzea; zenbait itzultzaile inkestarik ez iristea, eta gainera inkesta iritsi ez zaien itzultzaile horiek mota beretsukoak izatea denak: beren kabuz eta itzulpen zentru horiekin harreman gutxi dutela ari direnak. Horien artean baliteke egotea Xabier Mendigurrenek bere txostenean aipatzen zituena asko.

Baliteke, baita ere, susmoa hartzeko modukoa izango litzateke, inkesta honi erantzun dioten itzultzaileen adin piramidean isladatzea, bere garaian ikusiko den bezala.

Zentzu berean, baliteke desbideraketa horixe bera isladatzea itzultzaileek beren itzulpenetarako erabiltzen duten euskara motari buruz ematen diren erantzunetan (euskara batua, euskara batua eta euskalkia, ala euskalkia bakarrik), azkeneko erantzun hori ez bait du inork ere eman; izan ere, erantzun mota horiek etorri zitezkeela pentsatzeko zen tokietatik (zenbait argitaletxe, batez ere) inkestak bidali eta erantzuteko gomendatuarren, erantzunik ez bait da bat bera ere jaso.

Era horretako gogoetak bat baino gehiago egin litezke oraindik ere.

Inkestari, guztira, 86 itzultzailek erantzun diote. Seguruenik, baina ezin da hori ere ziurtatu, proportzio handiagoa da hau Euskal Herrian

ari diren itzultzaile guztiekiko, Xabier Mendigurenek berean aipatzen dituen 30ak beren garaian ziren itzultzaile guztiekiko zirena baino. Ziur jakiteko, ordea, orduko eta oraingo itzultzaile zentsu osoak beharko genituzke, eta ez ditugu.

Datu guztiok kontutan hartu beharrekoak dira bai inkestak ekarri dituen datuen aurkezpena ulertzerakoan, eta batez ere lehengo eta oraingo inkesten emaitzak konparatu eta ondorioak atera nahi direnean. Konparaketa hori, batez ere, erlatiboa da guztiz. Baina, daukan aahuldade guztiarekin ere egin beharrekoa iruditzen zaigu.

Inkestako galdegaiak

Esandakoa kontutan harturik, inkestaren beraren deskribzioa egin genezake. Hamabi galdegai zituen:

- 1.— Itzultzailearen adina eta jatorria.
- 2.— Itzultzailearen ikasketa maila (Itzultzaileak batz bestea nolako ikasketa akademikoak dituen ezagutu nahi zen. Ikasketa akademikoez kanpoko ikasketak ezin daitezke neurtu, edo ez dira konparagarriak behintzat, eta galdeketa honetan alde batera utzi dira).
- 3.— Itzultzailearen gaurko lanbidea (Galdera honetan itzultzailearen lan modua, lantokia, itzulpengintzan izaten dituen harreman laborala edo komertzialak, eta normalean izan ohi duen itzulgaia nahiko modu xehe eta zehatzean ezagutu nahi izan da. Zenbait puntutan, azkenekoan adibidez, itzultzaileak bere lanari ematen dion garrantzia, eta itzultzaileari itzulpenak, bakoitzaren ustez, eskatzen dion esijentzia ezagutzeko zenbait seinale biltzen dira, "itzulgaien ezaguera (sakona, informazio ona, ezaguera arina, batzutan arina eta bestetan sakona)" galdeztzen denean adibidez. Itzultzailearen kóntzientzia profesionalaren neurria, hala dei baliteke).
- 4.— Itzultzailearen hizkuntz ezaguera (itzultzaileak zein hizkuntzatatik zeinetara itzultzen duen (lehendik zehaztua dago nolako testuak) eta hizkuntza horiek nola eta zenbateraino ezagutzen dituen jakin nahi da).
- 5.— Itzultzailearen hizkuntz ezaguera: euskara (Euskal Herriko itzultzaileen artean, pentsatzekoa zenez, sorburu edo xede hizkuntza bezala euskara erabiltzen dutenak hartu ditugu kontutan, gainerakoak —izango bait dira, eta ez gutxi, seguruenik— alora utziz. Horiei deitzen diegu "euskal itzultzaileak".

Lehen euskaraz gainerako hizkuntzei buruz galdetu dena, xehago eta zehatzago galdegiten da hemen euskarari buruz: Nola ikasi duen euskara, zenbateraino ezagutzen duen euskara (mintzatua, euskara batua, euskarazko literatura), zein eratako euskara erabiltzen duen bere itzulpenetan. Itzultzaile euskaldunberrien kasua, adibidez, bitxia da guztiz zentzu honetan, ez da ohizkoa itzultzaileen munduan, eta kasu honetan gainera ez da betetzen itzultzaileen artean Unescoren Nairobiko gomen-dioa bezala ezagutzen dena: itzultzaileak xede hizkuntzan jaiotarra izan behar duela, edo bestela hamabi urtez hiztun ohizko hizkuntza horretan; gaur egun gauzak dauden bezala egonik euskaldun zaharrentzat ere betetzen erraza ez den baldintza, alegia).

- 6.— Itzultzailearen prestakuntza (itzultzaileak bere ofizioa nola ikasi duen jakin nahi zen, eta aldeberean gaur egun Euskal Herriko itzultzaileen prestakuntzan zein autore edo eskolak, zein joera teorikok duten eragina ere ezagutu nahi zen).
- 7.— Itzulpengintzako baliabideak (itzultzaileak askotan jo behar izaten du laguntza bila, bai gaia uste bezain erraz ulertzen ez duelako, bai sorburu edo xede hizkuntzan laguntasuna behar izaten duelako. Ofizioak berak berez eskatzen duena da hori. Horrela bada, euskal itzultzaileak alor bakoitzean zein baliapide erabili ohi duen ezagutu nahi zen: itzulgaiaren konpetentzia oneko ezaguera bat lortzeko, sorburu hizkuntzazko arazoak gainditzeko eta xede hizkuntzan sortzen zaizkionei irtenbidea emateko).
- 8.— Itzultzean nabaritako zailtasunak eta eskasiak (itzultzaileak erremediorik gabe bi hizkuntzen arteko konparaketa egiten jardun behar du etengabe. Normalean behintzat, gure artean, xede hizkuntza euskara izango da, eta hortik, euskararen egoeratik bertatik, zenbait arazo sor litezke. Horietxen bilketa egin nahi zen. Kontutan hartu behar da gainera: lehen a priori batean zailtasun horiek guztiz objetiboak izan behar dutela pentsa litekeena da, baina bat ofizioan urteak ematen ari den ahala, eta itzultzaile asko eta era askotakoak ezagutzen dituen ahala, konturatzen da itzultzaile guztiek ez dutela zailtasun horien zentzu berbera, zailtasunak ez direla denentzat berdinak, eta gerta litekeela zailtasun zentzu hori beste zenbait aldagarriekin (adina, jatorria, prestakuntza modua) erlasionaturik egon litezkeela).

- 9.— Itzultzailetzarako prestakuntza (itzultzaileek, beren ofizioa ezagutzen dutenez eta lan horretarako izaten diren ezagutza premien esperientzia badutenez, itzultzaile ikasketekin batera zenbaterainoko ezaguera orokor eta itzulpengintzarako espezifikoak eskatuko lituzketen ezagutu nahi zen; horrekin batera itzulpengintzarako ikasketen formaltasunaz eta iraupenaz duten sentipena ezagutu; jakina da, izan ere, euskal itzultzailea ez dela hizkuntza normalizatu bateko itzultzailea, hizkuntz egoera berezi batean bizi dela —"diglosikoa" esatea da topikoa—, eta interes handia duen gauza da hizkuntz egoera horretan itzulpengintzan ari direnek itzulpenean aritzeko zein esijentzia jarriko lituzketen ezagutzea).
- 10.— Itzultzaile profesioaren statusa (euskal itzultzailearen statusa batere definitu gabea denez, etorkizunari begira egin da galdera hori: zein status eta nolako profesio antolamendua eskatuko eta nahiko luketen itzultzailearentzat, alegia).
- 11.— Itzulpen politikari buruzko iritzia (itzulpenean eskua duen orok du, edo behar luke, plangintza bat. Itzultzailea normalean plangintza edo eskabide jakin (pribatu ala publiko) baten egikaritzea da, eta badu bere egoeran hainbesterainoko eragina duen itzulpen eskabidearen jatorri horri buruzko irizpide bat. Galdera honen bidez, iritzi hori jakin nahi zen).
- 12.— Norberaren itzulpen ekintzaren laburpen bat.

Inkestaren deskribapena amaitzeko, esan dezadan lehenik inkestaren emaitzak aurkeztuko ditudala, ahalik eta xehatasun eta xehetasun guztiarekin.

Inkestaren emaitzen aurkezpena egin ondoren, 1981ean egin eta Euskera aldizkarian argitaratu ziren emaitzekin konparatzen saiatuko naiz, ahal denean. Beste zenbait kasutan, inkestaren emaitzen aurkezpenez gainetik, daute beste komentarioen bat merezi baldin badute, hura ere egiten saiatuko naiz akeneko partean: Datuen esanahia eta bilakaera historikoa (komentarioak) deitu dudanean.

Goazen, bada, besterik gabe, inkestaren emaitzak ezagutzera.

B. Inkestaren emaitzak

1. Itzultzailearen adina eta jatorria

a.— Jatorriari dagokionean itzultzaileen hirutik biko gehiengoa (66,66%) Gipuzkoan sortua da. Laurdenera iristen ez direla bizkaitarrak (24,56%). Gainerako ia ehuneko bederatzia Araba, Nafarroa eta erantzunean jatorria zehazten ez dutenen artean banatzen da. Iparraldekorik ez da azaldu erantzuleen artean.

b.— Adinari dagokionean, batz bestekoa 32,25 urte dira erantzuleenak, 19tik hasi eta 53 urtetara bitartean. Adinen banaketari dagokionean, bi multzo garrantzitsu ikusten dira: Erantzuleen erdiak 22 eta 32 urteak bitarteko adinetan aurkitzen dira, 28-29 urteetan batez ere. Beste multzo handi bat (28%) 38 eta 44 urteak bitarteko adinetan aurkitzen da.

Adin banaketa, ordea, ez da berdin gertatzen Bizkaia eta Gipuzkoako erantzuleen artean (horiek bait dira talderik handienak, eta kontuak atera litezkeenak; beste probintzietako laginak txikiegiak dira atera litezkeen ondorioztapenak fidagarriak izateko). Gipuzkoako jaiotarrak diren erantzuleen batzbesteko adina 34,52 urtetakoa da, Bizkaiko jaiotarrak direnena 28,25 den bitartean.

2. Itzultzaileen ikasketa maila

Inkestari erantzun dioten itzultzaileen artean, 73,68%ak unibertsitate mailako ikasketak egin dituela erantzuten du. 15,78%ak goi mailako batxilergoko ikasketak egin ditu. 22,08%ak apaiz ikasketak egin ditu, bukatuak ala bukatu gabeak, ez da zehazten; horien erdiek apaiz ikasketak besterik ez dituzte egin.

Ikasketa akademikoez aparte, 17,54%ak autodidakta definitzen du bere burua.

Ikasketa unibertsitarioak egin dituztenen artean, 54,76%ak letra alorreko ikasketak egin ditu. 30,95%ak zientzi alorreko ikasketa unibertsitarioak egin dituela aitortzen du. Eta 14,28%ak zuzenbide eta gizarte alorreko ikasketak egin ditu.

Unibertsitari ikasketak iraun dieten urte kopuruari dagokionez, 61,90%ak bakarrik zehazten ditu. Horietatik 52%ak bost urteko ikasketak burutu ditu unibertsitatean. 40%ak hiru urte edo hortik beharako ikasketak egin ditu.

3. Itzultzailearen gaurko lanbidea

Lan modua eta lantokia

Erantzule gehienek diotenez itzulpenak parte handia du, edo erabatekoa, beren profesio lanean (84,21%). Gainerakoak, alegia, beren profesio lanean itzulpenak parte handia behintzat hartzen ez dienak, komunikabideetan (irradi eta telebista), UZEI, Elhuyar eta beste zenbait inisituziotan, irakaskuntzan, edo idazle edo bulegari bezala lan egiten dute.

Itzultzaile bezala lan egiten dutela aitortzen duten erantzuleetatik, erdiak (50,87%) Administrazioarako itzulpenak egiten ditu. Administrazioarako itzulpenak egiten dituen itzultzaile multzo honen barruan, 79,31%ak (inkestari erantzun diotenen 27,05%) Administrazioarako bakarrik egiten du lana.

Administrazioarako dihardutenen 20,68%ak bakarrik esaten du beste-lako itzulpenak ere egiten dituela. Talde honek administrazioarakoez gainera egiten dituen lanak Komunikabideetarako, argitaletxeetarako, kultur instituzioetarako eta idazle bezala egiten ditu. Baina aipatu beharra dago era honetako erantzunak Gipuzkoatik etorriak direla batez ere, gainerako probintzietatik erantzun bana besterik ez bait da iritsi era honetakoak.

Beste multzo handi bat komunikabideetarako itzultzen dutenena da (erantzuleen 36,84%). Hauetako gehienek ETBrako itzulpenak egiten dituzte. Prentsa idatzirako itzulpenak egiten dituztela erantzun dutenak 3 bakarrik izan dira. Komunikabideetarako itzulpenean aritzen direnen multzo honetatik 28,57% Administrazioarako itzulpenak ere egiten ditu, baina bi kasutan salbu beste era batzutarakoak ere bai (irakaskuntza, argitaletxeak).

Bi horiek dira (Administrazioa eta komunikabideak), erantzunen arabera, euskal itzultzailegoaren lan sorbururik nagusienak. Erantzuleen 78,84%ak edo Administrazioarako, edo komunikabideetarako, edo bietarako behintzat egiten du lana, beste alor batzutarako ere egin dezakeelarik.

Esan beharra dago, baita ere, erantzuleen 15,75%ak idazletzat ere badaukala, itzultzailez gainera, bere burua.

Lan statusa eta lan harremanak

Erantzuleen hirutik biak (66%) itzultzaile profesional bezala ikusten du bere burua. 7%ak erdi profesionaltzat dauka. Eta 16%ak behin

behineko itzultzaile dela dio. Gainerantzekoek ez dute erantzun edo bestelako lan batean ari da orain.

Lan harremani dagokienez, 29,82% erakunde publikoren bateko funtzionariak edo bertarako kontratatuak dira; 15,78% enplegatuak; 17,54% kontratuz lanean ari direnak; 9%ak aldian behin egiten ditu itzulpen batzuk; 18%ak bezero finkoak ditu lana agintzen diotenak; eta beste horrenbeste (18%) toki batean itzultzaile finko bezala dagoela (funtzionari, enplegatu, kontratatu) bezero pribatuen aldian behingo itzultzaile da. Hauek administrazio publikoan ari dira ia kasu guztietan (multzo barrenean 70%).

Lan statusari dagokion erizpideak zer ikusirik ez du adinarekin; erlaziorik ez da ikusten, ezta gazteenetan ere, normalean erlazioa behar-ko balu ere. Hogeitaz eta hogeitabat urteko erantzule gehienek itzultzaile profesionaltzat dute beren burua.

Erizpide horrek badu ordea, zer ikusia, lan harremanen izateko moduarekin. Funtzionari diren erantzuleetatik, 82,35%ak itzultzaile profesionaltzat dauka bere burua.

Bezero finko askorentzako itzulpenak egiten dituzten itzultzaile gehienak (80%) administrazioa ez den beste lekuren batean ari dira lanean.

Ohizko itzulgaia eta berorren ezaguera

Itzulgaiak, galderan, hirutan banatzen ziren: Testu teknikoak, pragmatiko-dibulgaziozkoak (komunikabide, etab.) eta testu literarioak. Erantzuleen 68,42%ak itzulpen teknikoak, gai teknikoazko itzulpenak egiten dituela esaten du. 50,87%ak itzulpen pragmatiko dibulgatiboak egiten ditu, eta 22,80%ak itzulpen literarioak egiten ditu.

Erantzulegoaren 57,90%ak bakarrik sailkatzen ditu, ordea, itzul-tzeko normalean izaten dituen testuak proposatzen diren sailtako bakar batean, gainerakoek sail bat baino gehiagotan sailkatu litezkeen testuak itzuli ohi dituzten normalean.

Horrela, testu mota bakarra itzuli ohi duten itzultzaileetatik, hiritik bik (66%) testu teknikoak itzultzen ditu bakarrik, laurdenak (24%) testu pragmatiko bezala sailkatzen du normalean izan ohi duen itzulgaia, eta 9%ak testu literarioak bakarrik itzultzen dituela esaten du. Testu teknikoak bakarrik itzultzen dituztela erantzuten dutenen multzoaren barruan, multzo osoaren ia hiru laurdenek (73%) Adminis-trazioan egiten du lana.

Testu genero bat baino gehiagoren itzulpenak egiten dituztela erantzuten duten itzultzaileen artean (42%), 61,50%ak itzulpen teknikoak eta pragmatiko-dibulgaziozkoak egiten ditu, 19,23%ak itzulpen pragmatikoak eta itzulpen literariak egiten ditu, eta 15,38%ak hiru testu motetako itzulpenak.

Itzulgaiak izan ohi duten ezaguerari dagokionez, lau erantzun mota proposatzen ziren: ezaguera sakona, itzulgaiak ongi informatua egon ohi da, ezaguera arina, gai batzuetan sakona eta bestetan arina. Erantzunek diotenez, itzultzaileen 17,50%ak itzuli behar duen gaiaren ezaguera sakona izan ohi du; hirutik bat (33%) ongi informatua egon ohi da; 10,50%ak ezaguera arina izan ohi duela adierazten du, eta 36,80%ak gai batzuetan ezaguera sakona eta beste batzutan arina izan ohi duela erantzun du. Batek zehazten du lanbidez etortzen zaizkion gaiak dagokienez informazio ona izan ohi duela, baina enkarguz egin behar izaten dituen itzulpenetan gaiak izan ohi duen ezaguera arina dela.

Ezaguera mailaz ematen diren erantzunei dagokienez, bestalde, erlazio esanguratsurik ez zaie ikusten ez adinarekin, ez lan harremai buruz eman diren erantzunekin, ez erabili ohi diren testu moduekin, ezpada besteren artean edo bakarrik itzulpen literarioak egiten dituztela erantzuten dutenek gaiari buruz ongi informatuta egon ohi direla erantzuten dutela ia guztiek (84,60%). Desbideratze apur horrekin, gainerakoetan ez da erlazio esanguratsurik ikusten, beraz.

4. Itzultzailearen hizkuntz ezaguera

Sorburu eta xede hizkuntzak

Erantzunen arabera, itzultzaile guztiek itzultzen dute gaztelaniatik. Horrez gainera, euskaratik ere itzuli ohi dutenak, 47,36% dira. 43,85%ak frantsesetik itzultzen duela erantzuten du. 35%ak ingelesetik itzultzen du. Italiaririk 7%ak itzultzen du, eta alemaniaririk 3,5%ak. Penintsulako gainerako hizkuntzei dagokienez, 5%ak galego eta kataluniaririk itzultzen du eta 3,5%ak portugesa espreski aipatzen du sorburu hizkuntza bezala. 2,35%ak beste hizkuntza batzuk aipatzen ditu.

Beste ikuspegi batetik, 12,25%ak hizkuntza bakar bat erabiltzen du sorburu hizkuntza bezala, gaztelania kasu guztietan. Hirutik batek bi hizkuntza erabiltzen ditu sorburu hizkuntza bezala: Horietatik erdiak pasatxo (52,62%) euskara eta gaztelania ditu sorburu hizkuntza bezala

erabiltzen dituenak (esan beharra dago, gainera, kasu hauek guztiak Administrazioan lan egiten dutenenak direla). Gainerakoek gaztelania eta frantsesa erabiltzen dituzte (20%), edo gaztelania eta ingelesa (27%).

Itzulpenerako testuak hiru hizkuntzatan hartzen dituzten itzultzaileak, erantzunen arabera, 22,80% dira, eta hiru taldetan banatzen dira: euskara, gaztelania eta frantsesezko testuak itzultzen dituztenak (multzoaren 38,46%), sorburu hizkuntza bezala euskara, gaztelania eta ingelesa erabiltzen dituztela esaten dutenak (15,38%), eta hirugarren kasua, horiekin konparatzekoa ez dena, sorburu hizkuntza bezala gaztelania, frantsesa eta ingelesa erabiltzen dituztela erantzuten dutenak (46,15%).

14%ak erantzun du lau hizkuntza edo gehiago erabiltzen dituela sorburu hizkuntza bezala. Multzo hau heterogeneoa da guztiz, ia kasu guztietan hizkuntz konbinazio desberdinak gertatzen dira.

Gutzira, inkestari erantzun diotenen artean, hamar hizkuntzatatik itzultzen da auskarara.

Xede hizkuntzari dagokionez, erantzule guztiek erabiltzen dute euskara xede hizkuntza bezala, denek itzultzen dute euskarara; ia erdiak (46,60%) gaztelaniara ere itzultzen du; 8,75%ak frantsesera itzultzen du, eta 3,50%ak ingelesera itzultzen du. Itzultzaileen erdiak bi hizkuntza erabiltzen ditu xede hizkuntza bezala (euskara eta gaztelania, edo euskara eta frantsesa), eta 5,25%ak hiru hizkuntzatarata itzultzen du (euskara gaztelania eta frantsesa, edo euskara gaztelania eta ingelesa).

Itzultzailearen hizkuntz ezaguera (euskaraz landa)

Inkestari eman zaizkion erantzunen arabera, euskal itzultzaileetako 17,50%ak ez du itzulpenik egiten ezagutzen dituen hizkuntza guztietatik, eta gainerakoek ezagutzen dituzten hizkuntza guztietatik egiten dituzte itzulpenak. Zenbait kasutan ezagutzen duten hizkuntza bat dute itzultzaileek, itzulpenetarako erabiltzen ez dutena, baina 7%ak bi hizkuntza ditu, itzulpenerako erabiltzen ez dituenak. Pentsatzekoa litzateke ezagutza sakon baten faltaz uzten direla hizkuntza horiek itzulpengintzan erabili gabe, baina hizkuntz multzo honetatik, itzultzailea kasu guztietan irakurtzeko gauza da, 29% kasuetan hitzegiteko gauza da, eta 6%an hizkuntza horretako kulturaren ezaguera ona du itzultzaileak. Kasu guztietan, ordea, ikasketa prozesua akademikoa edo autotodidakta izan da, eta behin ere ez hizkuntza hori mintzatzen den tokira joan eta ikasitakoa.

Inkestaren arabera, euskal itzultzaileek gehien erabiltzen duten sorburu hizkuntza gaztelania izaten da. Itzultzaile horietako 36,95% familiz hizkuntza horretako hitzuna delako daki gaztelania. Eta gainerakoek ikasketa akademikoaz eta inguruan hitzegiten zelako ikasia dute.

Horietako 78,24%ak gaztelaniazko kulturaren ezaguera orokor ona duela esaten du.

Itzulpenean sorburu hizkuntza bezala erabiltzen diren gainerako hizkuntzei dagokienez, esanda dago zenbatek zenbat hizkuntzatatik itzultzen duen. Hizkuntz ikasketa horiek bat banaka harturik, kasu guztien 76%an ikasketa akademikoaz egin dira guztiz edo parte bat, 38%an autodidakta bezala, guztiz edo parte bat, kasuen erdietan hizkuntza hori hitzegiten den tokira joanez ikasi dira. Inork ez du erantzun gaztelania edo euskara ez den hizkuntzarik familiz hizkuntza horretakoa delako ikasi duenik.

Hizkuntza horien ezaguera mailari dagokionez berriz, kasu guztien 44%an hizkuntza horretako kulturaren ezaguera orokor ona dute itzultzaileek, inkestaren arabera, kasuen 46%an testu teknikoak ulertzea iristen dira, 52%an hizkuntza horretan hitzegiteko gauza dira, eta 68%an irakurtzeko.

5. Itzultzailearen hizkuntz ezaguera: euskara

Puntu honetan bost galdera modu egin ziren inkestan: Euskara nola ikasi zuen itzultzaileak, euskara mintzatuaren ezaguera (euskalkiak), euskara batuaren ezaguera, euskal literaturaren ezaguera, eta itzulpenetan zein modutako euskara erabiltzen duten itzultzaileak.

a.— Euskara nola ikasi zuen.

Erantzule guztien 78,94%ak familiaz euskalduna delako daki euskaraz. Gainerako 21%a familiz ez da euskalduna, eta gaztaroan edo helaroan ikasi zuen. Gipuzkoarren artean, erantzuleen 92%a familiaz euskaldunak dira, eta 7,90%a da euskara gaztaroan edo helaroan ikasitakoa. Bizkaian berriz, erantzuleen 43%ak gaztaroan edo helaroan ikasi zuen euskara, eta 57%ak daki familiz euskaldunak zirelako. Araba eta Nafarroako itzultzaileen laginak txikiegiak dira ondorioz batere ateratzeko.

Euskara gaztaroan edo helaroan ikasi duten itzultzaileetatik, batek salbu, gainerako guztiek ikasketa akademikoak egin dituzte euskara ikasteko, eta 58,33%a euskaraz hitzegiten den tokietan egon da min-

tzatzen ikasteko. Horrez gainera erdiak ikasketa autodidaktikoak egin ditu.

Familiz euskaldunak diren itzultzaileetatik, 26,6%ak euskara ikasteko ikasketa akademikoak ere egin dituela zehazten du; eta 22,3%ak ikasketa autodidaktikoak.

b.— Euskalkien ezaguera.

Euskalkien ezaguerari dagokionez, euskalki bakoitzari buruz hiru erantzun eman zitezkeen: ongi, zerbait, ezer ez. Horrela, bada, erantzuleen 87,72%ak gipuzkeraz ongi dakiela esaten du, eta gainerakoek gipuzkeraz zerbait badakitela.

Bizkaierari dagokionez, 40,35%ak ongi dakiela esaten du, eta 56,14%ak zerbait dabakiela. 3,50% bakarrik geratzen da bizkaiera aipatu ere egin gabe.

Lapurterari dagokionez, 10,5%ak ongi ezagutzen duela dio, eta 49,1%ak zerbait badakiela.

Xubererari dagokionez, 7%ak ongi dakiela dio, eta 43,85%ak zerbait badakiela.

Nafarrera, erantzuleen 19,3%ak ongi ezagutzen du, eta 40,35%ak zerbait.

Itzultzaileen 7%ak aipatu zaizkion bost euskalkiak ongi ezagutzen dituela dio. Batek lau euskalki ezagutzen ditu ongi, 3,5%ak hiru euskalki ezagutzen ditu ongi, 24,5%ak bi euskalki ezagutzen ditu ongi, 60%ak euskalki bat bakarria ezagutzen du ongi, eta batek euskalki bat ere ez du ongi ezagutzen, euskara batua bakarrik, dioenez.

Gipuzkoa eta Bizkaiko itzultzaileak harturik, Araba eta Nafarroako laginak txikiegiak bait dira ondorioak ateratzeko, Gipuzkoan 98%ak gipuzkeraz ongi daki, eta bik zerbait. 21%ak bizkaieraz ere ongi daki, eta 74%ak zerbait. Lapurteraz, 10,5%ak daki ongi, eta 47,5%ak zerbait. 5,25%ak xubereraz ongi dakiela dio, eta 40%ak zerbait. Nafarreraz, berriz, 18,5%ak ongi dakiela dio, eta 42%ak zerbait.

Bizkaitarren artean, 86%ak bizkaitarrez ongi daki, eta gainerakoek zerbait. Gipuzkeraz 57%ak ongi daki, eta gainerako guztiek zerbait. Lapurteraz 7%ak daki ongi, eta 50%ak zerbait. Xubereraz ere 7%ak ongi daki, eta 57%ak zerbait. Nafarreraz 14%ak ongi daki, eta 36%ak zerbait.

Kontutan har bedi, hala ere, hizkuntzaren ezaguerari buruz Euskal Herrian egin izan diren inkestetan *zerbait* jakiteak hitzegiteko gauza ez izatea esan nahi izaten duela gehienetan, inkesten frogak egiten direne-

an frogatu ahal izaten den bezala. Inkesta honetako datuak ere era beretsuan erlatibizatzeak izango direla uste izatekoa da.

c.— Euskara batuaren ezaguera.

Galdera honi erantzunleen 40,35%ak erantzun dio, eta kasu guztietan euskara batuaren ezaguera ona dutela erantzun dute. Erantzunen banaketan ez da erlazio esanguratsurik ikusten jatorriarekin, adinarekin edo euskara ikasteko izan duten prozesuarekin.

d.— Euskal literaturaren ezaguera.

"Zein autore klasiko ezagutzen du ondo samar (obrak irakurri eta zerbait behintzat aztertu dituelako)" zioen galderak.

Inkestari erantzun dioten hirutatik bik eman ditu zehaztasunak galdera honetan. Nahasmendu handia izan da hala ere erantzunetan, zeren autore klasikoekin batera oraingoak ere zerrendaratu bait dira.

Bataz beste, erantzuna eman duen bakoitzak bost autorez osatutako zerrenda bat eman du.

Autorerik aipatuena Axular izan da (40 aldiz). Haren ondoren, J. A. Mogel (24 aldiz), Etxepare eta Tx. Agirre (23 eta 22 aldiz), Orixe (18 aldiz), Agirre Asteasukoa eta Lizardi (12 aldiz), Leizarraga (11 aldiz), Lauaxeta (9 aldiz), S. Mendiburu eta J. Mirande (8 aldiz), Etxeberri Ziburukoa eta Kardaberaz (6 aldiz) eta ondoren, beheraka, G. Aresti, Kirikiño, Larramendi, Bartolome Santa Teresa, P. A. Añibarro, R. Saizarbitoria, Txillardegui, Etxeberri Sarakoa, A. Lertxundi, Iztueta, Astarloa (zein zehaztugabe, 3 aldiz), Tartas, Etxeita, Elizanburu, Gerriko, M. Soroa, Duvoisin kapitaina, R. Olabide, Jose Cruz Etxeberria, M. A. Antia, S. Pouvreau, Gregorio Arrue, Xurio, Haraneder, J. Etxaide, R. M. Azkue, A. Urretavizcaya, Ulibarri-Galindez, B. Gandiaga, S. Mitxelena, X. Amuriza, Sarako Eskolakoak, Oihenart, Barrutia, J. A. Loidi Bizkarrondo, J. M. Iparragirre, Bilintx, Hiriart-Urruty, Etxahun, B. Atxaga, bertsolariak.

Inkestari erantzun dioten batzuek albo oharrak ezarri dituzte, galdera irekia zenez gero. Ohar horietako batzuk, zilegi bazait, ohargarriak dira, batek baino gehiagok zer pentsatua ematen bait du. Horrela, hogeitau urte dituela euskal idazle klasiko "gehienak" irakurri dituela dioena. Edo "D eta B tituluetakoa ikastaroetan eta horren inguruan egiten diren irakurketa eta azterketak" erantzuten duenarena. Beste batek dio "antzinakoak ez ditut irakurri, izenak baino ez dakizkit". Beste batek "hu-

tsa". Eta klasikoen artean Lauaxeta sartu duenak J. Sarrionandia ezabatu egin du zerrendatik, parentesi artean "ez da klasikoa" zehaztuz.

Horretaz aparte, ez da erlazio esaguratsurik ikusten inkestako gainerako aldagarriekin (adina, jatorria, lan mota, euskara ikasteko izan duten prozedura, ikasketa akademikoak egin izana, etab.

e.— Itzulpenetarako erabiltzen den euskara mota.

Hiru erantzun modu zeuzkan galderak, aukeran: Euskara batua soilik, euskalkia soilik, euskara batua eta euskalkiak.

Itzultzaileen 72%ak euskara batua erabiltzen du soilik, eta 28%ak euskara batua eta euskalkiak. Euskalkiak bakarrik erabiltzen dituenik inork ere ez du erantzun.

Erantzunen banaketak, ordea, erlazio nabarmena du jatorriarekin. Gipuzkoan 76%ak euskara batua besterik ez du erabiltzen bere itzulpenetan, eta 24%ak euskara batua eta euskalkiak erabiltzen ditu. Bizkaian berriz, 57%ak euskara batua bakarrik erabiltzen du itzulpenetan, eta 43%ak euskara batua eta euskalkiak (bizkaiera izango dela pentsatzekoa da) erabiltzen ditu.

6. Itzultzailearen prestakuntza

Itzultzaileak bere ofizioa nola ikasi duen eta teoriari dagokionean zenbaterainoko eta nolako prestakuntza lortu duen jakin nahi zen. Lehenengo puntuari dagokionean bost aukera zeuden: itzuliz, itzuliz eta teoriari hornituz (autodidakta), beste norbaiten laguntzaz, itzuliz eta ikastaldi bidez, ikasketa formalizatuz.

Inkestari erantzun dioten itzultzaile guztiak erantzun diote galdera honi. Baina erantzunen 22,50%a ordenatu gabe dago eta gainerakoak lehentasunez ordenatuta. Hauetatik erdiak (50%) batez ere itzuliz ikasi duela esaten du, itzultzen ikasteko prozesuan itzultzea bera izan dutela ikasteko modua, alegia. Batez ere itzuliz eta autodidakta gisa teoriari hornituz, erantzuleen 18%ak ikasi du. Beste norbaiten laguntzaz erantzuleen 4,5%ak ikasi du, eta ikasketa formalizatuz beste 18% batek.

Itzultzaile guztien 54,38%en ikasketa prozesuan autodidaktismoa egon da, erantzunek diotenez. Itzulpen teoriari dagokionean neurri batean autodidakta dira, beraz. 28%ak norbaiten laguntzarekin ikasi du itzultzen. 42,10%ak ikastaldiak egin ditu. Eta 26%ak ikasketa formalak egin ditu itzulpenari dagokionean, nahiz eta kasu batzuetan ikasketa horiek ez diren izan itzultzen ikasten lagundu dion faktore garrantzitsuena.

Itzulpen teoriako ezagupenak zein autoretatik ikasi dituzten jakiteko, galdera irekia zen. 72%ak erantzun du; erantzun dutenetatik, 22%ak ez du zehaztu liburu edo autorerik "bat ere ez", "oso gutxi", "gutxi", "batzuk", "hainbat", "asko" izan dira multzo honen erantzunak. Gainerako 78%aren barruan, gehien aipatzen diren liburu edo aldizkarien artean lehenengoa Senez berau da (62,5%), eta ondoren Itzultzaile Eskolan argitaratutakoak (43,75%). Horien ondoren, G. Mounin (*Los problemas teóricos de la traducción*) (erantzunen 31,25%), García-Yebra (*Teoría y práctica de la traducción*) (16%), eta ondoren Vinay—Darbelnet (*Stylistique comparée du français et de l'anglais*), *Administrazioa euskaraz aldizkaria*, *Meta*, *Babel*, *Traduire* aldizkariak, Komissarov, Delisle, Malblanc, C. Buzzetti, Maillot, Zierer, Vázquez-Ayora, D. Seleskovitch, Fleisher, Ljuskanov, P. Neumark, Octavio Paz.

7. Itzulpengintzako baliabideak

Galderak bi parte zituen: Zein baliabide erabiltzen dira itzulpengintzan jatorrizko testuaren ulerpen egoki batetara iristeko (beronek ere bi parte zituen: gaiaren ulerpena, eta hizkuntz arazoak), eta zein baliabide erabiltzen dira sorburu hizkuntzan (gure kasuan, normalean euskara) mezu hori emateko orduan sortzen diren arazoak konpontzeko, eta mezu emaitza on batetara iristeko.

Sorburu hizkuntzan

Galdera honek zituen bi parteetatik lehenengoan, zein baliabide erabiltzen duen itzultzaileak gaiari dagokion informazioa biltzeko, hiru erantzun eman zitzaizkien: Informazio liburuak, hiztegi enziklopedikoak, ezer ez, itzuli behar den testuak berak dioena baizik.

Inkestari erantzun diotenetatik, 89,50%ak erantzun dio galdera honi ere. Horietatik, 80,40%ak hiztegi enziklopedikoak erabiltzen dituela erantzun du; heren batek (33%) informazio liburuak erabiltzen ditu, eta 27,45%ak itzuli behar den testuak dioena.

Modu zehatzagoan adierazita, itzulpenean, itzultzeko testua baka-rrik, beste ezer gabe, erabiltzen dutela diotenak 17% dira; testuarekin batera hiztegi enziklopedikoak ere erabiltzen dituztela diotenak 7,8%; testuak dioenarekin, eta 2,6%ak testuarekin batera, gaiari buruzko monografikoak erabiltzen ditu.

Kontsulta bezala, 5,90%ak dio liburu monografikoak bakarrik erabiltzen dituela; eta 31,37%ak esaten du monografiak eta hiztegi enziklopedikoak erabiltzen dituela.

Kontsultarako hiztegi enziklopedikoak bakarrik erabiltzen dituela esaten duena, erantzulegoaren 45,1%a da.

Hizkuntza arazoetarako baliabiderik erabiltzen duten galderari, hiztegiei dagokiona bakarrik hartuko dugu kontutan, gramatika, hiztegi berezitu eta bestelako baliabiderik erabiltzen duten galderei oso gutxi erantzun bait diote, eta ezin liteke beste ondorioz atera, horixe besterik, galdera horiei oso gutxi erantzun ere dietela.

Hiztegiei buruzko galderari, beraz, inkestari erantzun diotenen 72%ak erantzun dio; denek baiezko erantzuna eman dute, noski. Erantzun dutenetatik, ordea, erdiak baino askoz ere gehiagok ez du zehaztu (54,90%ak) zein baliabide erabiltzen dituzten. Batzuetan beste, erantzun horiek denak bildurik, erantzun bakoitzeko 1,75 hiztegi. Hiztegi zerrenda horretan lehenengo lekua Maria Molinerrenak du, zehaztu diren guztien 28,60%, Laroussek 24,50%, Casares eta Collinsenek 14%, Real Academia de la Lengua Españolarenak 8,16% eta ondoren zerrendan Martin Alonsorena, Oxford, Advanced Learner's, Amador, Espasa, Vox.

Euskaraz erabiltzen diren baliabideak

Bost azpialderaz osatzen zen galdera hau: Hiztegi orokorrak, hiztegi berezituak, gramatikak, bestelako baliabideak eta norberak egindako bilketak. Azpialdera guztiak irekiak dira, eta horretxek hedadura handia eman dio galdera honi.

Hiztegi orokorrei dagokienean, 93%ak erantzun du hiztegiak erabiltzen dituela, baina horietako 83%ak bakarrik zehaztu du zein hiztegi erabiltzen dituen. Erantzunen arabera, batzuetan beste, bakoitzak 2,7 hiztegi, ia hiru erabiltzen ditu. Gehien aipatzen den hiztegia X. Kintanarena da; berak bakarrik aipamen guztien 26,90%a hartzen du. Ondoren R. M. Azkuerena dator, 20,15%arekin; P. Mujikaren hiztegia erantzuleen 16%ak erabiltzen du. L. M. Mujikarena 9,24%ak erabiltzen du. Beste 11,75% batek Mujika baten hiztegia erabiltzen du, baina ez du zehazten zein Mujikarena; horregatik aparte ematen dugu. 7,40%ak I. Sarasolaren hiztegia aipatzen du. Horien atzetik, aipamen guxiagorekin, Retanarena, Lhanderena, Lopez-Mendizabalena eta Aunamendi argitaletxekoa ageri dira.

Bigarren apartatua hiztegi berezituena zen. Inkestari erantzun dioten guztien 87,70%ak erantzun dio galdera honi. Erantzule hauetako 88%ak zehaztu du zein hiztegi erabiltzen dituen. Erantzule bakoitzak 1,22 hiztegi aipatu ditu batz bestea. Gehien aipatu diren hiztegiak UZEIrenak izan dira, zein zehaztu gabe: aipamen guztien 74%a beraienak izan dira. Ondoren, agintaritzaren hitz bilduma, aipamen guztien 13%arekin. Eta ondoren, aipamen gutxiagorekin, K. Izagirreraren **Lokuzio Hiztegia**, R. Etxezarretaren **Hiztegi Erotikoa**, X. Kintanaren **Sukaldaritza hiztegia** eta X. Gereñoren **Esamoldeak**.

Itzulpenean lagungarri erabiltzen diren euskal gramatikei buruz egiten zen galderari, inkestari erantzun dioten itzultzaileen 58%ak bakarrik erantzun dio. Horietatik ere zenbaitek gramatikak erabiltzen dituela besterik ez du erantzun, zein erabiltzen dituen zehaztu gabe. Erabiltzen dituzten gramatiken autoreak zehaztu dituztenen erantzunen arabera, itzultzaile horietako bakoitzak 1,96 gramatika erabiltzen ditu batz bestea, bere lanean.

Aipamen gehien merezi izan duen gramatika P. Goenagarena izan da, erantzuleen 31,37%ak erabiltzen bait du. Bigarrena Txillardegirena, 21,41%arekin. Ondoren Euskaltzaindiarena, erantzuleen 23,52%ak erabilia. Horren ondoren, askoz ere aipamen gutxiagorekin, Fr. L. Villasanterrenak, R. M. Azkueren **Morfologia**, eta S. Altube, A. Campion eta P. Lafitteren gramatikak edo gramatikazko liburuak.

Bestelako baliabiderik erabiltzen duten jakiteko egiten zen galderari erantzun gutxi eta oso jeneralak eman zaizkio: "kontsultak", "talde-lana", "alfabetatze teknikoko apunteak", "irakurketak", "aldizkariak", "amari galdetu", "gurasoei galdetu" eta gisakoak izan dira erantzun horiek.

Galdera honek zuen azkeneko aldagarria "norberak egindako hizkuntz baliabide bilketak" zen. Inkestari erantzun diotenetatik, 40%ak baietz erantzun dio galdera honi, kasuren batean, hala ere, ohar aipagarriren bat eginez, "baserriko sukalde goxoko jakinduri ezkutu eta isila" miresten duenak bezala.

8. Itzultzean nabarritako zailtasunak eta eskasiak

Galdera honek hiru alor berezi zituen bere barnean: Lexikoaren alorra, morfologia eta sintaxiaren alorra eta egoera soziolinguistikoak eragiten dituen zailtasun eta eskasiak. Inkestak berak proposatzen zituen zenbait erantzun garrantziaren arabera ordenatzea zen inkesta erantzuleari eskatzen zitzaiona.

Lexikoa

Lehenengo alorrari dagokion bezainbatean (lexikoarena, alegia) bost erantzun modu proposatzen zitzaizkion erantzuleari, garrantzitsuenetik garrantzi gutxienekeora ordenatu zitzan:

- 1.— Euskal Lexikoaren egoera orokorra.
- 2.— Aditz eskasia.
- 3.— Adjetibazio eskasia.
- 4.— Adberbio eskasia.
- 5.— Gaur egungo fenomeno modernoek izendapenerako izen eskasia.

Erantzun proposamen hauek, ondorengo bi azpialorretarako proposatu zirenak bezala, Itzultzaile Eskolako ikastaroetan, eta beste hainbat elkarrizketa eta topaketetan maizenik entzun izan ditugun bilketa bat dira.

Galdera honi inkestari erantzun dioten guztietatik batek ez beste guztiek erantzun diote (99%). Emaitzak analizatu eta aurkezteko bi modu erabiliko ditugu. Lehenengoan garrantzi gehien zein faktoreri ematen zaion aztertu nahi da; bigarrenaren arabera, berriz, faktore bakoitzari zein postu ematen zaion garrantziaren araberrako mailaketa batean.

Horrela bada, garrantzitsuentzat zein faktore ematen den begiratzu gero, lehen postuan, eman dugun zerrendan lehenengo agertzen dena ageri da (euskal lexikoaren egoera orokorra, alegia); lehen postuan aipatzen diren guztietatik 49%etan agertzen bait da. Lehen postu horretan gehien agertzen den bigarrena, gorakoko zerrendan bosgarren zegoena da (gaur egungo fenomeno modernoek izendapenerako izen eskasia) (25,49%). Hirugarren, aurrekoa baino askoz ere gutxiago ez dela, aditz eskasia aipatzen da (19,60%). Laugarren, erantzun guztien 7,84%arekin, hirugarren aipatzen zena, adjetibazio eskasia. Adberbio eskasia inork ere ez du aipatu lexikoaren alorrean lehenengo zailtasin edo eskasia bezala.

Garrantziarik handiena aitortzen zaion faktorea bakarrik kontutan hartu ordez, garrantzi gehien ematen zaion lehenengo biak hartzen bada, ordea, gauzak zerbait aldatu egiten dira. Zeren kontu hori eginik, euskarak gaur egungo fenomeno modernoek izendapenerako duen izen eskasia gehiagotan agertzen da (33,33%) lexikoaren alorrean nabaritzen diren bi eskasia edo zailtasun motarik garrantzitsuenen artean, euskal lexikoaren egoera orokorra baino (32,29%). Hirugarren bezala adjetibazio eskasia agertzen da (18,75%), lehen egin dugun kontuan

hirugarren faktore bezala agertzen zen aditz eskasiaren aurretik (13,54%). Azkena, 3%arekin, adberbio eskasia.

Guztiaren kalkulu bat egin, eta faktoreak zein ordenatan ageri diren begiratu gero, zailtasun edo eskasia nabari bezala ikusten den faktorea aditz eskasia da, batz besteko media kontutan harturik, eta bigarren, baina ia diferentziarik gabe euskarak gaur egungo fenomeno modernoan izendapenerako duen izen eskasia. Bi hauetako lehenengo motako erantzunak dispartsoagoak dira, hala ere, barreiatuagoak bigarren motakoak baino.

Hirugarren faktore bezala, aurrekoekin alde handirik gabe, euskal lexikoaren egoera orokorra dator, nahiz eta garrantzi gehien zein faktoreri aitortzen zaion bakarrik kontutan hartzen baldin bada, lehenengo postuan egon. Hala ere, faktore honi zein toki eman behar zaion garrantzi mailaketan iritzi barreiatuagoak daude aurreko bietan baino eta honetan bada hala ere desbideratze mota berezi eta adierazkor bat. Erantzunen 22%ak garrantzi gutxienekotzat ematen dute euskal lexikoaren egoera orokorra, zerrendako beste faktoreekin alderatuz. 22% horiek ia denak beste jeneroekin batera literatura ere itzultzen dutenak dira. Arazoa beharbada galderan bertan dago, zehaztasun maila desberdineko erantzunak proposatzen zituelako.

Mailaketan laugarren faktore bezala adjetibazio eskasia agertzen da. Hemen ere ordea, erantzunak oso barreiatuak daude, eta desbideratze berezi bat dago, garrantzi mailaketan bigarren tokia ematen diotenena, gehienbat literatur itzultzailez osatzen den multzoa berau ere.

Eta ezkenik, bosgarren mailakotzat adberbio eskasia eman behar da.

Morfologia eta sintaxia

Alor honetan erantzunak bateratzeko hiru erantzun modu proposatzen ziren:

- 1.— Euskal morfologia
- 2.— Euskal sintaxiaren egoera.
- 3.— Gramatika deskribatzaile zabal batzuren falta.

Inkestari erantzun diotenek 86%ak erantzun dio galdera honi.

Aurreko puntuan bezala jokatuz, garrantzi gehien zein faktoreri ematen zaion begiratu gero, gramatika deskribatzaile on baten falta da garrantzi gehieneko bezala gehien aipatzen den faktorea (57,14%). Garrantzi gehieneko faktore bezala gehien agertzen den bigarrena euskal sintaxiaren egoera da (32,65%); eta hirugarreneko eta azkenik euskal morfologia (10,20%).

Erantzunen barreiamendua kontutan harturik ere, garrantziaren ordena ez da aldatzen. Hala ere erizpideen finkotasuna sumatu liteke. Horrela, gramatika deskribatzaile on batzuren falta aipatzen den guztietatik, 63,6%etan lehen faktore bezala agertzen da, 11,36%etan bigarren faktore bezala, eta 25%etan azkeneko faktore bezala. Ikusten denez iritziak ez daude oso bateratuak.

Euskal sintaxiaren egoera aipatzen den guztietatik, 40%etan lehenengo faktore bezala ageri da; 42,5%etan faktoretan bigarren bezala, eta 17,5%ak bakarrik dio beste bi faktoreak baino garrantzi gutxiagokoa denik. Iritziak bateratuago daude, beraz, sintaxiari dagokionean gramatika deskribatzaile on batzuren faltari dagokionean baino.

Gauza bera geratzen da morfologiari dagokionean. Zeren 14,28%ak bakarrik jartzen bait du lehen mailako faktore bezala; 48,57%ak bigarren mailan jartzen du, eta 37,14%ak hirugarren bezala ematen du.

Egoera soziolinguistikoa

Egoera soziolinguistikoko faktore desberdinei itzulpenerako zailtasun edo eskasia bezala aitortzen zaien eragin konparatiboa aztertzeko bost erantzun proposatu zitzaizkien inkesta erantzuleei:

- 1.— Irakurlego arruntaren euskara mugatua.
- 2.— Itzulpen alor bakoitzean euskaraz informazio masa handi bat ez izatea.
- 3.— Purismoaren eragina.
- 4.— Itzulgaien ezaguera mugatua.
- 5.— Erdararen ezaguera mugatua.

Bost horiez gainera, inkesta hau Herri Arduralaritzako Euskal Erakundearen bitartez iritsi zitzaizkieni seigarren erantzun modu bat gehitu zitzaizkien proposamenetan: Euskararen ezaguera mugatua. Erantzun modu honi, ordea, erantzuleek ez diote garrantzirik aitortu, eta zentzu horretan ez du distorsionatu guztien erantzun multzoa.

Itzulpenerako traba egin dezaketen faktore soziolinguistikoen artean (proposatzen direnen artean) lehenengo hiruei aitortzen zaie garrantzirik handiena modu guztietara ere. Garrantzi gehien aitortzen zaion lehenengo faktorea bakarrik kontutan harturik, erantzun guztien 36%ak "Itzulpen alor bakoitzean euskaraz informazio masa handi bat ez egotea" aitortzen dute garrantzitsuentzat. Ondoren, eta alde gutxirekin, irakurlego arruntaren euskara mugatua jartzen da faktore eragileentzat (34%). 20%arentzat purismoaren eragina da garrantzi gehien duen faktorea.

Erantzun modu hau eman dutenei buruz esan beharra dago, gainera, 60%a familiz euskaldun ez direnak direla. Bestaldetik, baita ere, Bizkaian gehiago azaltzen da iritzi hori Gipuzkoan baino. Bizkaitarren artean 28,25%a iritzi horretakoa da; gipuzkoarren artean, berriz, 13,15%a bakarrik da iritzi horretakoa.

Garrantzi gehieneko bi faktoretzat zeintzuk ematen diren kontutan hartuz gero, faktoreen ordena zertxobait aldatu egiten da; zeren erantzun proportziorik handienak euskal irakurlegoaren euskara mugatua aitortzen du zailtasun edo traba bezala. Ematen diren erantzun guztien 32,63%ak Itzulpen alor bakoitzean euskaraz informazio masa handi bat ez egotea jartzen du bi faktore garrantzitsuenen artean. Eta ondoren alde handiarekin bestek.

Erantzunen bateratasuna ere kontutan hartuz, mailaketa modu berean geratzen da, lehenengo bi faktoreak elkarren maila ia berean daudela.

9. Itzultzailetzarako prestakuntza

Alor honetako iritziak biltzeko, hiru azpialorretan banatu ziren: Itzultzailetzarako ikasketa bereziak hasterako behar litzatekeen prestakuntza, itzultzailetzarako ikasgai premiazkoenak, eta itzultzailetzarako ikasketen formaltasuna.

Oso zaila da erantzunen ikuspegi egoki eta aldi berean laburtu bat ematea. Zeren alor hauetako bakoitzean erantzuleak dituen erizpideak elkarri menpekotuak bait dira; eta era horretara inkestari erantzun dion bakoitzak itzultzaile ofizioaren ikuspegi orokor bana isladatzen du bere erantzunetan. Izan ere, erantzunak bat banaka ez direla hartu behar konturatzeko, errazago ulertzeko, aski da pentsatzea zein gauza desberdina ari diren erantzuten itzultzailetzarako ikasketek urtebetekoak izan behar dutela dioten bik, batek lehenengo puntuan itzultzailetzarako ikasten hasi aurretik unibertsitateko ikasketak behar direla esan badu eta bestek COU maila aski dela iritzi badio.

Gerta liteke gainera, eta gertatzen da, itzultzaile ikasketa eta profesio statusari dagokionez ematen diren erantzunen artean batu ezintasunak egotea. Hala batek nahi luke COU ikasketen ondoren unibertsitatean bi urteko itzultzaile ikasketak egin eta lizentziatuaren profesio statusa eduki. Nahi izatea libre da, baina gaur egungo ikasketen erregulazioan zenbait gauza ezinezkoak dira; esandakoa bat.

Era honetako kontraesanak egonagatik, ordea, denboraren eta tokia-
ren laburrak beharturik erantzun blokeak bat banaka aztertuko ditugu,

elkarrekiko dependentzien azterketa analisi xeheago bat egin nahi duenarentzat utzirik.

Itzultzailetzarako ikasketen aurretiko prestakuntza

Galdera honek bi azpialor ditu: bat ikasketa orokorrei dagokiena: Zenbaterainoko ikasketa orokorrak beharko lirateke: Hiru erantzun modu proposatzen ziren: Unibertsitate ikasketak; COU - BUP, eta kultur prestakuntza ona.

Inkestari erantzun diotenen 86%ak erantzun dio galdera honi ere. Erantzun diotenetatik, 55,10%ak unibertsitateko ikasketak eskatuko lituzke itzultzailetzarako ikasten hasi ordurako. 18,36%ak COU edo BUP maila eskatuko luke. 26,50%arentzat aski litzateke kultur prestakuntza orokor on bat. Unibertsitateko ikasketak edo COU - BUP maila eskatuko luketenetatik, ordea, 91,70%ak ikasketez gainera kultur prestakuntza orokor on bat eskatuko luketela zehazten dute.

Galdera multzo honetan bertan aurkitzen zen beste azpialorra euskarazko prestaketari dagokiona zen: Euskarazko nolako prestaketa beharko litzateke (itzultzaile ikasketetan abiatu aurretik, esan bezala). Bi erantzun modu zituen: E.G.A. / E.G.A. baino gehiago.

Inkestari erantzun dioten guztietatik 89%ak erantzun dio galdera honi. Horietatik 88,25%ak E.G.A. baino gehiago eskatuko lukete itzultzaile ikasten hasi aurretik, eta gainerakoek E.G.A. bakarrik.

Itzultzailetzarako ikasgai premiazkoenak

Galderan hamabi gai proposatzen ziren, itzultzailearen prestaketa-rako ukan dezaketen garrantziaren arabera ordenatzeko eskatuz. Inkestari erantzun diotenetatik 77,20%ak erantzun dio galdera honi. Baina galderari erantzun diotenetatik oso gutxik (34%) erantzun dio gaiak garrantziaren arabera ordenatuz, beharrezkotasuna azpimarratuz baizik, gai bat edo beste, edo zerrenda bat, beharrezkotzat seinalatuz, alegia. Horregatik, erantzun hauen azterketan, modurik fidagarrienaerantzunen maiztasunaren azterketa izango da. Hala ere mereziko du erantzunak garrantziaren arabera eman dituztenen emaitzak bereziki aztertzea.

Hona bada, ordenan, aipamen gehien izan duenetik gutxien izan duenera, itzultzaileek beren lanbidearen ikasketarako premiazko erizten dieten gaiak:

- 1.— Euskal lexikologia (100%ak aipatua)
- 2.— Euskal morfosintaxia (98%ak aipatua)
- 3.— Estilistika (79,50%ak aipatua)
- 4.— Testu konparaketa (77,25%ak aipatua)
- 5.— Testu mailakatuen itzulpen gidatua (77,25%ak aipatua)
- 6.— Euskal itzulpenaren historia kritikoa (75%ak aipatua)
- 7.— Teoria linguistiko orokorra (70,50%ak aipatua)
- 8.— Euskal literatura (70,50%ak aipatua)
- 9.— Itzulpenaren historia eta teoria (63,60%ak aipatua)
- 10.— Hirugarren edo laugarren hizkuntza baten ezaguera sakona (59%ak aipatua)
- 11.— Gaztelaniazko morfosintaxia eta lexikologia (54,50%ak aipatua)
- 12.— Gaztelaniazko literatura (52,25%ak aipatua)

Erantzun modu hauek garrantziaren arabera ordenatu dituztenen erantzunak aztertzen badira, ordena zerbait aldatu egiten da, eta era honetara geratzen:

- 1.— Euskal morfosintaxia
- 2.— Euskal lexikologia
- 3.— Testu mailakatuen itzulpen gidatua
- 4.— Itzulpenaren historia eta teoria
- 5.— Euskal itzulpenaren historia kritikoa
- 6.— Teoria linguistiko orokorra
- 7.— Estilistika
- 8.— Euskal literatura
- 9.— Testu konparaketa
- 10.— Gaztelaniazko morfosintaxia eta lexikologia
- 11.— Gaztelaniazko literatura
- 12.— Hirugarren edo laugarren hizkuntza baten ezaguera sakona

Zerrenda honetan hiru multzo ageri dira: Lehenengo mailan jartzen diren bi gaiak alde handiarekin destakatzen dira besteetatik; garrantzi askoz ere handiagoa ematen zaie. Hirugarrenetik hamargarrenera bitartekoak beste multzo batean koka litezke; nahiko multzo homoginoa. Eta azkenik, azkeneko biei garrantzi oso txikia ematen zaie, besteei ematen zaienaren aldean.

Itzultzailetzarako ikasketen formaltasuna

Bi modutako galderak zeuden azpialor honetan ere: Ikasketa moduari dagozkion proposamenduak, eta ikasketen iraupenari dagozkionak.

Ikasketa moduari dagozkion bezainbatean, bost erantzun posible proposatzen zituen inkestak: Autodidakta, aldian behingo ikastaroak, unibertsitateko ikasketa, unibertsitate ondoko ikasketa, etengabeko erreziklajez (bilera, aldizkari, ikastaro monografiko...)

Inkestari erantzun dioten 91,22%ak adierazi du bere iritzia. Horietatik 19,25%aren iritzian itzultzaile ikasketak modu autodidaktan egin behar dira. Multzo honen beronen barruan, ordea, erdiaren iritzian aldian behingo ikastaldiak ere behar dira.

Erantzuleen 42,30%arentzako, itzultzaile ikasketak unibertsitatean burutu beharko lirатеke. Eta 21,15%aren ustez itzultzaile ikasketek unibertsitate ondoko ikasketak behar luketeizan. 7,69%aren ustez itzultzaile ikasketak aldian behingo ikastaro batzuren bitartez burutu beharko lirатеke, beste baldintzarik gabe.

Berziklajeari dagokionez, erantzuleen 63,50%ak beharrezkotzat jotzen du beti, edozein direlarik ere aurretiko ikasketak.

Ikasketen iraupenari dagokionez, bost erantzun modu proposatzen zituen inkestak: Sei hilabete, urte bete, bi urte, hiru urte, gehiago. Inkestari erantzun diotenetatik 67,30%ak erantzun dio galderari, ikasketa modua eta urteak zehaztuz. Erantzuleen 36,36%ak hiru urte baino gehiagoko ikasketa unibertsitarioak izan beharko luketela uste du; 28,50%arentzat hiru urteko ikasketa unibertsitarioak egin beharko lirатеke itzultzaile izateko; 14,25%arentzat bi urte unibertsitatean izango litzateke onena. 11,40%arentzat urte erdiko ikasketak, unibertsitatera gabe, aski dira. Beste horrenbestereantz, berriz, unibertsitate ondoan bi urte beharko lirатеke. 7%arentzat urtebeteko ikasketak beharko lirатеke, unibertsitatean ala unibertsitatez kanpo.

10. Itzultzaile profesioaren statusa

Bi azpiarlo zituen galdera honek: Tituluari dagokiona eta itzultzaileen antolamenduari buruzkoa. Tituluari dagokionean lau erantzun proposatzen zituen inkestak:

- 1.— Titulurik gabea
- 2.— Euskal Herriko titulu extraakademikoa (E.G.A. gisa)
- 3.— Diplomaturia
- 4.— Lizentziaturia.

Inkestari erantzun diotenetik 86%ak erantzun dio galdera honi. Bistan da itzultzaile ikasketen formaltasunak baldintzatu egiten duela galdera honi eman lekioketen erantzuna. Esan dugu lehen zenbait erantzunetan kontraesanak nabari direla. Hala ere, datozen eran emango ditugu erantzunak.

Erantzuleen 8,90%arentzat itzultzaileak titulu gabeko profesioa izan behar luke. 19,60%arentzat, berriz, Euskal Herriko titulu extra-akademiko bat beharko litzateke itzultzaile izateko. 30,35%arentzat itzultzaile tituluak diploma izan beharko luke, eta 41%aren iritzian lizentziatua behar luke itzultzaileak.

Itzultzaileen antolamenduari dagokionez, hiru erantzun modu proposatzen zituen inkestak:

- 1.— Profesio liberal arautu gabea
- 2.— Elkartea (idazleenaren gisa)
- 3.— Profesio liberal kolejiatua.

Galderari erantzule guztien 80%ak erantzun dio. Erantzule horien 50%ak profesio liberal kolejiatu bezala nahiko luke itzultzailetza; 43,47%arentzat elkartea izango litzateke antolamendu onena; eta 6,50%arentzat itzultzailetza profesio liberal arautu gabea izango litzateke.

11. Itzulpen-politikazko iritzia

Bost azpialorrez osatzen zen inkestaren alderdi hau. Itzultzaileak zein iritzi du: itzulpen-politikaz orohar, Eusko Jaurlaritzaren itzulpen-politikaz, argitaletxeen itzulpen-politikaz, bikoizketa-etxeen itzulpen politikaz, Itzulpen-politika bat diseinatu beharraz.

Puntu bakoitzarentzat hiru erantzun modu proposatzen zituen inkestak:

- 1.— Ona dela
- 2.— Txarra dela
- 3.— Ez dakit (lehenengoarentzat salbu, hirugarrena "ez dagoela" bait zen).

Itzulpen-politika orohar

Inkestari erantzun dioten guztien 82,25%ak erantzun dio galdera honi. Honela banatu dira iritzia: 75%ak uste du itzulpen-politikarik ez dagoela orohar. Beste iritzia erdi banatan banatzen dira, 12%ak us-

te du itzulpen-politika ona dela orohar, eta beste horrenbestek txarra dela.

Eusko-Jaurlaritzaren itzulpen-politika

Inkestari erantzun dioten guztien 80,50%ak erantzun dio galdera honi. Erantzuleen 60,9%aren iritzian Eusko Jaurlaritzak itzulpen alorrean daraman politika txarra da. 32,60%ak ez daki; eta 6,5%ak uste du ona dela.

Argitaletxeen itzulpen-politika

Galdera honi ere inkestari erantzun dioten guztien 80,50%ak erantzun dio. Erantzule horien 15,20%arentzat itzulpen-politika ona darabilte Euskal Herriko argitaletxeek. 26%arentzat itzulpen-politika hori txarra da. 58,70%ak ez daki.

Bikoizketa-etxeen itzulpen-politika

Inkestari erantzun dioten itzultzaileen 77,20%ak erantzun dio galdera honi. Erantzuleen 11,35%arentzat itzulpen-politika ona daramate. 56,80%arentzat, berriz, txarra da itzulpen-politika hori; eta gainerantzekoek (31,80%) ez dakite.

Itzulpen-politika bat diseinatu beharraz

Inkestari erantzun dioten guztien 89,50%ak erantzun dio galdera honi. Erantzuleen 96%arentzat itzulpen-politika zehatz bat diseinatu beharra dago. 4%ak ez daki zer erantzun eman.

12. Norberaren itzulpen ekintzaren laburpen bat

Galdera honek izan dituen erantzunen aniztasunarekin, ezinezkoa da guztiz laburpen egituratu bat burutzea. Era askotako jokaerak aurkitzen bait dira. Ia, esateko, itzultzaile bakoitzeko itzulpen historia desberdin bana.

Inkestan, bestela, biltzen ez den daturik, itzulpenaren aipatu direnez bestelako aldaerarik adierazten duen datu berri gutxi ageri da. Badira hala ere batzuk:

Hala nola, badirela itzultzaileak telebistako filmeak euskarara bezala gaztelaniara ere itzultzen dituztenak, bapateko itzulpenak ere egiten direla, (interpretari ala ondoz ondoko itzultzaile bezala den zehaztu gabe) nahiz eta gutxitan aipatzen diren; norbaitek bideo produkzioarako aurreprestaketa aipatzen du; testu zuzenketa ere aipatzen dute zenbaitek (zuzenketa itzulpengintzarekin oso lotua ibili ohi da, gogora bedi Katalunian adibidez, itzultzaileen elkartean parte direla zuzentzaileak ere).

B.- Datuen esanahia eta bilakaera historikoa

1. Itzultzailearen adina eta jatorria

Jatorriari dagokionez 1.981ean argitaratu zen inkestatik oraingora alde esanguratsurik nabari ez bada ere, ez da berdin gertatzen adinari dagokionean. Hartan, izan ere, garrantzia handiko itzultzaile multzo bat osatzen zuten 56-70 urte bitartekoek. Oraingo inkestaldian multzo hori erabat desagertu da, erantzuleen artean behintzat, ez dago, ez da azaldu; gehieneko adina 53 urtetakoa izan bait da oraingo erantzuleen artean.

Era askotara interpretatu liteke hori horrela gertatu izana. Baliteke, lehenago esan dudana bezala, inkestaren banaketa sistemaren ondorio soil bat izatea. Gaitz da sinestea, hala ere; zeren ziur adin horietako itzultzaileak badiren zenbait zentzutara banatu bait da inkesta.

Nolanahi ere, eta zeinnahi delarik ere egiazko arrazoiak, beti ere kontutan eduki beharreko datua da hau, erantzunak zentzu horretan beti gazteagoen eta berauen joeren aldera ertzeratuagoak, makurtuagoak azalduko bait dira.

2. Itzultzaileen ikasketa maila

Ikasketa unibertsitarioak dituztenen proportzioaren alde ez da batere esanguratsua 1981eko inkestatik hona (70%-73,68%); batez ere lehenengo inkesta horren lagina kontutan harturik (30 itzultzaile). Ondorioz alde bat eta aurreremendu bat izan dela aterako balitz ere, lagin horrekin ez litzateke fidagarria izango.

Ikasketa alorrari dagokionean., hark zehaztasun handirik ematen ez bazuen ere ("ia gehienek letra mailako ikasketak egin dituzte") azke-

neko inkestan azaldu diren datook ez dute baieztapen horretarako oinarriarik ematen, erdiak pasatxo bait dira letretan ikasiak (54'76%), eta gainerakoak beste alor batzuetako ikasketak eginak dira (31% zientzietan, 14,28% gizarte zientzietan eta zuzenbidean).

Zentzu honetan bai esan litekeela alor berrietara hedatu dela, anitzagoa dela orain lehen baino.

3. Itzultzailearen gaurko lanbidea

Aldaketa handia izan da 1981ean argitaratu zen inkesta egin zenetik oraingo honetara, itzultzailearen lanbideari dagokionez.

Lehenik, inkestak errealitatea isladatzen duen neurrian, itzultzailea asko profesionaldu du bere lanbidea. Lehen erantzuleen ia erdiak (46,6%) itzultzaile bezala egiten zuen lana. Gaur egun, 84,21%ak itzultzaile bezala egiten du lana, edo itzulpenak bere lanaren parte handi bat hartzen dio behintzat. Zentzu horretan profesionaltasuna, neurgarria bada, ia doblera iritsi da.

Profesionaltasun horretan pisu handia, erdia pasatxo (50,87%) esan bezala Administrazioak du. Harrez gero, izan ere, Administrazioritako itzulpengintza, orduan ia hasi besterik egin gabe zegoena, modu nabarmenean hedatu da, eta itzultzaile asko eramanean du bestelako itzulpen alorretatik, eta berri asko sortu ere bai, bere eskabideak betetzeko. Gaur egun, guztira jota, larogeitik larogeitamar pertsona bitartean ari dira, erabat itzultzaile bezala, edo beste eginbeharren artean itzulpena ere baduela, Administrazioritza publikoaren maila guztietan (Legebiltzar, Jaurlaritza, Diputazio, udaletxe). Horrez gainera, zenbait itzultzailek, nahiz eta beren lanpostua Administrazioaren barruan ez ukan, itzulpen asko egiten ditu Administrazioritako zenbait instantzitarako.

Administrazioritza barruan diharduten itzultzaileon ezaugarri bereziene-tako bat bezala, ordea, beren eskusibismoa jarri behar da. Administrazioritako lanean ari diren itzultzaileetatik bostetik batek bakarrik egiten bait ditu bestelako itzulpenak ere. Gaur egungo egoeran beldurra sartzeko datua ere izan liteke hori, itzulpengintzaren alor berberari dagokionez inkestan azaldu diren beste datuekin batera, eta are beste bide askotatik ezagutzen diren datuekin batera, begiratzen baldin bazaio. Inkestari begiratu gabe bait dakigu, izan ere, Administrazioiko itzulpengintzak ikuspegi linguistikotik eta soziolinguistikotik begirata, zelako ahuleziak dituen: hizkera, lexikoa, erredakzio modua, estiloa, definitu gabeak, joera desberdinak eta aski bortiztu eta zitaldu eta tematuak itzultzaileen artean (askotan, gainera, itzulpenari eta itzul-

penezko erabakiei ez dagozkien joerak, xede hizkuntzatarako hautatzen den hizkuntz ereduari baizik; jakina, itzulpen teoria eta korrespondentzia sistema misteriozko baten izenean justifikatuak, noski; besterik behar genuke! Baina itzulpen teoriaren ondorioz hartutako erabaki bezala eman nahi diren askok itzulpen teoriarekin ez du zerikusirik gehiago dakigun hark tenporekin baino), Administraritzan erabiltzen den euskara osorik (edo ia) itzulpenezkoa izatea (jatorrizko euskarazko testuekin parez pare jarri eta konfrontatu ezina); itzulpen modu horren zentzu bakarrekotasuna (gaztelaniatik euskarara, horrek eragin lezakeen paralelotasun erabatekorako arriskuarekin); komunikaziozko funtzio egiazkorik ia batere ez betetzea. Guztiok, azken finean, bizitza sozialaren alor batean euskararen erabilera normaldurik ez egonaren ondorio eta ikuspegi desberdinak besterik ez dira.

Ahulezia horiek guztiak gutxi balira ere, orain mundu horren isolamendua gehitzen baldin bada (eta alor berean ageri diren beste zenbait arazo: itzultzaile euskaldunberriek Administrazioaren artean bereziki duten proportzio susmagarria, etab.), Administraritzako itzulpengintza desbideratzeko arrisku nabarian jartzen dute.

Alor honetan berean jarraituz, datu berezi eta ohargarria da, aipatu dugun arazoa (isolamendua) Gipuzkoako jaiotar diren itzultzaileen artean dela arinena. Gainerantzeko probintzietan, Bizkaian batez ere —beste probintzietarako lagina txikiegia bait da ondorio finkoak atera ahal izateko— Administrazioarako eskusibismoa ia erabatekoa bait da, horretan ari diren itzultzaileen artean (ez bedi ahaztu Administrazioan diharduten itzultzaile bizkaitarren 60%ak hizkuntzaz euskalduna ez den familia batekoa dela erantzun duela, gainera).

Buelo handia hartu duen beste itzulpen alor bat komunikabideetakoa da. 1981ean argitaratu zen inkestan ez zen aipatu ere egiten zehazki. Gaur egin, berriz, inkestak isladatzen duenez, erantzuleen 36,84%a alor honetarako itzulpengintzan ari da.

Komunikabide hauetatik guztietatik, uste izatekoa zen bezala, ETB da itzulpen kontsumitzailearik garrantzitsuen, lehengo inkesta egin zenean azaldu gabe zegoen bezeroa, hain zuzen.

Garai hartan komunikabideetarako lanean ari ziren itzultzaile gehienak prentsa idatzirako ari ziren lanean. Gaur egun, berriz, lan partizio hori arras aldatua dago, eta prentsa idatzirako itzultzaile banaka batzuk besterik ez dira ari lanean; eta ari direnak, inkestaren erantzuleen artean behintzat, aldizkari espezializatu, edo zientzi-dibulgazioetarako gehienak: **Elhuyaren** batez ere, eta behin bakarrik aipaturik **Jakinen**.

Ikusten denez, egunkari eta aldizkarietako itzultzaileen figura (Egin eta Argian ari zirenak batez ere) galdu egin da, ez da ageri orain, orduango zentzuan, inkestak kanpora ezagutzen dugun Saski-Naski aldizkariaren kasuan ez bada.

Zentzu horretan, esan liteke medio horietako euskararen erabilera normaldu egin dela (itzultzen zen informazio gehiena bertan sortua izaten bait zen maizenik): bertako itzultzaileek edo alde egin dute edo aldatu egin dira; eta euskaraz argitaratzen dena ez da itzulia, sortua baizik, oso aldi behin ez bada.

Itzultzaileak bere lanbideaz duen iritzia

Itzultzaileak bere lanbideaz duen iritzia ere neurri handian aldatu da azkeneko urte hauetan.

Aipatzen ari garen inkestan, izan ere, beren burua profesional bezala ikusten zuten itzultzaileak, erantzuleen 26,6%a ziren; beren burua erdi-profesionaltzat zutenak beste horrenbeste, eta behin-behineko itzultzailetzat zutenak 36,6%a.

Gaurko erantzunen arabera, itzultzaileen 66,6%ak bere burua profesional bezala ikusten du lanbide horretan, erdi-profesional bezala 7%ak du bere burua; eta 16%a behin-behineko itzultzaile aitortzen da.

Ondorio garbia atera liteke beraz, itzultzaile lanbidea, itzultzaile profesioa oso finkatzen ari dela lanbide bezala. Pertsona multzo handi batentzat bere lanik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetakoa bihurtu dela.

Hala ere, profesioaren finkapen horri buruz bada zer esana, ez bait dago egituraturik, nolabait esateko estratifikaturik, lanbide finkatuak, profesio finkatu eta errotuak egon ohi diren bezala. Erantzunetan partizio anarkiko bat dago, lanbide honetara iristeko izan duten modu anarkiko eta ez-diskriminagarriagatik, eta seguraski baita itzultzaileen multzorik handienak lanbide horretan daraman denbora gutxiagatik; oso urte gutxitan ugaldtu da ia kolpetik itzultzailea gure artean. Adibide bat emateko, ez bait da erraz uler litekeen gauza adinak itzultzailearen profesio statusarekin duen erlazio ia ezdeusa.

Profesiorako sarrera ez-diskriminagarriaren ondorio, hori gertatzen den guztietan lanbide horien kalitatearen eskasia izan ohi da. Oso kontutan hartzeko puntua izan beharko luke honek hemendik aurrera. Kalitate eskabidea orientatzen ikasi beharko da, aldi berean gizarteak, bezeriak itzultzaileari eska diezaion.

Ohizko itzulgaia eta berorren ezaguera

1.981eko inkestan era honetako gairik ez zen, itzultzailearen lanbi-dearekin bateraturik hartzen zelako ohizkoa zen itzulgaia. Oraingo kasu honetan zertxobait zehaztu nahi izan dugu galdera. Informazio hau berria da, beraz, eta horrenbestez ez da harekin konparagarria. Zer itzultzen zen orduan, eta zein proportziotan, jakiten zaila denez, gaur egungo egoeraz dugun informazioarekin nekez konparatu eta bilakaera ikus daiteke.

Bada hala ere galdera honetan azpigaldera bat, itzultzaileak bere itzulgaiak izan ohi duen ezaguerari buruzkoa, geroago, itzulpengintzarako erabili ohi diren baliabideez egiten den galderari eman zaizkion erantzunekin konparagarri dena eta komentario bat merezi duena.

Itzulgaiaren ezaguerari dagokionez lau erantzun modu proposatzen ziren: ezaguera sakona, itzulgaiak ondo informatuta egon ohi dela, ezaguera arina, gai batzutan ezaguera sakona baina bestetan arina.

Gaiaren ulermenerako baliabideez galdetzen zenean berriz, hiru erantzun modu proposatzen ziren: gaiari buruzko monografiak erabiltzen dituela itzultzaileak; hiztegi entziklopedikoak erabiltzen dituela, ala itzuli behar den testuak berak dioena erabiltzen dela bakarrik, beste inon kontsultarik egin gabe.

Uste izatekoa zen bi galderen erantzunak zentzu beretsukoak izango direla.

Bi erantzun sailak batera jarriak honela geratzen dira korrespondentziak: Itzultzaileen 17,50%ak itzuli behar duen gaiaren ezaguera sakona izan ohi du; hirutik bat (33%) ongi informatua egon ohi da itzulgaiak; 10,50%ak ezaguera arina izan ohi duela aitortzen du, eta 36,80%ak dio gai batzuren ezaguera sakona izan ohi duela baina bestetan arina. Hala ere, erantzuleen heren batek dio gaiaren ezaguerara iristeko liburu monografikoak erabiltzen dituela, eta 80,40%ak hiztegi entziklopediakoak erabiltzen dituela kontsultarako. Gero, ordea, batz bestea, itzultzaile bakoitzeko 1,7 hiztegi orokor aipatzen dira, erabiltako bezala, sorburu hizkuntza guztiak kontutan hartuta.

Ikusten denez, erantzun hauek guztiak nekez bateratu eta elkartze-koak dira. Seguruenik desira edo desiderata askoren proiektzioak isladatzen dira erantzun modu horietan, inkestetan itzuri ezina den bezala, bestalde.

4. Itzultzailearen hizkuntz ezaguera

Sorburu eta xede hizkuntzak

Arlo honetan ere aldakuntza handiak izan dira 1.981ean argitaratutako inkesta egin zen garaitik oraingo hau egin denera.

Lehenik eta behin hizkuntza gehiagotatik itzultzen da euskarara, eta normalean, gainera, itzultzaile bakoitzak ere hizkuntza gehiagotatik itzultzen du lehen baino.

Horrela, gaztelaniatik euskarara bakarrik, edo horrez gainera euskaratik gaztelaniara ere itzultzen dutenak, itzulpenerako euskaraz gainera gaztelania bakarrik erabiltzen dutenak alegia, xede ala sorburu hizkuntza bezala, 1981eko inkestan erdiak ziren, oraingo honetan berriz 30%a bakarrik guztira.

Frantsesetik itzultzen zutenak 30%a ziren; oraingo inkestaren arabera 43,85%a dira orain. Ingelesetik itzultzen zutenak 10%a, dutenak 35%a. Alemanieratik lehen 6%ak, orain 3,5%ak itzultzen du.

Kontutan har bedi, ordea, lagina aldatu egin dela, oraingoa askoz ere handiagoa dela (2,8 bider handiagoa). Horrek esan nahi du proportzio aldaketak erakusten duena baino askoz ere alde handiagoa egin dela kopuru errealetan.

Horrela, frantsesetik euskarara itzultzen dutenen kopuru erreala 2,77 aldiz biderkatu da urte hauetan. Ingelesetik itzultzen duten itzultzaileen kopurua, berriz, 6,65 bider gehiago izatera iritsi da epe berean, kopuru errealak kontutan harturik. Esaldiok ere erlabiboak bait dira, laginarekiko erlatiboak, formulazio zuzena eta bidezkoa, baina ulerkaitzagoa, beste era honetara izango litzateke: Oraingo inkestan, kopuru errealetan, 2,77 edo 6,65 bider pertsona gehiagok erantzun dute, lehengo inkestan baino, frantsesetik edo ingelesetik itzultzen dutela.

Nolanahi ere dudarik ez dago hizkuntza horietatik itzultzaile askoz ere gehiago ari dela gaur egun euskarara itzultzen lehen baino. Dudarik gabe itzulpen merkatuaren aldakuntzak ekarri du aldakuntza hau ere.

Bestalde, beste aldakuntza nagusi bat hizkuntza klasikoetatiko itzultzaileei dagokiena da. 1.981eko inkestari erantzun ziotenetatik 16,6%ak egiten zituen hizkuntza horietatik itzulpenak; oraingo honetan berriz, ia inork ez. Hizkuntza klasikoetatiko itzultzaileon hau benetan gertatzeaz dagoen galera bat da; belaunaldi oso bat lanerako galtzeko zorian dago, eta luzarora berriro lortuko ez den lan ahalmen bat da, hain justu ere.

Hori kontutan harturik, esan behar da sorburu hizkuntzei dagokienez aniztu egin dela euskararako itzulpena. Guztira hamar hizkuntza aipatu dira euskal itzultzaileen sorburu hizkuntza bezala.

Ez da ahaztu behar, gainera, euskal itzultzaile bakoitzak orokorrean sorburu hizkuntza bezala erabiltzen dituen hizkuntzen batzbesteko kopurua. Zehaztuz, hala ere, euskal itzultzaileak ia ezagutzen dituen hizkuntza guztietatik itzultzen du, 17,50%ak bakarrik ezagutzen ditu itzulpenean erabiltzen dituenak baino hizkuntza gehiago. Ez da ordea konparagarri, 1981eko inkestaren aurkezpenean ez bait da berezten.

Hizkuntza horiek nola ezagutu diren, 1981eko inkestan ez zen galdeztzen. Oraingo honetan kasuetan erdietan hizkuntza bakoitza hitzegiten den tokietara joanez ikasi dira.

5. Itzultzailearen hizkuntz ezaguera: euskara

1981eko inkestan ez zen era honetako galderarik egiten, eta horrenbestez ezin liteke garai hartatik hona bitartean itzultzaileen artean izan den bilakaerari buruz ezer esan, inkesta batean oin harturik behintzat.

Hala ere, datuak beren lekuan aditzera eman badira ere, eta berez aski adierazkor izan arren, zenbait datuk komentario eta gogoeta berezia merezi du.

a. Euskara nola ikasi zuen

Arazorik larrietako bat euskaldunberriena da. Aipatua dut Unescoren Nairobiko Gomendioak zer dioen (xede hizkuntza bezala erabiltzen denak ama hizkuntza izan behar duela itzultzailearentzat, edo bestela gutxienez hamabi urtez normalean hizkuntza horretan mintzatua behar duela itzultzaile batek ama hizkuntza ez duen beste bat xede hizkuntza bezala erabiltzeko).

Datuak diotenez, euskal itzultzaileen 79%a familiz da euskaldun, eta 21%a euskaldun berria. Banaketa hori, ordea, ez da alde guztietan berdina. Gipuzkoan 92%a familiz euskalduna da, eta 7,9% euskaldunberria. Bizkaian, berriz, 57%a familiz euskalduna eta 43% euskaldunberria. Gainerako probintzietan laginaren laburrak ondorio erraugarria eramango gintuzke seguru. Euskaldunberri horietatik, gainera, 58,33%a bakarrik egon da euskaraz hitzegiten den tokietan propio joanda euskara ikasten. Medio horiek jarri ez dituen itzultzaileen multzoak garantia minimorik ez du ematen itzulpenak euskararen antzeko

hizkuntz modu batetara ere itzuliko dituenik. Itzulpen irakaskuntzan aritu garenok ederki dakigu zein zaila den irakaskuntza akademiko baten bidez itzultzaile izan nahi duen pertsona bat egoera horretatik ateratzea (Ez dira beraz itzulpen teoriako ezagupenak juzkatzen direna).

Arazo honek guztiak, ordea, badu beste ikuspegi bat, beste nonbait aipatu behintzat egin duguna, ikuspegi soziolinguistikoagoa hain zuzen: Nola eta non gertatzen da onargarri egoera hori? Galdera horri erantzuteko lekuri egokiena beharbada ez da hau, galdera egiteko leku eta une egokia baden arren; beharbada aparteko artikulu berezi bat merezi du, xeheago eta datuak zehatzago begiratu; hala ere gauzak horrela izan daitezen a prioriko zenbait baldintza aipa litezke hemen. Pentsa liteke zein baldintzatan bai den posible gertatzen dena gertatzea, eta zeintzutan ez den posible hori bera.

Posible izan ez dadin baldintzetako bat, dudarik gabe, itzulpenaren produktuak komunikazio funtzio zabala betetzea litzateke, ez itzulpen bezala, xede hizkuntzako komunikazio bezala soilik baizik (mezu itzuliaren hartzaileak ez du juzkatzen xede hizkuntzan ematen den mezuaren eta sorburukoan ematen zenaren arteko parekotasun doia ala desbiderapena; hori itzulpen kritikariari dagokion eginkizuna da; mezu itzuliaren hartzaileak gozatu ala nozitu egiten du gehienez ere informazioaren parekotasun doi ala desbiderapen hori). Denok dakigu gaur egun itzulpen askoren eskakizuna egiten duen bezeria jakin bati testuak euskarara edo antzeko gauza batera itzultzea interesatzen zaiola bakarrik, testuak euskaraz ere aurkeztera beharturik dagoelako. Itzulpenaren erabiltzaile asko dituen itzulpenak zainduagoa behar izaten du hizkuntzaren aldetik.

Pentsatzekoa da, eta aztertzekoa, ea zergatik gertatzen den Bizkaian Gipuzkoan baino askoz ere gehiago fenomeno hori. Beharbada Gipuzkoan euskararen erabilera funtzional anitzagoa gertatzen delako, eta zentzu horretan populazio sektore handiagoak duelako edozein itzulpen edo bestelako produkturen nolabaiteko kontrola, oso urria bada ere, objetiboki; eta gainera euskaldunen kontzentrazioa handiagoa izanik, kritikaren komunikazioa ere aiseago gertatzen delako ere bai beharbada. Ikerketa bideak seinalatzea besterik ez da hau guztia, eta ez da hori baino gehiago balitz bezala hartu behar.

d. Euskal literatura klasikoaren ezaguera

Galdera honen beronen beste azpigaldera bat euskal literatura klasikoaren ezaguerari buruzkoa zen. Itzultzaileen artean literatura klasikoaz dagoen ezaguera ezagutu nahi zen, oraingo itzultzaileak literatura,

edo hobeto, idazketa modu, erredakzio modu klasiko baten barruan txertatu nahi badira, ezagutu beharra izango bait dute tradizio hori, eta gaur egun badakidu modu oso urrian ematen dela ezagutza hori modu akademiko; bakoitzaren ahaleginez beharko du, orduan. Erantzunak era askotakoak izan ziren. Beharbada gaizki ulertutakoak ere asko izan ziren, nahiz eta galderak garbi zioen: "Zein autore klasiko ezagutzen du ondo samar".

"Klasiko" izatearen zentzua arrunt erlatiboa izango da nonbait, aipatu diren autoreen zerrendari begiratzin badiogu. Etxeparetik hasi eta J. Sarrionandiarainokoak "klasikoen" artean aipatu bait dituzte batzuk. Hala ere bada honetan aipatzekoa den arazo bat: Noiztik atzera hasten dira klasikoak?

Erantzunetan aipatzen diren autoreen artean hiru multzo nagusi osatu litezke. Gehiago ere bai, zein irizpideren arabera osatzen diren multzoak. Autoreak bizi izan ziren garaiarekin batera aipatzen diren autoreen liburuak eskuratzeko dagoen erraztasuna konbinatuz egin liteke banaketa bat:

Talde bat oraindik bizirik diren edo oso modernoak diren autoreena izango litzateke (aipatzen direnen artean: J. Mirande, G. Aresti, R. Saizarbitoria, Txillardegia, A. Lertxundi, J. Etxaide, A. Urretavizcaya, B. Gandiaga, S. Mitxelena, X. Amuriza, J. A. Loidi Bizkarrondo, B. Atxaga.

Bigarren taldea, mende honen hasiera edo ingurutsutik aipatu ditugunetarikokoak, gerra aurreko garaia ezagutu zutenak eta hartan eragina izan zutenak, alegia: Tx. Agirre, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Kirikiño, Etxeita, R. Olabide, R. M. Azkue, Hiriart-Urruty.

Mende honez aurretikoak: Axular, J. A. Mogel, Etxepare, J. B. Agirre, Leizarraga, S. Mendiburu, Etxeberri Ziburukoa, Larramendi, Bartolome Santa Teresa, J. I. Iztueta, Astarloa, Tartas, Elizanburu, Gerriko, M. Soroa, Duvoisin, J. K. Etxeberria, M. A. Antia, S. Pouvreau, Gregorio Arrue, Xurio, Haraneder, Ulibarri-Galindez, Oihera, Barrutia, J. M. Iparragirre, Bilintx, Etxahun.

Lehenengo multzoa galderaz kanpokotzat jo liteke, eta kontrolatzen oso zaila, batzuk galdera ulertu bait dute, eta beste batzuek beharbada ez.

Bigarren multzoko autoreak klasikoen artean aipatzea esanguratsua da, aipamen asko izan dituztelako esanguratsua hala ere; eta aztertzea interesgarria izango litzatekeen lehen aipatu dugun galdera hori

jartzen du: Noiztik atzera hasten da garai klasikoa? Edo beste era batera planteatuta:

Zein eratako informazio eta irizpidea dute oraingo euskal itzultzaileek, eta euskal letretako beste profesio batzutan ari direnek, euskal letren tradizioaz? Zein kultur ondare ransmititu da euskal letren tradiziotik gaurko itzultzaile, idazle eta erredaktoreetaraino?

Alde batetik aipameneren zerrendak argi erakusten du euskal literaturaren historiari buruz zabaldu diren irizpideek asko baldintzatzen dutela itzultzaileen bilaketa, baina horren hainbestean baldintzatzen dute berriki egindako argitalpenek, autoreen eskuragarritasunak. Eta hala eta guztiz ere erantzunak beren neurrian hartzeko kontutan hartu behar da erantzuleen 36%ak ez duela autorerik batere zehaztu zerrenda honetarako, eta gainerako 63%ak batazbesteko bost izeneko zerrenda bat eman duela.

Eta harrigarriena dena, inkestari erantzun diotenen artean galdera honi eman zaion erantzunak zerikusirik ez izatea da inkestan neurtzen ziren gainerako aldagarriekin (adina, jatorria, lan mota, euskara ikas-teko izan duten prozedura, ikasketa akademikoak egin izana, etab.), batekin salbu: itzulpen literarioak egiten dituela dioen 22,8%ak esplikazio honetan eratu ditudan hiru autore multzoetako bigarrena eta hirugarrenean azaltzen direnen aipamen guztien (gera aurretiko guztiak) 63%a egin ditu. Bildur askorik gabe esan liteke beraz, euskal itzultzaileen artean literatur itzultzaileek dutela, askorengatik, euskal literaturazko tradizioaren ezaguerarik onena.

e. Itzulpenetarako erabiltzen den euskara mota.

Azpigaldera honetarako iritsi diren erantzunetan seguruenik badago desbiderapen nabarmen bat, inkestaren banaketa moduak eragina. Itzulpenetan euskalkia erabiltzea bizkaitarren artean bakarrik gertatzen den gauza bait da, inkesta honen arabera. Gipuzkoarren artean behin ere ez gertatzea, berez da susmagarria, jakinik, dakigun bezala, badirela itzultzaileak gipuzkeraz argitaratzen dutenak. Sasaki-Kaski aldizkari ia osorik itzulpenez osatuan idazten dutenak, eta beste zenbait. Hala ere, gauza jakina da baita ere, itzultzaile horiek euskara batuan ez dutela idazten inoiz, eta Bizkaiatik euskalkia ere erabiltzen dutela esanez etorri diren erantzunak euskara batua eta euskalkia erabiltzen dutenenak dira. Bizkaian, beraz, zenbait alditan eta zenbait eginkizunetarako idatziz bizkaiera ere erabili beharra sentitzen da, hango erantzuleen artean 43%ak adierazi bait du hori.

6. Itzultzailearen prestakuntza

Itzultzaileak bere ofizioa ikasteko baldintzak erabat aldatu dira 1981-eko inkesta egin zenetik hona. Kontutan hartu behar bait da inkesta hura egin aurretik oso ikastaldi gutxi izan zirela gure artean itzulpenaz. UEUK antolatuak zenbait, Elizarteko Bibliaren Itzultzaileen-tzako Ikastaldia, H. P. Rüger-ek eta Mendoza jaunek Arantzazun emana, eta UZEIk udal itzultzaileentzat antolatutako bat.

Harrez gero, berriz, Itzultzaile Eskola martxan jarri zen, ikasturteaz gainera ikastaro laburrak ematen hasi zen, zenbait argitalpen kaleratu eta aparteko ikastaro laburrak eman ditu, Udal itzultzaileek zenbait ihardunaldi eta bilera asko ospatu dituzte, Herri Arduralaritzako Euskal Erakundeak ere antolatu izan ditu ikastaldi laburrak, itzulpenari buruzko bibliografia asko ezagutarazi da. Eta guztiaren gainetik itzulpen eskabidea arras handitu da.

Gutziz normala da, beraz, erantzunek bestelako egoera bat isladatzea.

Inkesta hari erantzun ziotenen artean 86,6%ak erabat prestakuntza pertsonal edo autodidakta bati jarraitu zitzaiola erantzun zuen. Ikastaldiez baliatu izan zirenak 13,3%a ziren.

Oraingo inkestari erantzun diotenen artean, berriz, 42,1%ak itzulpen ikastaldiak egin ditu eta beste 26% batek itzulpen ikasketa formalak. Proporzioaren gorakada handia bada, are handiagoa kopuru errealetan neurtzen bada; zeren erantzule horien artean ia hamar bider (9,7) pertsona gehiago dago itzulpen ikastaldiak edo ikasketa formalak egina ordukoan baino.

Autodidaktismo hutsa neurri berean jaitsi da.

Zentzu berean handitu da itzulpen teoriari buruzko ezagupena. Garai hartako erantzuleek aipatzen zituzten autoreak honako hauek ziren: G. Mounin (erantzuleen 10%ak aipatua), eta Nida-Taber, Alonso-Zorro, Octavio Paz, Carlo Buzzeti (pertsona bakar batek aipatuak). Gutzira, itzulpen teoriako 0,23 liburu edo aldizkariren aipamena egiten zen inkestaren erantzule bakoitzeko. Oraingo inkesta honi eman zaizkion erantzunen arabera itzultzaile bakoitzak itzulpen teoriako 2 liburu irakurri ditu batzuek beste. Aipatzen diren aldizkari eta autoreak askoz ere gehiago dira guztira jota: Senez, Itzultzaile Eskolaren gainerako argitalpenak, G. Mounin, García-Yebra, Vinay-Darbelnet, Administrazioa euskaraz, Meta, Babel, Traduire, Komissarov, Delisle, Malblanc, C. Buzzeti, Maillot, Vázquez-Ayora, D. Seleskovitch, Fleisher, Ljuskanov, P. Neumark, Octavio Paz.

Hala ere, irakurketa bidezko prestakuntza teorikoa ez da erantzunetan isladatzen guztiari dagokiona, eta pentsatzekoa da, horrenbestez, prestakuntza teoriko hori ikastaro soilez egiten dela neurri handi batean, eta ikastaroetan ikasitakoa besterik gabe geratzen direla itzultzaile asko.

8. Itzultzean nabaritako zailtasunak eta eskasiak

Galdera honi dagokionez, 1981eko inkestan eta oraingoan ez zegoen berdin formulatua. Oraingo honetan, izan ere, denborak eta lekuak posibilitate gehiago ematen bait zuten, askoz ere xehetasun gehiagorekin galdetu nahi izan da, oraingo egoera xeheago ezagutzeko. Erantzunak, horregatik, beste era batera egituratuak daude oraingoan, eta ez dira konparagarri. Horregatik datuen aurkezpen soila aski da, alor honetan diren irizpideez ohartzeko.

9. Itzultzailetzarako prestakuntza

Itzultzailetzarako ikasketen aurretiko prestakuntza

Itzultzailetzarako ikasketen aurretiko prestakuntzaren premiaz ere asko aldatu dira iritziak azkeneko urte hauetan. 1981eko inkestan 15,38%ak eskatzen zituen ikasketa unibertsitarioak itzultzailetzarakoen aurretik. Proportzio hori, gaur egun 55,10%era igo da. COU edo BUP mailako ikasketak aski zirela ziotenak 23%a ziren orduan; gaur egun proportzio hori behera etorri da, 18,36%raino. Kultur maila on frogatu bat nahikoa dela ziotenak 61,5%a ziren; gaur egun horrekin aski dela diotenak 26,5% dira.

Aipatzekoa da, hala eta guztiz ere, 91,7%ak maila bateko edo beste-ko ikasketa akademiko formalez gainera, espreski eskatzen duela kultur maila on bat, ikasketa akademikoak eman dezakeen kultur mailaren muga laburraz oharturik, nonbait.

Ikusten denez, ikasketa maila askoz ere handiagoa eskatzen da, itzulpenaren esperientzia hedatu den ahala, itzultzen ikasten hasteko ere.

Euskarari dagokionez beharrekotzat ematen diren ikasketei buruz irizpideak aldatu diren ala ez ez da erraza, zeren garai hartan euskarazko tituluak Euskaltzaindiak ematen bait zituen (D eta B tituluak), gaur egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen ditu, eta ez daude

berdin egituratuta. Hala ere datuak parez pare jarri litezke: 1981eko inkestan 34,6%aren iritzian B titulua aski zen itzultzaile ikasketetan abiatzeko, eta 65,4%arentzat D titulua eskatu behar zen. Gaur gungo iritzien arabera 85,25%arentzat, Eusko Jaurlaritzak ematen duen E.G.A. tituluak adierazten duen ezaguera ez da aski itzultzaile ikasketetan hasteko.

Itzultzailetzarako ikasgai premiazoenak

1981eko inkestan hamar ikasgai garrantziaren arabera ordenatzen ziren. Inkesta haren emaitzak era honetara ziren:

1. Euskal morfosintaxia
2. Euskal lexikologia
3. Itzulpenaren historia eta teoria
4. Teoria linguistiko orokorra
5. Euskal itzulpenaren historia kritikoa
6. Testu mailakatuen itzulpen gidatua
7. Estilistika
8. Euskal Literatura: historia eta autoreen ezagupena
9. Gaztelaniazko morfosintaxia eta lexikologia
10. Gaztelaniazko literatura

Ikusten denez aldaketa handirik ez da izan itzultzaile izateko ikasgaiei aitortzen zaien garrantziari dagokionez. Batez ere lehenengo bi gaiei dagokienez, ordena berean azaltzen dira orain ere. Hortik aurrera zertxobait aldatzen da, baina ez ordenamendu horren esanahia aldatzeko moduan.

Zentzu honetan, Xabier Mendigurenek aipatu txostenean egiten duen interpretazioa berritu beharko da oraindik ere: "Hautaketa honen interpretazio behin-behineko bat aurreratuz, zera esan daiteke: gaurko euskal itzultzailea gehienbat kezkatzen duena euskara hizkuntza bezala ezagutzea eta sakontzea dela, agian maila horretan defizit nabaria somatzen baitu.

"Bigarren maila batetan nahi duela itzulpen teoria eta teknika eta azken maila batetan, nahiz eta garrantziarik ez diola ematen pentsatu beharrik ez dagoen, Literatura eta Gaztelaniaren ezagupena.

"Bistan dago aro "linguista" batetan aurkitzen garena eta hizkuntzaren normalizazio eta finkapen ezak biziki baldintzatzen duela itzultzailearen lana, eta gure demandaren baitan itzulpen literarioak, *sensu stricto* oso sarrera mugatua duela" (ibidem, 983. or.).

Oraingo inkestan ere, izan ere, gai bakoitzak dituen aipamenak (zenbatgarren lekuan aipatzen den kontutan hartu gabe) guztira bateraturik, hiru multzo nabarmen ikusten bait dira:

Lehenengoa, lexikologia eta morfosintaxiak osatzen dutena, erantzule ia guztiek aipatzen bait dituzte.

Bigarren mailan: Estilistika, testu konparaketa, testu mailakatuen itzulpen gidatua, euskal itzulpenaren historia kritikoa, teoria Inguistikorokorra eta euskal literatura (erantzuleen 70-90%ak aipatzen dituenak).

Hirugarrena: Itzulpenaren historia eta teoria, hirugarren edo laugarren hizkuntza baten ezaguera sakona, gaztelaniazko morfosintaxia eta lexikologia eta gaztelaniazko literatura (erantzuleen 52-63%ak aipatuak).

Aipamen horiek, seguruenik, garrantzia ez baino beharrezkotasuna adierazten dute, ez bait dira aipatu gabe utzi nahi. izan Zentzu horretan ohartzeko gauza da bigarren multzoko zenbait ikasgai (Estilistika, testu konparaketa, batez ere) garrantziaren arabera oso atzeko lekuetan geratzen direnak, beharrezkotasun zentzu honen arabera zein aurrera eta lehenengotatik gertura datozen.

Itzultzaile ikasketen formaltasuna

Itzultzailetzarako ikasketek behar duten formaltasunari dagokionez iritziak ez dira askorik aldatu azkeneko urte hauetan. 1981eko inkestan erantzuleen 62,5%a unibertsitate mailako prestakuntza baten aldeko azaldu zen. Oraingo inkesta honetan, 63,%a azaldu da unibertsitate edo unibertsitate ondoko prestakuntzaren alde. Aldatu dena ikastaroei buruzko irizpidea da: 1981ean erantzuleen 37,5%a ikastaldi bidezko prestakuntzaren aldekoa zen; oraingo inkesta honetan berriz, 7,7%ak uste du itzultzailetzarako prestakuntzak ikastaldi bidezkoa izan behar duenik. Unibertsitate mailako ikasketen alternatiba, gaurko itzultzaileen iritzian, modu autodidaktan egindako ikasketak dira batez ere, nahiz eta ikastaldiak ere baliagarri izan.

Formaltasunari buruzko iritziak aldatu ez badira ere, ordea, ikasketen iraupenari buruzko iritziak bai aldatu direla. Gaurko itzultzaileen iritzian urte gehiago behar dira itzultzaile izatera iristeko 1981eko inkestari erantzun ziotenen iritzian baino.

Inkesta hari erantzun ziotenetatik, 13,6%arentzat sei hilabeteko ikasketak aski ziren; 36,4%arentzat urtebeteko ikasketak behar ziren;

27,2%arentzat bi urte ziren onena, eta 22,6%arentzat hiru urte behar ziren. Hiru urte baino gehiago behar zenik inork ez zuen uste.

Oraingo inkestari erantzun diotenetatik 11,4%arentzat urte erdiko ikasketak aski dira. 7%arentzat urtebeteko ikasketak behar dira; 28,5%arentzat bi urte behar dira, unibertsitateen edo unibertsitatez geroztik. Beste horrenbestereantz hiru urteko ikasketa unibertsitarioak izango lirateke egokiak; eta 36,36%arentzat hiru urte baino gehiagoko ikasketak behar dira itzultzaile izatera iristeko.

Aldea nabaria da, eta itzultzaile lanaren konplejotasunaren kontzientzia besterik ezin islada dezake horrek.

10. Itzultzaile profesioaren statusa

Inkestari erantzun behar zionari 1981ekoan eta oraingoan proposatzen zitzaizkion erantzunak berdinak ez badira ere konparagarriak dira.

Inkesta hartan ikusten zenez, itzultzaileen 85%a itzultzaile profesioa erabat arautzearen aldekoa zen (karneta, tarifikak...), eta 15%arentzat ordura arte bezala jarraitu behar zuen, arautu gabe.

Oraingo inkesta honi erantzun dioten artean, berriz, 6,5%a da profesioa ez arautzearen aldekoa. Gainerantzekoek era bateko edo beste araubide bat nahi lukete: 50%ak Itzultzaile Kolejio bat sortzea uste dute izango litzatekeela egokiena, eta 43,5%arentzat idazleen elkarrekin moduko bat antolatuz gero aski izango litzateke.

Bestalde, oraingo inkesta honen arabera itzultzaileen 91,1%arentzat itzultzaileak era bateko edo beste titulu bat beharko luke, extraakademikoa, diploma edo lizentziatua. Batek erabat arautu eta doktoretarainokoak egon beharko luketela ere aipatu du.

11. Itzulpen-politikazko iritzia

Batekoz beste, dudarik gabe esan liteke euskal itzultzailea ez dagoela batere konforme bere lanbidean eragina duten estamentuek itzulpenari dagokionean duten jarrerarekin. Itzultzaile gehienak beren lana ematen duten inguruneetan (Jauraritzaren eragina iristen denerainokoak, argitaletxeak, eta bikoizketa-etxeak) atsekabez eta disgustoz ari dira, ez bait dute beren lana estimatu eta eta bideratzen jakingo duen mintzakerik aurkitzen.

SINTESIS

El año 1.980 se llevó a cabo una encuesta entre los traductores vascos. Era la primera vez que se intentaba una aproximación al tema para definir con cierto rigor la situación en éstos se encontraban: situación laboral, necesidades derivadas de la situación lingüística, proyectos posibles para el futuro, etc.

A principios de verano de este año, 1.986, se ha vuelto a hacer otra encuesta, similar en muchos aspectos a la de 1.980, a fin de conocer más a fondo la actual situación (aspectos laborales, profesionales, corporativos, lingüísticos y sociolingüísticos que afectan a los traductores) e intentar definir la evolución habida desde la anterior encuesta.

El temario sobre el que se ha elaborado la encuesta es, más concretamente, el siguiente:

- 1.— Tipología del traductor vasco (del y al euskara): Edad, procedencia.
- 2.— Nivel y tipo de estudios del traductor: titulación, área de especialización, etc.
- 3.— Status profesional actual del traductor vasco: profesión actual, relaciones laborales; tipos de traducción más habituales de cada uno, nivel de especialización y conocimiento de los temas a traducir.
- 4.— Lenguas de origen de las traducciones al euskara; competencia lingüística en ellas.
- 5.— Competencia lingüística en euskara: modo de aprendizaje, nivel de competencia, conocimiento de la tradición literaria.
- 6.— Modo de iniciación y acceso a la profesión de traductor. Estudios realizados.
- 7.— Recursos lingüísticos y de consulta: diccionarios, gramáticas, etc.
- 8.— Principales dificultades encontradas en la práctica de la traducción (lexicales, morfosintácticas, derivadas de la situación sociolingüística, etc.).
- 9.— Opiniones sobre la preparación debida para la profesión de traductor: temas principales que deberían estudiarse en la carrera de traductor, y su jerarquización por orden de prioridad. Estatuto académico de los estudios.
- 10.— Opiniones sobre el status profesional debido al traductor, y la necesidad de un Colegio o Asociación de Traductores Vascos.
- 11.— Opiniones sobre la política de traducción, o su defecto, de los distintos estamentos de la vida pública vasca.
- 12.— Breve curriculum profesional.

Son muchas y muy diversas las causas que determinan la particular situación de los traductores vascos. La primera de todas, y que determina fundamentalmente la problemática de los traductores, es la situación de minoridad y de conflicto lingüístico del euskara, que es la lengua de llegada de casi todas las traducciones que se hacen; se traduce a una lengua que es minoritaria en la misma sociedad en que se usa y cuyo uso no está normalizado en amplios campos de la vida social; una lengua para cuya normalización, es necesario decirlo, se están haciendo enormes esfuerzos, cuyo uso se está extendiendo rápidamente a más y más diversos campos de la vida social, fundamentalmente en base a la enseñanza y a la traducción.

Esta es, precisamente otra de las características que hacen particular la situación de los traductores vascos: Una buena parte de la traducción que se lleva a cabo por ellos tiene como destinataria a la misma sociedad que ha producido la información a traducir, sobre todo en algunas áreas (Administración, etc).

Otras áreas de uso lingüístico que han requerido en gran medida la asistencia del traductor han sido los medios de comunicación (prensa y televisión sobre todo).

Esta enorme y repentina demanda ha producido una gran afluencia de personas a la profesión de traductor. Esta misma rápida afluencia, agravada por la situación de la lengua y todas las consecuencias que de ello se derivan, es otra de las características, y fuente de problemas, de la traducción en Euskadi: más que discutible preparación teórica, criterios lingüisticistas o falta de criterio, etc.

Otra de las preocupaciones que se reflejan en la encuesta es la grave dispersión de esfuerzos, la falta de una coordinación que pueda llevar a una mejor solución de los problemas sentidos. Por todo ello los traductores, casi por unanimidad, afirman la necesidad de unirse y coordinarse para resolver sus problemas.

SYNTHESIS

In 1980 an investigation was carried out among the Basque translators. It was the first time that the subject was seriously approached with the intention of defining the situation they were in the work, labour situation, the necessities derived from the linguistic point of view, possible projects for the future etc.

In the early summer of this year, 1986, a new inquiry has been made, similar in many aspects to that of 1980, with the purpose of knowing the present situation with greater detail, (labour, profesional,

trade-union, linguistic and sociolinguistic aspects that affect translators) and also with the aim of assessing the evolution since the previous investigation.

The questionnaire was elaborated according to following programme.

- 1.— Typology of the Basque translator (to and from Basque), age, origin.
- 2.— Education status of the Basque translator: present job, work relations, type of translations he usually does, his level or specialization and his knowledge on the subject he translates.
- 3.— Languages from which he translates into Basque, his linguistic competence in them.
- 4.— Linguistic competence in Basque, the way in which the language was learnt, knowledge of the Basque literary tradition.
- 6.— Way of access to the profession, studies for this purpose.
- 7.— Linguistic and reference resources, dictionaries, grammars, etc.
- 8.— Main difficulties found in the practice of translation (lexical, morphosyntactic, derived from the sociolinguistic situation etc).
- 9.— Opinions on how to become a translator, subjects that should be studied in such a career in order of preference. Academic Statute of the studies.
- 10.— Opinions on the professional status the translator has a right to and the necessity of a college or association of Basque translators.
- 11.— Opinions on translation policies or otherwise on the different strata of Basque public life.
- 12.— A brief professional curriculum.

The causes that determine the special situation of the Basque translators are many and varied, the first and more decisive one being that of the situation of minority and linguistic conflict of the Basque language, which is the target language.

Translations are made into a language that is minority in the society in which it is used, the usage of which isn't normal in vast areas of social life.

But it must be said that great efforts are being made to normalize the use the language which is rapidly gaining ground in many different fields, especially in education and translation.

This is precisely one of the characteristics that makes the situation of the Basque translators so peculiar: the best part of their translations are directed to the same people who produced the information to be translated. Above all in certain areas (Administration etc).

Other areas that have demanded the assistance of the translator are the media (press and TV mainly).

This enormous and sudden demand has meant there are a great deal of people going into the translating profession.

This same 'rush' of translators, worsened by the state of the language and all the subsequent consequences is another of the characteristics and a source of problems, in translation in the Basque Country: rather questionable theoretical preparation, linguistic criteria, or lack of criteria etc.

Another of the worries reflected in the investigation is the dispersion of efforts, the lack of coordination which could lead to a better solution to the problems being encountered. For all these reasons, translators —almost unanimously— have agreed upon the need to get together and coordinate to solve their problems.

Itzultzaile elkarte eta itzulpenaren inguruko zenbait lan Katalunian

Jose Luis Agote

Katalunian, gurean ez bezala, itzultzaileek badute elkarte bat eta honek egiten dituen lanez gainera, beste alderdi edo erakunde batzuetatik ere ekintza mordo bat egiten dira itzulpenaren eremuan. Guzti horren berri laburki ematera gatoz artikulua honetan eta bi atal nagusi bereiziko ditugu horretarako; lehendabizi, elkartearen nondik norakoa azalduko dugu eta, gero, Administrazio Eskola eta Generalitatetik datozen lanak.

a.— Itzultzaile elkarte

Nola sortu zen:

1983ko ekainaren 18an sortu zen APTIC/LC (Associació Professional de Traductors, Intèrprets i Correctors de Llengua Catalana) Kataluniako Generalitatearen Administrazio Eskolaren antzinako lokalatan egin zen biltzar orokor batean. Estatutu-projektua batzuk irakurri eta emendatu ziren bertan zirenen artean —70 pertsona inguru— eta, ordezkariak hautatu ondoren, beharrezkoak diren tramiteak burutu ziren eta 83-VII-22an argitaratu zen konstituzioa Generalitatearen Egunkari Ofizialean.

Zein helburu dituen:

APTIC/LCren xedeei dagokienean, honako hauek aipa ditzakegu:

1.— Alderdi supraestrukturalak:

1.1.— Katalanierazko itzultzaile, interpretari eta korrektoreen zentsu gaurkotu bat egin, bertan beren espezializazio profesionala seinalatzen delarik, eta honek lan konketuak bideratzeko balio beharko du. (Ikus 1.5. apartatua. Zentsua argitara bidean dago).

1.2.— Profesaionalen egungo ordainsari-baremoak errebisatu eta gutxieneko batzuk finkatu, Elkartearen laguntza jakinaz gainera Autogobernuko instituzioena ere beharko luketelarik. (Profesionalen ordainsari-tarifa gutxienekoak argitara bidean daude).

1.3.— Laneko kontratu-eredu bat ezarri. (Egiteko bidean).

1.4.— Seguritate Sozialeko erregimen bat lortu itzulpengintza, interpretaritza eta korrekzioko profesionalentzat. (Estudioan).

1.5.— Lan konketuak bideratu eta koordinatu afiliatuentzat. (Egituratzeko-prozesuan. Ikus 1.1. apartatua).

1.6.— Katalanierazko itzulpen, interpretazio eta korrekzioetako azken produktuaren kalitatea hobetzera lagundu, ahal den bitarteko guztiekin.

1.7.— Kreatibitatea eta zorroztasun profesionala suspertu, laguntza beka eta sarien bitartez, beste entitate eta erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzan.

1.8.— Herrialdeko politika jeneralaren segimendubat egin itzulpenari (idatzizko nahiz ahozkoari) dagokionean, hartara hautsi dadin kanpoko hizkuntza batean egindako produktu baten merkatura azaltzetik berorren gurera ekartzera, gaur bertan ere, dagoen desfasea. (Hau da, esate baterako, best-seller eta difusio handiko filme gehienekasua).

1.9.— Ahal diren erakunde eta instituzio guztiak premiatu itzulpena, interpretazioa eta korrekzioari dagokien guztiaren jurisdikzioa Kataluniarako lortzeko (zinteko itzultzaile/adierazleen arazoan bezala). Hain zuzen ere APTIC/LC berehala Kolejio Profesional bihurtzeko asmoa du, Kataluniako Parlamentuak I. Legislaturan zehar onetsi zuen Lege homonimoaren arabera (Elkartek 1984eko Urtarrilaren 14ean egindako biltzarrean onetsia izan zen arazo hau).

2.— Alderdi paraestrukturalak:

2.1.— Harremanak egin —federazioak— Nazioarteko Elkarte Profesionalekin (APETI, FIT, AIIC, ATA, The Translators' Association, etab.).

2.2.— Katalanieraz mintzatzen den lurralde guztietara hedatu, Estatuetako 1. artikulua dioenaren arabera: Irlak, Pais Valeciá, Roselló, Capcir, Vallespir, Conflent, Alguer eta kanpoko beste zenbait kulturagune katalan.

2.3.— Katalanierazko itzulpena, interpretazioa eta korrekzioaren historia egin.

2.4.— Itzulpena, interpretazioa eta korrekzioan espezializatutako biblioteka bat sortzea, katalanieraz egin, gauza batzuetan Pen Club eta EUTIekin batean muntatu daitekeena.

2.5.— Komunikazio organoak eratu —boletina, aldizkaria, urteroko memoria, etab.afiliatuen eta APTIC/LCren alorrean interesaturiko guztien artean.

2.6.— Jendea sentsibilizatu itzulpena, interpretazioa eta korrekzioari dagokionean, prentsako artikulua, mahai-inguru, hitzaldi, kolokio, ihardunaldi, ikastaldi eta sinposioen bidez.

Laburtuz, ahalegina egingo da itzultzaile-, Interpretari- eta korrektore-lanbidea arrazoizko eta duin bihurtzeko.

Inskripzioa:

Estatuetako 2. artikulua arabera, APTIC/LCko partaide izateko ondoko baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- a) Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Itzultzaile eta Interpretari Eskola Unibertsitarioak argitaratutako tituluaren jabe izan.
- b) Atzerriko Eskola Ofizial batek argitaratutako titulua eduki.
- d) Kataluniako junta iraunkorrak argitaratutako titulua eduki, itzulpena, interpretazioa eta korrekzioari dagokiena.
- e) Kataluniako Administrazio Publikoak emandako ziurtagiria eduki.
- f) Enpresa pribatu batek emandako ziurtagiria eduki.
- g) Itzuli edo korrejitutako bi obra, gutxienez ere, aurkeztu.

Edo bestela:

- h) Zuzendari-Taldearen akordioa izan.
- i) Elkarteko bost partaideren bermea izan.

Ze aktibitate egiten ari den gaur egun:

— Generalitat, Udaletxe, Diputazio, Unibertsitate, argitaletxe, enpresa pribatu eta abarretatik datozen lanak banatzen dira afiliatuen artean, beti ere kontutan harturik profesionalen espezializazioak eta lanik gabe dauden pertsonak.

— Profesional-munduan sartzen ari diren afiliatuak (Bellaterrako Itzultzaile eta Interpretari Eskola Unibertsitarioan diplomatutako gazteak, Filologia Katalanean lizentziatuak...) koordinatu eta orientatzen ditu, testuak errebisatuz eta kontseiluak emanez —badira hizkuntz kontseilari bezala ari diren afiliatuak.

— Era berean, informazioa ematen da afiliatutako profesionaleri interesa lekizkiekeen hitzaldi, ikastaro, sinposio, beka eta subentzioez.

— Honako argitalpenok egiten dira:

1. **El Directori d'Afiliats** edo "laneko agenda", bertan ageri direlarik nahi duten afiliatu guztiak, bakoitzak menderatzen dituen hizkuntza desberdinekin eta tematika konkretuekin. Agenda honen lehenengo promozioa egin da Katalunia guztiko erakunde publikoetan, entitate ezagun samarretan eta enpresa publiko mordoxka batean (publizitateko agentziak, notaritzak...)
2. **Torsimany** aldizkaria, itzulpen, interpretazio eta korrekzioan espezializatutako lehen aldizkaria delarik, hasieran hiru hila-betez behin argitaratuko da. Informazio hau eskainiko du:
 - Katalanieratik edo katalanierara itzulirik merkatuan dauden lan guztien berri.
 - Hizkuntza desberdinetako itzulpenei buruzko kritika eta komentarioak (balio ezagutuko profesionalen eginak).
 - Itzultzaileen artikuluak beren esperientziari buruzkoak.
 - Elkarriketak.
 - Profesionalen interesen defentsari dagozkionean APTIC/-LCK burutzen dituen gestioen informazioa.
 - Merkatuara azaltzen doan kontsulta-materialari buruzko informazioa, besteak beste.

Aldizkaria afiliatu guztien kolaborazioari irekia dago.

— Beste zenbait gestio:

1. Proposamenak prestatzen ari dira laneko Komisioak sortzeko.
2. Mintegiak prestatzen ari dira errektore, itzultzaile eta interpretarientzat.

b.— Administrazio Eskola

Kataluniako Administrazio Eskolak *Revista de Llengua i Dret* izeneko aldizkari bat argitaratzen du urten bitan gutxi gora behera, baina aldizkaria izan arren 300 orrialde inguruko liburukote bat da eta era guztietako estudioak egiten dira bertan administrazio- eta zuzenbide-hizkuntzaren inguruan. Senez-en aurreko alearen "Iruzkinak" atalean *Llengua i Dret*-eko gaien zerrenda luze bat ageri denez, hemen ez dugu berriro azalduko hango guztia. Administrazio Eskola honek, bestalde, argitalpen ugari egiten ditu hiru sailetan banatuta izen hauekin: *Col·lecció Estudis*, *Col·lecció Materials* eta *Col·lecció Manual i Formularis*. Hizkuntzari dagozkionak bakarrik aipatuko ditugu hemen:

- **Estudis bilduman:** *El vocabulari jurídic del Llibre de les Costums de Tortosa*, Carles Duarte i Motserrat; 128 orrialde.
- **Materials bilduman:** *Llengua i Administració. Actes del Col·loqui sobre llengua i administració*. Hitzaldi bilduma. 317 orrialde.
L'establiment del llenguatge administratiu. Actes de les jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu català, hitzaldi bilduma.
Tradició i Modernitat en l'establiment del llenguatge administratiu, hitzaldi bilduma.
- **Manuals i Formularis bilduman:** *Formulari de documentació municipal*, 221 or., Jaume Sánchez i Isac.
Formulari de procediment administratiu, 146 or., Josep-Enric Rebés.

Manual i formularis per a ajuntaments, I. liburukia, 544 or. Luis Chacón Ortega.

Manual i formularis per a ajuntaments, II. liburukia, 544 or. Luis Chacón Ortega.

Guzti honetaz gainera, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Orokorak 8 orrialdeko aldizkaritxo bat, **Llengua i Administració** izenekoa, argitaratzen dute Administrazio Eskolarekiko lankidetzan, eta bertan administrazio-hizkuntzari buruzko lantxo, artikulua, terminologia, bibliografia eta beste hainbat gauza azaltzen dituzte bi hilabetez behin, hizkuntzaren normalizaziorako.

Eta bukatzeko, eskuartean foileto piloa dudanez, ezin utzi aipatu gabe Katalunian ematen diren ikastaldi, ihardunaldi, kolokio, tailerrak eta abar. Hona hemen banaka batzuk:

- Cursos intensius de Llengua Catalana i Llenguatge Administratiu per al funcionariat i personal al servei de l'Administració. Administrazio Eskolan ematen dira urtean bitan. Hiru maila daude eta 60 ordu irauten dute.
- Curs bàsic de traducció administrativa. Eskolan bertan, baita ere, 18 ordutakoak.
- Col·loqui sobre llengua i administració. Lehen aipatu dugun liburu batean bildua.
- Jornades sobre traducció i interpretació. Orobat.
- Jornades de normalització lingüística als Ajuntaments. Tarragonan eta Tortosan.
- Jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu català. Lehen aipatutako liburu batean bildua.
- Curs sobre fonaments del llenguatge administratiu català.
- Curs de correcció i traducció de textos administratius i jurídics.
- Sessions sobre llenguatge administratiu.
- Seminari sobre redacció de disposicions administratives.
- I Taller de correcció i traducció en llengua catalana. EUTI, APTIC eta beste zenbait erakundek antolatua.
- I Simposi Internacional de Traducció en Llengua Catalana. Katalunieraren Nazioarteko II Kongresuaren barruan, bertako Komisio batek eta APTIC/LCk antolaturik, aurtengo maiatzean egina.

Aurreko guztia ikusi ondoan argi eta garbi gelditzen da Katalunian oso aurrera dabiltzala gure aldean, itzulpenari dagokion guztian. Publikazio, estudio eta ikerketa ugari egiten dituzte lanean ari denak non hornitu izan dezan. Eskola Unibertsitarioa dute itzultzen ikasteko eta Elkarte bat ere bai informazioa, kontseiluak, bibliografia, babesa eta abar lortzeko. Itzultzaileak badu nora jo eta ez dauka momentuero irtenbideak bilatuz ibili beharrik. Hemen hizkuntz-ereduarekin berarekin ere zalapartaka gabilta oraindik eta gehingoaren joera bistan bada ere ez dirudi besteak berehalakoan makurtuko direnik. Euskaldunok gutxi garenez, literatura egiten duten idazle gutxi daude eta itzuli beharra dago, deus gutxi itzultzen bada ere, baina badirudi administrazioan inork ez dakiela euskaraz eta itzultzaileak, ordenagailu baten gisan, gainera botatzen dioten guztia euskararatu behar duela, ondo edo gaizki, nola edo hala, inoren aurrean itxura egin dezaten. Urteak aurrera doaz eta, nik dakidala behintzat, itzultzaileak ez dauka inongo administrazioan erdarara itzuli beharrik. Euskal Herrian gaudean arren badirudi erdara dela hemengo jatorrizko hizkuntza. Bada ordua euskaraz produzitzen hasteko eta gauzak serio kiango egiten hasteko. Guztiau gutxi balitz ere, hemen bakoitza bere aldetik dabil batasunik handiena behar denean. Ea noiz hasten garen biltzen, harremanak egiten, iritziak azaltzen eta, jakina, kritika serioak kaleratzen.

Galiziako Itzultzaile Elkarte

Valentín Arias

Galiziako Itzultzaile Elkarte (ATG)

Galizian diharduten eta aritu diren argitaletxeek burutu duten itzulpen politika, orain dela urte gutxitara artekoan behintzat, koiunturazkoa eta testimoniala besterik ez da izan: Plutarco, Shakespeare, Heidegger, Sain-Exupéryren obraren bat edo beste argitaratzen da, galegozko itzulpenean, frogatu nahiz bezala hizkuntza galegoa gai dela egoera eta garai oso desberdinetako autoreen pentsakera adierazi eta artea bideratzeko, bertako hizkuntza etsaien eta besteratuaren aurrean goratzeko; galegorako itzulpen bat edo beste argitaratuko da, itzultzaileen beraien borondatismo hutsez, edo itzultzaile horiei era horretako omena eman nahi zaielako. Eta apenas besterik. Erakunde eta instituzioak, nahiz publikoak nahiz pribatuak, kultura galegoaren ezein adierazpenen kontra eraso egiten ez badute, agirian nahiz ezkutuan, albo eta bazter egiten diete guzti guztiei modurik nabarienean. Eta guzti horren ondorioz galegorako itzulpenak —orain dela urte gutxira arte, ez bedi ahaztu— oso gutxi dira, aldi behingoak, batek edo bestek gogoazuelako burutuak...

Larogeigarren hamarkadarekin ordea, gauzak aldatu egiten dira. Aldatzen hasi, alegia. Hizkuntza galegoaren erabilerak batez ere eskolan izan duen aurreramentuak galegozko liburuen eskabidea askoz ugaltu-

ko dela ematen du aditzera. Eta bertako sorkuntza aski laburra denez —kultura soilezko bestelako zenbait arrazoiez gainera—, argitaletxeren bat hasia da sistematikoki galegora egindako itzulpenak argitaratzen. Eta liburu itzulpenean esperentziatxo baten jabe badiren pertsona multzo batek Galiziako Itzultzaile Elkartearen sortzen du (Asociación de Traductores Galegos).

Elkarte hori de factoeko egoera bati erantzunez sortzen da beraz. Horren bidez galegorako itzulpenak zehaztasunez ibiltzeko bide batetik bideratu nahi bait dira.

Alde batetik, Galizian itzulpenerako bideratzen diren ahalegin material eta gizasemezkoak ahalik eta oneneratu egin nahi dira, horretarako ATGren barruan informazio zerbitzu bat antolatuz, nahi ez diren bikoiztasunak gerta ez daitezen, adibidez. Horretarako, elkarteko bazkide diren guztiek obraren bat itzultzen hasiak badira, edo obra jakin bat edo obra mota jakin bat itzultzeko asmoa badute, edo obraren bat itzuli eta argitaratzeko hitz eman gabe baldin badaukate, horren berri eman behar dute; beste itzultzailearen batek, edo argitaldarien itzulpen-argitalpen prozesurik hasi ez dezaten beste norbaitek hasia duela jakin gabe, eta baita itzulpenik, egina dagoela jakin gabez, argitaratu gabe gera ez dadin.

Bestetik, ATGren asmoa da galegorako ahalik eta itzulpen gehiena eginaraztea; zeren Galizian kultura behar bezala zabal dadin eta bertako hizkuntza garatu, arras komenigarri eritzia bait du, eta are gauza guztiz beharrezkotzat hartua, munduko bibliografi produkzioaren zatirik handiena galegorako itzulpenean ahalik eta gehien zabaltzea. Xede horretarako, ATGk urterako plangintza bat burutzen du urte oro argitaldarien eta Galiziako Administrazio Autonomoarekin batera.

ATGk asmoa du, baita ere, galegorako itzulpenen kalitatea ahaleginetan jasotzeko, kalitatea bi zentzutan hartzen delarik: jatorrizkoarekiko zehaztasuna, eta erabiltzen den hizkuntzaren egiazkotasuna eta egokitasuna. Xede horretarako itzultzaileak baliagarri izango duen tresneria prestatzen du (itzulpen eskuliburua, alorkako hiztegiak, itzulpenen aurkezpeneko arauak...), itzultzaile eta hizkuntzalari galego eta kanpokoan arteko harreman eta topaketak eragiten dira, etab. (horri dagokion bezainbestean derrigor aipatu beharrekoa da Instituto da Lingua Galegak —gaur egun Galiziako hizkuntzaren alde diharduen instituziorik emankorren eta maila altuenekoak— ATGri egin dion abegi ona, elkartearen egoitza izateko bere lokaleak uztetik hasi eta bertan dituen materiale balio handiko eta ugariak haren eskura jartzearaino iritsi dena.

Eta jakina, ATGk bere helburua du, profesionalen elkarte orok bezala, bere bazkideen interesen defentsa ere. Zentzu honetan aipatu gabe ezin utzi liteke argitaletxeek lehen ikusian onartu izana ATGk itzultzaile eta argitaldarien arteko harremanetarako ezarri dituen ordainketa baremoak eta gainerako baldintzak. Etorkizunerako asmoa, kobrantzak eta gainerako ekonomi harremanen ardura bazkideen izenean elkarteak berak hartzea da, itzultzaileak lan horretatik arindu eta beren lanaren kalitateaz gehiago arduratu ahal izan dezaten.

Azkenik, ATGk izan duen harrera bikaina ere ez da aipatu gabe uztekoa. Alde batetik, itzultzaileei dagokienez, urte bete pasatxoan bildu zaizkion larogei bazkideak —guztien artean hartzen diren erabaki eta arauen betetzaile zehatzak direlako alde batetik, eta bestetik hizkuntza galegora garrantzi apur bateko itzulpenak egin dituzten itzultzaile guztiak, esateko, bazkide direlako—, bi milioi eta erdi biztanle dituen herri honetan, ATG derrigor kontutan hartzeko puntua bihurtzen dute hizkuntza galegora itzulpen bat seriotasunez eta zehaztasunez egin asmo denean. Eta itzulpenen bezeriari dagokionez, eginak aski dira eta hitzak sobera: argitaletxeek ia ehunetik ehunean ATGko bazkide diren itzultzaileak kontratatzen dituzte; hor dago Galiziako Xuntako Kultur Kontseilaritzarekin izenpetutako hitzarmena zenbait itzulpen sailean egiteko (lehendabiziko partida, berrogeita gehiago liburuz osatua, argitalpen prozesuan dago dagoeneko).

Itzulpena: J. M. Zabaleta

APETI

(Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes)

Koro Navarro
Itzultzaile Eskolako irakaslea

1.— Historia apur bat

APETI da Estatu Espainolean dagoen itzultzaile eta interpretari erakunde nagusia. Oso zabala ez bada ere —mila bat partaide orain— garrantzi handia du itzulpenaren alorrean, APETIren gain bait dago nagusiki itzulpenaren kalitate eta itzultzaileen eskubideen defentsa. Zehatzago, hauek dira erakundearen helburuak: aipatu bezala, lanaren kalitatearen defentsa eta kontrola; itzultzaile eta interpretarien eskubide profesionalen defentsa eta itzultzailearen presentzia gizartean areagotzea. Lematzat honako hau hartzen dute: "Traduciendo se entienden los pueblos".

Bestalde APETIk FITen (Federación Internacional de Traductores) hartzen du parte; nazioarteko mailan egiten du lana beraz. Eta epe labur baten buruan, Colegio Profesional de Traductores e Intérpretes bihurtuko da APETI. Erakunde soila izatetik kolejio izatera pasatze hau erabakiorra izango dela itzulpena eta itzultzailearentzat uste dugu. Kolejio hau ez litzateke bakarra izango Estatuan. Autonomien arabera antola litezke besteak. Hain zuzen ere, berehala sortuko du Kataluniako Itzultzaile Elkarteak berea.

Orain hogeitamabi urte sortu zen APETI, edo sortu zuen Marcela de Juanek, 1954. urtean hain uzen. Ez ziren urte onak haiek: nolabait aurrera egiteko bidea zen itzulpengintza eta itzulpen lanaz ez zen inor arduratzen. Argialetxeek estilo-zuzentzailearen figura bultzatu zuten eta honek gauzak hoberratu ez ezik, hondatu ere egin zituen.

Hasiera hartan, beraz, APETIk oso indar eskasa zuen: hogeit bat besterik ez ziren partaideak, eta ezer gutxi egin zezaketen. Erakundea berpiztu egin zen ordea 60. hamarkadan, Consuelo Bergésen eskutik bereziki. Consuelo Bergés Proust eta Stendhalen itzultzailea da. Berak jaso zuen lehenengo "Fray Luis de León" itzulpen saria (1956). Aurrerago Fundación Consuelo Bergés antolatu zuen, eta Stendhal Itzulpen Saria sortu. Esan behar da halaber bera izan zela Copyright-a Espainian lortu zuen lehen itzultzailea. Horrela, eta emakume horren lanari esker —besteren artean, noski— zabaldu eta indartu da APETI.

Gaur egun ia mila lagun biltzen ditu APETIk, alor desberdinetako itzultzaile eta interpretariak: itzultzaile tekniko zientifikoak, zinpeko itzultzaile eta interpretariak, hitzaldi itzultzaileak, etab. APETIri hasiera eman zioten itzultzaile literario eta poetak besteak baino gutxiago dira orain (beste leku askotan bezala bestalde).

2.— APETIren eginkizun nagusiak

a.— Itzultzaile eta interpretarien eskubideen defentsa

- Itzultzaile eta Interpretarien Kolejioa antolatu.
- Lan Ministeritzarekin, itzultzaile eta interpretarien status juridikoa normalduko duen egitasmoa burutu.
- INEMekiko harremanak hestutu, itzultzaile lanpostu finkoak enpresa nazional eta multinazionalen lortzeko.
- ACEren (Asociación Colegial de Escritores) barnean Sección Autónoma de Traductores de Libros izeneko erakundea antolatu da: erakunde horren bitartez liburu itzultzailearen figura indartu egiten da argialetxeetan. Bestalde Seguritasun Soziala eta Liburu Idazleen Mutualitatean sartzen da orain liburu itzultzailea.
- Zinpeko itzulpenaren alorra arautu.
- Dirección General del Libroekin harremanak erraztu, argialetxeetan itzultzailearen egoera hobetu dadin.

b.— Kultur zabalkundea

Alor honetan mintegi, ikastaldi, hitzaldi eta abar luzea antolatzen du APETIk, beti ere itzulpen kalitatea eta itzultzailearen profesio-naltasunaren maila jasotzeari begira. Horrela:

- 1985.ean "Muga linguistikoak eta dokumentazioa" gaiaren inguruan mahai-ingurua antolatu zen SEDICEkin (Sociedad Española de Documentación e Información Científica) batera. Besteak beste, disziplina arteko lana bultzatzea zuen helburu, terminologia eta dokumentazio lan talde bat bultzatuz.
- Ordenagailuz lagundutako itzulpena aztertu eta landu.
- Itzulpen teknikoei buruzko mintegia sortu, itzulpenaren inguruko irakaskuntza eta ikerketa bultzatuz.

c.— Argitalpenak

Hainbat argitalpen ditu erakunde honek: besteak beste, zentsoa, tarifak, estatutuak. Halere nagusia aldizkaria da (Boletín). Aldizkari hau da erakundea eta bere partaideen arteko ohizko komunikabide tekniko-profesionala. Hiru hilabetez behin agertzen da, eta lau zatitan banatu ohi da: "APETI informa", "Congresos — efemérides", "Colaboraciones", "Directorio — Guía". Esan beharrik ez dago Estatu Espainolean diharduen itzultzailearentzat interes handikoa dela haldizkari hau.

Bukatzeko, esan behar da, nahiz eta APETIk azken urteotan asko indartu, oraindik ere itzultzailearen egoera nahiko kaxkarra gertatzen dela telebistako programatan esate baterako, azkeneko ile-apaintzailearen izena agertzen bada ere, itzultzailearen izena ahaztu egiten da; eta liburuetan berriz lupaz begiratu behar dugu zokoren batean itzultzailearen izena aurkitzeko. Salbuespenak salbu, noski. Eta Administrazioarekin eta Argitaletxeekin oraindik ere nahiko borroka egin behar da. Gu ere ahalegindu behar garelako ez dago zalantzarik.

Kataluniar Hizkuntzazko Itzulpenaren I Sinposio Nazioartekoa

Xabier Mendiguren
Itzultzaile Eskolaren zuzendaria

Joan den maiatzaren 8, 9 eta 10ean, Kataluniar Hizkuntzaren II Kongresuaren barruan, ospatu du katalunierarako itzulpenak bere lehen sinposioa Bartzelonako Majestic Hotelean.

David H. Rosenthal katalanofiloak Bartzelonako Unibertsitateko Aula Magnan "**Kultura eta Askatasuna**" gaiaz emandako hitzaldi batez eman zitzaion hasiera sinposioari eta ondoren, Avinyò, 9n, El Gran Café jatetxean afari bat eskaini zieten antolatzaileek Kataluniar Hizkuntzazko Itzulpenaren I Sinposio Nazioartekoan partaide izango ziren hizlari guztiei.

Biharamun goizeko bederatzietan ireki zen sinposioa Kataluniako Generalitateko Kultur Kontseilaria den H. Sr. Joaquim Ferrer jaunaren hitz batzurekin, eta ondoren APTC/LC (Kataluniar Hizkuntzako Itzultzaile, Interpretari eta Zuzentzaileen Elkarte Profesionala)-ren lehendakaria den Lluís Urpinell jaunak egin zuen I Sinposio Nazioartekoaren aurkezpena.

Berehalaxe Peter Newmarkek, hitza hartu zuen eta "**Itzulpenaren garrantzia**" gaiaz hitzegiteko, Kataluniari buruzko aipamen berezia eginez:

P. P. Newmark (1936) Cambridgeko Unibertsitateaz Doktore da Hizkuntza Modernotan, Holborneko Hizkuntza Modernotako Sailaren Buru eta 1984ean Hizkuntzalarien Institutuko Presidentorde izan da.

Traduktologo ezaguna izaki, artikulua eta lan ugari idatzi du gai honez, besteak beste, **Approaches to Translation** (1981) **ASLIB Translator's Handbook** (1983), **Langage du Droit et Traduction** (1982), **Survey on Case Grammar** (1986).

Itzulpenaren aurreko historikoez hitzegin ondoren, XX. mendearen bigarren atalean izan duen gorakadaren berri eman zuen eta gaur egun testuekin (artikulu, txosten, idatzi, publizitate) liburuarekin baino zehrikeri handiago duen ekintza linguistikoa gisa gehiago hartzen da eta ez hainbeste ekintza literario gisa. Berrogeiren bat herrialdetan itzultzaileak elkarte profesionalean bildurik daude eta FIT-en kide dira, gehienek unibertsitate-mailako prestakuntza dutelarik.

Azkenik itzultzailearen betekizunak laburbildu zituen:

- a) Nazio, gizatalde eta banakoen artean elkar-ulermena eta bake-giroa sortzen lagundu.
- b) Ezaguerak eskualdatu.
- c) Nazio eta erregio-mailako kulturaren emaitzik hoberenak hedatzen lagundu.

Bestalde, itzultzaileak izan beharreko gaitasunen artean aipatu zituen:

- a) Hizkuntzarekiko sentiberatasuna.
- b) Itzulpeneko edo xede-hizkuntzako lengoia idatzia menderatu.
- c) Itzuli beharreko testuek darabilten gaia ezagutu eta menderatu.
- d) Sorburu hizkuntza ezagutu.
- e) Zentzu komuna izan, hautatzen jakin eta prestua izan.

Ondoren **Jaime Medina** (1949) Filologia Klasikoan lizentziatua eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Latin-Filologiaren irakasle dena mintzatu zen "**Kataluniar Hizkuntzara eginiko itzulpenen iragana, presentea eta etorkizuna**" gaiaz.

Virgilio, Horazio, Catulo, Ovidio, Erasmo, Spinoza, Locke eta abarren itzultzailea izaki, Medina jaunak oso hurbiletik aztertu zuen idazle klasiko zenbaitek, hala nola: C. Piba, M. Torres, J. Verdager, V. A. Estellés., M. Martí i Pol, A. Guimerà eta J. Jarner-ek buruturiko itzulpen-lana.

Goiz sortu zela kataluniarren artean hizkuntza arrotzak ezagutzeko zaletasuna esan zuen eta Ramon Llull, kataluniera literarioaren lehen sortzaile handiak Mallorcan arabiera ikasteko eskola bat sortu zuela arabiarrei kristautasuna irakasteko asmoz. Baina XIV. mendearen bukaera arte ezin liteke hitzegin Itzultzaile-Eskolaz. Garai honetan hasen baita kataluniar kultura klasikoaren humanismoa bereganatzen au-

tore greko eta latinoen obrak itzuliz, (Seneca, Cicero, Ovidio), aldiki-deak ere ahaztu gabe (Boccaccio, Petrarca edo Dante). Parez-pare Biblia eta Kempisa herri mintzairaz zabaltzeko ere egin zen ahaleginik.

XVI eta XVII. mendeetan klasikoren bat edo beste itzuli zen arren, hutsune nabarmena dago beste hizkuntzatan sorturiko literatur obrak katalunieratzeari dagokionean. Baina piskanaka, Cerveratik hasita, indarra hartzeari ekiten dio ekintza honek XIX. mendearen erdi aldera klasiko greko-latinoen obra sistematiko katalunieraz jartzearen premia sentitzen da, baina gauden mendera arte ezin izan zen burutu amets hau, Bibliaren bertsiio bikoitza bezala.

Noucentismoak oso garbi zeukan ikasketa filologikoen premia hizkuntza desberdinak zehatz ezagutzeko eta literatur historiako obrarik desberdinenak kataluniar kulturaren txertatuz sortzaileen lana errazteko, nazio-kultura edukinez betetzearen taldelanak Josep Carnerrek ingelestetik buruturiko itzulpen bikainak edo Carles Ribaren "L'Odisea" bezalakoak eman zituen.

Gaur egun mundu-literaturako obrarik hoberenen kopuru on bat irakur daiteke katalunieraz eta filosofo eta pentsatzailerik nagusienak hasiak dira katalunieraz adierazpenak egiten, halere beste kulturetako emaitz ugari dago katalunieraratzeko.

Hurrengo hitzaldia Xabier Mendigurenek (1945) eman zuen "Katalunieratik euskararako itzulpenaren egoera" gaiaz. Bertan emandako hitzaldia bere osotasunean Senezen zenbaki honetan mango dugunez gero, ez dugu laburpenik eskainiko. Hitzaldia euskaraz egin zuen eta sinposiokideek aurrez emandako katalunierazko itzulpenaren bitartez jarraitu zuten.

Josep Daurella i de Nadal jaunak Filologia Catalana-n lizenziatua, Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya (D.O.C.)-en zuzentzaile izana eta gaur egun Enciclopèdia Catalana Fundazioaren hizkuntz aholkaria da. Besteak beste, A. Urretavizcayaren **Zergatik, Panpox?** (*Per qué, nenut?*) eta **Reduccions** aldizkariak argitaratutako euskal poesiaren monografikoaren itzultzailea da.

Berorrek emandako hitzaldiaren titulua izan zen: **Euskaratik katalunierarako itzulpenaren egoera gaur egun**". Aurrena, historia labur bat egin zuen euskararen iturburu idatziz eta ondoren euskararen araukuntzaz eta estandard literarioaren finkapenez eta euskara mintzatuaz hitzegun zuen. Gero euskaratik katalunierara itzultzeaz dituen arazoez, euskalkiez eta hizkuntz erregistroez eta zuzeneko edo zeharbidezko itzulpenaz aritu zen.

Bukatzeko azken urteotan katalunieratu diren euskal obren berri eman zuen eta zer eratako inizatibak dauden Kataluniar Herrialdeen eta Euskadiren artean.

Basilio Losada Castro, Bartzelonako Unibertsitatean Filologia galaiko-portugeseko sailaren buru denak saiakera eta artikulu ugari idatzi ditu literatura galaiko-portugesaz. "**Katalunieratik galaiko-portugesera** (Galiziar eremuan) egin diren itzulpenen egoeraz" mintzatu zen.

Ugari samar dira galegora itzultako poeta kataluniarrak. Costa i Llobera, Pere Quart, Espriu, J. Domènech, Raimon, Perucho eta abar. Baina ekarpenik nagusiena **Mostra antolóxica de poetas contemporáneos**-en dago, non ehun orrialdetan Carner, Riba, Sagarra, Salvat-Papasseit, Foix, Marià Manent, Pere Quart, Espriu eta G. Ferrater-en poemak itzultzen diren.

Beste behin, jadanik aipatua dugun, Josep Daurellak, "**Galaiko-portugesetik** (Galiziar eremua) **katalunierara egindako itzulpenen egoera**" gaiaz hitzegin zuen. Galegoaren gorabidean izandako alde desberdinak, Erdi Aroko distiratik gaur eguneko berbizkundera bitartean aipatu ondoren, galegoa eta katalunieraren arteko berdintasun —eta desberdintasunakaztertu zituen eta azkenik, galegotik katalunierarako itzulpenaren historia eta gaur eguneko egoera azaldu zituen.

Manuel de Seabra (1932) lisboatar katalanofilo ezagunak, Verdager, Josep Pla, Bartra, Cucurull, Espriu, R. Pinyol, X. Bru de Sala eta abar portugeseratu dituenak **Katalunieratik galaiko-portugeserako** (Portugaldar eremua) **itzulpenaren gaur eguneko egoera**" gaia erabili zuen. Nahiz eta Portugal eta Kataluniaren artean Erdi Aroan loturarik eta parekidetasunikizan eta mende honen hasieran Ribera-Rovira kataluniar lusofiloak lan garrantzitsua burutu, Katalunia Portugalen ezezagun handia izan da 50. urteak arte. Harrez gero Cucurull, Pere Calders, Espriu, Nora, Horta, Bru de Sala, Oriol Pi de Cabanyes eta abar.

Fèlix Cucurull (1919), poeta eta idazle ezagunak "**Galaiko-portugesetik katalunierarako itzulpenaren egoera**" gaiaz hitzegin zuen.

Portugesetik katalunierara, dakigula, egindako lehen itzulpena 1614ekoa da. 1880an **O pranto de Camoês**, Ernesto Piresen poema itzultzen da. Ignasi Ribera-Rovirak autore-sail bat itzuliko du: Júlio Dantas, Guerra Junqueiro, António Sergio, Eça de Queiroz, Marcelino Mesquita, Alfonso Lopes Vieira, Augusto Casimiro...

Antero de Quental-ek *Poemes de Teixeira de Pascoaes* itzultzen du. Cucurull eta de Sebrak *Antologia de contes portugueses*. Dolç-Colomek *Os lusiadas* 1984ean J. M. Llomparket F. Pessoa itzultzen du. Laster agertzekoak dira *Llibre de dessa-sosse* eta Torgaren *La creació del món*.

Elena Wolf (1927), Zientzia Klasiko eta Erromanikotan lizentziatua denak Moskuko Unibertsitatean eta gaur egun katalunieraren irakasle Leningradon, "**Katalunieratik errusierarako itzulpenaren egoeraz**" hitzegin zuen, esanez azken aldi honetan asko areagotu dela SESB-en Kataluniar literatura klasiko eta moderno-arenganako zaletasuna eta zenbait autore klasikoren prosazko zein bertsozko obrak itzuli direla. SESB-eko argitaletxe nagusienek errusierara itzultitako ipuin bildumak argitaratu dituzte (Espriu, Calders eta abar). Beraz, Errusia eta Kataluniaren arteko harremanak gero eta gehiagorantz doazela aitortu daiteke Leningradon eta Moskun dauden bi katedren eraginez.

Elena Vidal eta **Monika Zgustová**, bata Filologia Erromaniakoan eta beste Errusia Literaturan doktore direnak, eta eslabiar autore ugariaren katalunieraratzailleak (Gorki, Puxkin, Turgeniev, Txekhov, Xukxin, Čapek, Seifert, Dostoievski, Milan Kundera...) errusieratik katalunierara itzultitako obren egoeraz aritu ziren.

Itzultzeko obrak hautatzerakoan kontutan hartu beharreko editorearen eta itzultzailearen irizpideak aipatu zituzten. Ondoren perspektibak aztertu zituzten dauden hutsuneen berri emanez eta azkenik itzulpenak dituen zailtasunak komentatu zituzten soluziobide batzuei eskainiz eta transkribapen-proposamen batzuei eginez. Poema itzuli batzuei jatorrizkoekin errezitatuz amaitu zuten jarduna.

William Cliff (1940) Lovainako Unibertsitatean Filosofia eta Letra Erromanikotan lizentziatua denak, hain zuzen ere Gabriel Ferrater idazle kataluniarrari buruz tesia eginez "**Katalunieratik frantseserako itzulpenaren egoeraz**" hitzegin zuen, nahiko negargarria zela aitortuz. Eta Clifften iritziz, Frantzia ere hitzegiten den hizkuntza izateak kalte egin dio katalunierazko literaturaren zabal-kundeari, zeren frantsesentzat Frantzia "frantsesa besterik ez bait da hitzegiten" eta gainerako guztiak *patois* baizik ez bait dira.

Halere, badago intelektual multzo bat kataluniar literatura badagoei dakiena, nahiz eta Ramon Llull eta Raymond Quenau bezalako autoreak bakarrik ezagutu. Baina Espriu izan da Frantzia ezagutu den poeta bakarra, frankismoaren garaiko burrukazko aieru bereziak izan dituelako. Cliffek berak G. Ferrater-en *Poème inachévé* itzuli eta

katalunierazko literatur obra baten itzultzaile hobereinari Generalitateak ematen dion saria irabazi du.

Xabier Bu de Sala i Castells (1952) Filologia Catalana-n lizentziatua "**Frantsesetik katalunierara egindako itzulpenez**" aritu da. Zalantzarik gabe eragin handia izan zu frantses kulturak kataluniar intelektualgoan baina sarritan itzulpen premiarik ez dute izan zuzenean irakurtzeko erraztasuuna zutelako. Mende honen lehen hamarkadetan sentitu izan da klasikoak itzuli beharra. Bestalde frantse-sa zubi ere izan da beste hizkuntza batzurekiko. Gaur egun argita-letxeen artean gero eta konkurrentzia handiagoa dago hutsuneak bete-tzeari dagokionean. Bestalde frantses eraginaren pisua galtzen ari da. Azkenik, hizkuntz mailak parekatzearen zailtasunaz hitzeggin zuen, hizkuntz hurbiltasunaz eta poesia eta bertsoaz.

Giuseppe Grilli (1946) Hizkuntza Erromanikotan lizentziatua eta espainiar hizkuntza eta literaturen irakasle izan da Catanian eta orain Napoliko Unibertsitatean Katalunieraren katedradun da. "**Katalunieratik italierarako itzulpenez**" aritu zen, Erdi Arotik hasi eta XX. mendera arteko lanen ikuspegia emanez, Errenazi-menduan, Barrokoan eta XIX. mendean barrena, egin diren berreskura-penez eta etorkizuneko ikuspegiez hitzeggin ondoren, azkenik Josep Carner-en monografia bat eskaini zuen: noiz, nola eta zergatik itzulia izan den italierara.

Jaume Creus i del Castillo (1950) Filosofia eta Letratu-lizentziatua; besteak beste, Salgari, Verne, Pavese, Marcuse, Schiller, Benjamin, Youcenar... itzuli ditu. "**Italieratik katalunierarako itzulpenez**" aritu zen. Kataluniarrek beti izan dute halako lilura-mendu bat italiar kulturaren aurrean; opera izan da italiar literatura ezagutzen hasteko bidea. Ondoren Pavese eta Pasoliniren kasuak aipa-tu zituen. Dauden hutsuneak nabarmendu eta gero, etorkizunarenau-rraikuspenaz eta agian gerta litekeen berbizkundeaz mintzatu zen.

Azkenik, **Veronica Lawson**, germaniar eta frantses literaturan lizentziatuak, 1978az geroztik itzulpen automatikoaren editore bihurtuak "**Itzulpen automatikoaren praktika: oraina eta gero-ko izankizuna**" gaia landu zuen. Arazo eta egoeraren berri eman ondoren, itzulpen automatikoaren tipologia eskaini zuen, zeina bost sail nagusitan banatzen den. Merkatuan dauden sistemen zerrenda bate-kin amaitu zen hitzaldia.

Biharamunean, 10ean, **Fritz Vogelsang** (1930) Stuttgartarra, S. Espriuren **La pell de brau** alemanierara itzuli duena mintzatu zen "**Katalunieratik alemanierarako itzulpenaren egoeraz**" eta

Feliu Formosa (1934) Filologia Erromanikoan lizentziatuak eta 30 bat idazle alemaniarren itzultzaileak hitzegin zuen "**Alemanieratik katalunierarako itzulpenaren egoeraz**". Arazo orokorren ondoren, Modernismo, Noucentismoa, Errepublika eta Gerraondoa berezi zituelarik. Ikusi zenez, garrantzizkoa da Alemanian literaturaren presentzia katalunieraz, baina bete beharreko hutsunez ere mintzatu zen, itzultzailearen espezializazioaz eta diru-laguntzen beharraz mintzatuz amaitzeko.

Enric Badosa (1927) Espriu, Foix, Espinàs eta beste poeta askoren gaztelaniaraztailea "**Katalunieratik gaztelaniarako itzulpenaren egoeraz**" mintzatu zen. 20. urteetan jaiotako poeta ugarik gaztelaniaz idatzi zuten bere obra; fenomeno hau berria izan zen kataluniar literaturan eta hauetariko zenbait —Costafreda, Corredor, Mathews, Badosa, Marcokataluniar literaturaren ezaguterazle bihurtu ziren estatuan barrena. Paulina Crusat, Rafael Santos Torroellà eta Fernando Gutiérrez izan dira itzultzaile garrantzikoenetako batzu.

Avellí Artís-Gener (1912) Truman Capote, García Márquez, Borges, Vargas Llosa, Sillitoe, Yourcenar eta abarren itzultzailea izan denak "**Espanieratik katalunierarako itzulpenaren egoeraz**" hitzegin zuen.

Espanioletik katalunierara itzultzearen premiarik ez dagoela diotenen argudioak desegin zituen eta esan zuen lehen arrazoa kanpotar hizkuntzari dagokion errespetuzko tratamendua ematea izango litzatekeela -bihotz-bihotzezgoitik behera ezarria izan den hizkuntza menperatzaileari.

Antoni Tobella i Vergés (1957) Londresko Unibertsitatean Hizkuntza Erromanikoetan Doktoregoa lortu duenak "**Katalunieratik ingeleserako itzulpenaren egoeraz**" (Erresuma Batuko eremua) hitzegin zuen.

Ikuspegi labur baten ondoren, alderdi on eta txarrak aipatu zituen eta ondoren arazo batzu jorratu ondoren ingeles merkatuan sartzeak esan nahi duen herronkaz mintzatu zen.

Aldiz, **Francesc Parcerisas** (1944) Por, Tolkien, Scott-Fitzgerald, Ezra Pound eta abar itzuli dituenak "**Ingelesetik katalunierarako itzulpenaz**" (Erresuma Batuko eremua) hitzegin zuen.

Ondoren **David Rosenthal** (1945) literatura konparatuan doktoreak, sinposioaren hasierako hitzaldia ere eman zuenak, itzulpen ugari egin du katalunieratik eta brasileratik ingelesera. "**Katalunieratik ingeleserako itzulpena**" (USA eremua) gaia erabili

zuen. Laburpen baten ondoren kataluniar literatura USA-n hedatzeko iradokipenak egin zituen.

Donald Samuel Abrams (1953) itzulpen ugari egin du katalunierara eta ingelesera eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Hizkuntza Erromanikoetan lizentziatu da. "**Ingelesetik katalunierarako itzulpenaren egoeraz**" (USA eremuan) hitzegin zuen. Iraganaren laburpen bat, orainaldiaren on-gaitzak eta etorkizunerako aurrikuspenak eta planteiamenduak eskaini zituen.

Ondorioak

Sinposioaren antolaketa akatsik gabea gertatu zen eta bi egunetan entzulegoaren partaidetza iraunkorra izan zen. 20-30 pertsona ingurukoa. Antolatzaileen iritzian helburuak ongi lortu ziren eta garbi geratu zen kataluniera eta beste zenbait hizkuntzaren arteko itzulpen-egoera nolakoa den. Ondorioz, itzulpenaren etorkizuna garbiago ikusten da eta bide honetatik aurrera jotzeko irizpide eta informazio mordo bat dago sinposioari esker. Azken-ondorio gisa eskari bat egin zitzaion Generalitatea eta estatuko instantziei katalunierarentzat beregaintasun osoa eskatuz beste hizkuntzekiko harremanetarako. Gaztelaniaren eta Atzerri Arazotako Ministraritzaren monopoliopelan egon gabe zinpeko itzulpenari eta interpretaritzari dagokionean eta bestalde J. V. Foix, poeta ospetsua, Nobel sarirako proposatzea erabaki zen sinposiokideen izenean.

Urrats bikaina kataluniarrena, bere garaian euskaldunok ere eman beharko duguna.

Katalunieratik euskararako itzulpenaren gaur eguneko egoera

(I Simposi Internacional de Traducció en Llengua Catalana-n aurkezturiko jakinerazpena) (9-5-86)

Xabier Mendiguren
Itzultzaile Eskolaren zuzendaria

Azken ehun urte hauetan katalunieratik euskarara itzuli diren tituluak arretaz begiratuz gero (ez du zentzurik aurreragoko garaiak iker-tzen hasteak) garbi ikusten dugu ozta-ozta aurkitzen direla dozena bat autore kataluniar, zeinen obraren bat ahogoza daitekeen, zatika bederen, euskaraz. Hamabi autoreak, alfabetoaren arabera, honako hauek dira: Balaguer M., Capmany M. A., Company M., Costa i Llobera, Espriu S., Maragall, Pedrolo, Ribera, Rodoreda M., Rubio Ors J., Salvat R., Verdaguer.

Katalunierazko obra garrantzizkoenen itzulpena, nahiz eta hedadura handirik izan ez duen, azken bi hamarkadetan egin da. 1966an argitaratzen da Espriuren *Llibre de Sinera*, EGAN aldizkarian, J. San Martin euskaratzaile izaki eta beronek argitara emango du 1967an *Pais Basc* eta geroago autore beraren *La pell de brau* ere.

Gutxi gora behera garai horretan bertan Pedroloren (*Homes e no*) eta R. Salvaten teatro-obrak itzultzen eta antzesten dira, baita Verdaguer, Costa, Llobera eta Maragall bezalako autore klasikoaren poesi lanak ere, J. A. Etxebarriaren itzulpenari esker.

70. urteetatik hasita kataluniar liburu didaktikoak eta eskola-inguru-rukoak izan duen gorakada nabariaren lekuko izan gara, gehienbat gaztelaniazko itzulpenaren bitartez. "Rosa Sensat" taldeak eta argitaletxe

desberdinek katalunierazko obra sail bat eskaini diete ikastolei. Zentzu honetan aipagarri dira gaur egun ia klasiko bihurtu diren zenbait obra, hala nola: *Eguneroko gauzak*, *Lehen Irudiak*, *Lehen Hitzak*, *Adeu, bon viatge* (Balaguer), *La Nit* (Company) edo *Conta'ls bè que tots hi son* (Capmany) bezalako en ipuinak edo baita *Ke-txusen Zooa* (Sorribas), *Norena da Basoa?* (Mercé Canella), *Iban trapusaltzailea* (J. Vallverdu) eta abarrenak.

Azkenik, haurren edo gazteen maila soila gairaz, aipatzekoa da nola Maite Gozalez Esnalek Mercé Rodoreraren 5 ipuin itzuli eta *Ipuin Hautatuak* izenburu orokorraren azpian Elkar editorialak argitaratu eman dituen.

Orain arte esandakoaren balantzea eginez, ondorioztat atera dezakegu katalunierazko literatura ia erabat ezezaguna dela irakurlearentzat, salbuespen bakarren batzuek, eta egoera hau buruz-buru kontrajartzen zaiola bi herriok usadioz elkarri erakutsi izan dioten adiskidetasunari, nahiz eta zenbaitetan erretorikatsuegia izan. Egoera honek baditu bere kausak eta aztertu eta zuzendu behar dira ongi zehazturiko ekintza eraginkorraren bitartez.

Elkar ez ezagutzea

Seguraski kausa bat baino gehiagok argituko du katalunieratik euskarara eta alderantziz, egindako itzulpenik ia batere ez egotea, baina atze-oihal eta izendatzaile komun gisa, bi herri hauek elkarrekiko duten ez ezagutze kultural barkaezina dago, nahiz eta bien artean izan diren merkatal harremanak, beharrezkoak baino azalekoak direnak. Nazioarte-mailako ospea eta eragina duten pertsonalitateen kasuan, zeinen obra usadiozko iragazki publizitarioen eraginez itxuragabeturik iritsi zaigun, ezezagutzaren horma lodiak eragotzi egin digu Herrialde kataluniarretan zehar bizi eta eraginkor diren hainbat eta hainbat idazle ahogozatzea. Agian, "Nova Cançó" deitua izan da kataluniar literatura Euskal Herriko sektore garrantzizkoenetaraino hurbildu duen bitartekoa, poeta behinenean testuei kantari nabarmenek musika jarri dieten zentzuan, edota beraiek ere kantautore gisa kalitate bereziko poemak eskaini dizkiguten neurrian. Baina gutako gehienok gaztelaniara presaka samar itzuliriko testuetan bakarrik dastatu ahal izan ditugu.

Frankoren diktadurapeko urteetan geure ikasketak burutu genituen euskal belaunaldiok kataluniar literaturari buruz eskuratutako kultur ezaguerei dagokienez, aitortu behar da ozta-ozta lortzen dela aipamen testuingurugabetu eta marjinaldu, eta folklokeria karikatuzatuz al-

bainduriko aipamen banaka batzuren maila gainditzea, urte haietan indarrean zeuden ikasliburueta ohituraren arabera, zeinetan Maragall, Verdaguer edo espainiar adierazpeneko Eugenio d'Ors aipatzetik aurre-rago joaten ez zen.

Euskal Herriari bagagozkio, garai horietan berorietan kataluniarrek izan zitzaizkiren kultur eta literatur erreferentziek *euskal* literaturan Pío Baroja edo Miguel de Unamunorenak bezalako izenak bakarrik atzeman zitzaizkiren, nahiz eta hauek sekula ez baliatu izan euskaraz beren obrak idazterakoan.

Belaunaldi gazteagoak, frankismoaren azken urteetan eta demokraziaren lehendabizikoan artean zangalatraba beren prestakuntza intelektuala garatu dutenak, baliteke aldaketa herabeti batzuren lekuko izanak izatea gaien trataera eta fokoratzeari dagokionean baina, oro har, eta informazioaren tamainari bagagozkio, ez dut uste arreko belaunaldiek baino zati hobea izan dutenik.

Neure jakinerazpen honen lehen parteko gaia sakonduz, gogora ekarriko dut Mercé Rodoredak 5 ipuinen itzultzailea aurkitzeko zortea izan zuela (Semblava de seda, La Gallina, Aquella paret, aquella mimosa, Una carta, Divendres 8 juny), agian *La Plaça del Diamant* filmea irozkai izan duelako.

Gure aldetik, eta *Reduccions* aldizkariari esker (ekaina, 1984) irakurle kataluniarri gaur eguneko euskal poesiaren antologia labur bat eskaini ahal izan diogu (13 poeta Jon Kortazar kritikariak aurkeztuak eta Josep Daurellak itzuliak) eta oraintsu jakin ahal izan dugu katalunierara itzuli berria dela J. A. Arrietaren nobela *Abuztuaren 15-eko bazkalondoa*.

Bistakoa da bi zentzutan informazioan lana egiteko dagoen presa, zeren eta jakina denez, *ezagutzen ez denik ez da maitatzen, ezta saldu ere*, gaur egunean publizitariak ongi dakitenez. Baliteke zenbait higuinngarri gertatzea "marketing" hitza erabiltzea kultura eta literatur balioei dagokienean baina ez baldin badugu onartzen errealitate honen ezinbestekotasuna, ez zuek, kataluniarrok, egingo zenioke ohere zeuon *seny* horri, ezta guk, euskaldunok ere, ez genuke utziko toki onean gutxienez ekonomi egintzatan egotzi izan zaigun pragmatismoa.

Lokarriak estutu

Dagoeneko badauden eta etokizunean sortuko diren elkarteak, idazlea, itzultzailea eta argitaratzailearekin zerikusia dutenak beharturik

daude beren arteko lokarriak estutzera, elkarrentzako interesgarria den informazioa trukatzera eta komunikabideak erabiltzera (prentsa, irratia eta telebista) bezeria eta merkatu berriak sortuko dituen informazioa planifikatuki iragazteko. Gaur egun pantaila txikira edo egunkarien orrialdeetara agertzen ez dena ia ez da esistitzen. Beharrezko da atergabeko ahaleginak egitea ez ona izteko bakarrik, baita itxura izateko ere eta bezeroa edo irakurle izan litekeenaren axolagabekeria astintzeko. Harremanak, sinposioak, jardunaldiak eta tailerrak bitarteko arruntz izan behar dute eta idazleen egotaldiak bi herrien hizkuntza eta kultura sakontzeari begira. Ongi zaindutako plangintza-bidez presaturiko oinegitura pertsonal bat gabe ezinezkoa da egintza koherente eta iraunkorrik burutzea. Inprobisazioak eta noizean behingo ekintza asistemakoak aldian aldiko efemeridea dela-ta gutxi-asko errutinaz eta barra-barra zabaltzen diren artifiziozko suak edo erretolika hutsala baizik ez dira.

Hasteko eta izotza urtzeko, ez litzateke alferrikakoa antologi truke bat, bai hitzlauzko eta bai hitzneurtuzko testu egoki itzuliena, euskal eta kataluniar literaturan gehien gailendu diren autoreenak azken hamarkadetan, gero eta irakurlego zabalagoaren interesa ernarazteko, bereziki eskola mundura zuzendua, izan ere hutsune handia nabari bait da bertan.

Espru, Pere Quart, Gabriel Ferrater ezezagunak gertatzen zaizkigu Vincent Andrés Estellés, Joan Vinyoli, Francesc Vallverdú edo Miquel Martí Pol bezalaxe edota katalunierazko literaturarentzat ezin ukatuzko garrantzia izan duten Pere Gimferrer, Foix, Brossa edo Josep Palau Fabreraren modura.

Antzertiaren munduari dagokionez, oraindik badute guretzat zeresana ugari R. Salvat, Espriu edota Porcel, M. A. Capmany edo Brossa berak ere.

Narratibaren eremuan, interesgarri gerta lekizkiguke gerraondoko diasporaren alderdi desberdinak aztertzen dituzten idazleak (Benguerel, Amat-Piniella, de Pal edo Riera Llorca), baita hirurogeigarren urte-tako ordezkari diren batzu ere, hala nola lehen aipaturiko M. A. Capmany, J. M. Espinás, Blai Bonet edo Pedrolo, eta jakina, Mercé Rodoreda sakontzen jarraitzea, Llorenç Villalonga, Sarsanedas, Joan Perucho, Pere Calders, Porcel eta abarrekiko ezagupidea egiten dugun bitartean Terenci Moix eta beste zenbaitenganaino iritsi arte. Agian geroago, prest egongo ginateke zuen klasiko haundienganako bidaiari ekiteko, hala nola Carles Riba, lehen aldiko Foix edo Salvat-Papasseit ezagutzearren, XIX. mendeko eta XX-aren hasierako autore

nagusiekin batera, Eugeni d'Ors, Josep Maria de Sagarra, Carner, Oller eta Guimerá barne direla, edota gorago aipaturiko Maragall eta Verdaguer.

Guk, euskaldunok, geure aldetik, gauza bera egin beharko genuke nazioarte-mailan zabalkundea izan dezaten dagoeneko Euskal Idazleen Elkarteak prestatzen ari den antologiaren ildotik.

Ondorio gisa

Orain artekoa laburbilduz: informazio-trukea baina planifikatu eta iraunkorra, telebista, irratia, prentsa eta aldizkariak erabiliz jendearen iritzia sentiberatzeko bi herrioi dagokienean, piskanaka *hautakidetasunak* aurkitzeko eta pertsonazko eta erakundeazko oinegitura sortzea ekarriko duena, irizpide hautatzailearekin eta are *pedagogikoarekin* ere, hitz honi aitakeri zentzu guztia kenduz, itzulpen-lanerako bideak eta laguntza emanez, marketing-sen argi batez eskaintza aurkeztu ahal izateko.

Euskadin badago kataluniar kulturarenganako, oro har, eta baita literaturaganako ere, interes gutxi-asko estali bat eta beti ongi azalratzen ez den miresmen bat, hura ezaguna den neurrian. Gauza bakarra esatera ausartzen naiz: doi-doi eman dela lehen urratsa eta gainerako guztiak oraindik emateko daudela.

* * * * *

SINTESIS

Aunque esporádicamente se han hecho traducciones del catalán al euskara en fechas anteriores, los primeros esfuerzos serios en este sentido datan de 1966, fecha en que J. San Martín traduce y publica *Llibre de Sinera* de S. Espriu. Por las mismas fechas son traducidas varias obras de Pedroló, se representan obras de R. Salvat, y se publican algunas piezas de los clásicos catalanes: Verdaguer, etc.

La década de los 70 son años en que se recibe una gran influencia catalana, sobre todo en el campo de la pedagogía, en el que se traducen

—se retraducen del castellano generalmente— varias obras de la escuela "Rosa Sensat", y bastante literatura infantil. Esta corriente de traducción de literatura infantil catalana al euskara continúa produciendo numerosas publicaciones en varias editoriales.

Muy entrados en los 80 se traduce una selección de cuentos de M. Rodoreda.

La traducción inversa, del euskara al catalán, no es más numerosa. Se limita a alguna antología poética y algunas novelas recientemente publicadas por las editoriales de Catalunya.

El autor de la ponencia (presentada en el I Sinposi Internacional de Traducció en Llengua Catalana), llama la atención sobre el pobrísimo conocimiento literario mutuo de estos dos países (Catalunya y Euskadi), que aparentemente están llamados a colaborar en muchos sentidos, y especialmente en éste de la literatura. Hace un llamamiento a todos cuantos intervienen en la producción literaria (Asociaciones de escritores, de traductores, de editores), a estrechar los lazos, establecer una comunicación más fluida. Establecer un intercambio de información bien planificado, que sensibilice a la población y la conduzca a un mejor conocimiento de la realidad del otro.

Propone, para comenzar, la elaboración de una buena antología, dirigida a las escuelas, que recoja una buena muestra del hacer literario de ambos pueblos.

Afirma que en Euskadi existe un interés definido, y hasta cierta admiración, por la cultura y literatura catalanas, en la medida en que son conocidas. Lo hecho hasta ahora es solamente el primer paso de un largo camino que se ha de andar.

SYNTHESIS

Although occasionally, over the years translations have been done from Catalan to Basque, the first real efforts made date from 1966 when J. San Martin translated and published *Llivre de Sinera* by S. Espriu. Around the same time various pieces of work by Pedroló, and R. Salvat were translated and produced and some of the work of the Catalan classics were published: Verdaguier etc.

In the 70's there was a great influence —mainly in the field of pedagogy— during which various pieces of work from the "Rosa Sensat" school were translated (normally retranslated from Spanish), as well

as quite a lot of children's literature. This translating of Basque and Catalan children's literature still produces numerous publications in various editors.

Well into the 80's a selection of stories by M. Rodoreda is translated.

The translation from Basque to Catalan is no more frequent. There is nothing more than the odd anthology of poems and the occasional novel recently published by the Catalan editors.

The author of the report (presented in the I Simposi Internacional de Traducció en Llengua Catalana) outlines the very poor mutual literary knowledge of these two Countries (Catalonia and the Basque Country) which are, it seems, called upon to collaborate in many ways —above all in the field of literature. He also calls upon all those who have anything to do with literary production (author's, translators, editors associations) to unite and establish more fluent communication. To establish an exchange of well thought out information which will inform and enlighten one population and lead it to a greater understanding of the reality of the other.

The author proposes, to start with the making up of a really good anthology, directed by the schools, which will bring together a good sample of the literary works of both countries.

He affirms that in the Basque Country there does exist a real interest and even a certain admiration for Catalan literature and culture in so far as they are known. What has been done so far however is only the first step in a long road that has to be travelled.

Sigla eta izen berezi batzuen deklinabidea

Gotzon Egia

Aldizkari honen beronen orrialdeetan (ikus SENEZ 3), euskarazko laburtzapenez ari nintzela siglen deklinabidea pasarte labur eta azkar batetan azaldutzat eman nuen. Geroztik ordea, siglen deklinabidearen kontu honek uste baino koska handixeagoak dituela, eta han emandako argibideak nahasi samarrak zirela ohartu naiz. Egin dezagun argi iluntasunean.

1. Aldez aurreko oharpenak

Siglak eta izen berezi batzu batera izendatzen ditugu ondoko lerro hauetan. Izan ere, berez izen sintagma arrunt izanik izen berezien gisako jokua egiten duten izen sintagmen ordezkapen dira siglak eskuarki. Esate baterako, "hezkuntza", "zientzia" eta "institutoa" izen sintagma arruntak izanik, "Hezkuntz Zientzietako Institutoa" izen sintagma osatzen dute izen berezi berria sortzeko; izen berezi honi dagokion HEZI sigla, beraz, jatorrizkoaren ezaugarri morfologiko eta gramatikalez hornitua egongo da. Ondorioz, zalantza askorik gabe ikus daiteke siglen deklinabideak izen berezi mota horien deklinabideak dituen korapilo berdintsuak izango dituela.

Bestalde, ez da esan beharrik ere jatorrian izen sintagma arrunta duten izen berezi hauek **mugatuak** direla beti, singularrean nola pluralean. Ondorioz, ondo gogoan hartu behar da siglek izen sintagma **mugatuak** ordezkatzten dituztela beti, singularrean (BEZ, EE...) ala pluralean (HT...). Gauzak horrela ikusten badira errazago ulertuko dira ondoren datozenak.

2. Euskaltzaindiaren arauak

Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeak orain arte argitara eman duen lehen liburuan bere eritzia eskaintzen du izen berezi hauei buruz (ikus 62-64 orrialdeak). Hona hitz bitan zer dioen.

"Berez izen sintagma arrunt diren" izen berezi hauetan sintagma osoa hartu behar omen da, "eta, deklinatzerakoan, mugatzailerik ez balego bezala jokatu, -A itsatsia duten izen bereziak balira bezala". Adibideak ematen ditu: "**Deia**-koekin ez naiz aspaldion mintzatu" eta "**Argia**-ra gutun ugari iritsi dira" (sic) behar omen du.

Gainera, badira beste zenbait halako izen berezi, non derrigorrez jokatu behar bait da -A itsasia balute bezala: "**Gure etxea** taberna" edo "**Arrano beltza** elkartea". Hauetan, ezin liteke pentsa benetako "gure etxea" edo "arrano beltza" hegazia aipatzen direnik. Beraz, hauetan argi dago "**Gure etxea**-ra goaz" edo "**Arrano beltza**-tik nator" behar duela.

Aitzitik, gisa honetako beste izen berezi batzuk deitura izatez gainera deskribioa ere badira "Euskadiko Partidu Komunista" alderdi politiko baten izendapena izatearekin batera alderdi berorren deskribioa da. Esan nahi bait da "partidu" bat dela benetan, "Arrano beltza elkartea" arrano beltzik ez den bezala. Hemen ere kontu garbia, beraz.

"Baina, dio Euskaltzaindiak, **Herri Batasuna**, adibidez, deituraz gainera **batasuna** ote?" Zalantzan ibili ohi omen gara. Alegia, deitura soila balitz, **Herri Batasunako** idatzi eta esan beharko litzateke, **Euskadiko Ezker**rako belaza. Deituraz gainera benetako **batasuna** eta **ezkerra** balira, orduan **Herri Batasuneko** eta **Euskadiko Ezkerreko** beharko luke. Nola erabaki? "Kontu hau ez dago batere garbi", Euskaltzaindiaren epai zorrotza.

Herri Batasuna deiturak benetako "batasuna" adierazten ote duen, edo **Euskadiko Ezker**ra benetako "ezkerra" ote den aztertzen ez naiz ausartuko, gramatikaz gaindi besteren mahainean agintzeko gogoak ez bait dit ematen. Nork bere izendapenaren jabe izateko askatasuna du-ta, hor "batasuna" eta "ezkerra" direla agintzen dit belarriak. Ho-

rrenbestez, "Herri Batasuneko mahai nazionala" eta "Euskadiko Ezkerreko biltzar tipia" behar du. Hala esan zidan behin adiskide batek: deitura horiek duela ehun urte asmatuak balira, inork ez luke dudarik egingo "Herri Batasuneko" edo "Euskadiko Ezkerreko" esaten. Gaur berriz dena dugu korapilo eta hizpide...

3. Siglen deklinabidea

Argi dago, orain artekoa kontutan izanda, siglek izen sintagma mugatuak ordezkatzeko dituztena. Baina idazten denean, kontutan izan behar da siglak berak ez duela bere baitan mugatzailearik jasotzeko ahalbiderik. Esate baterako, HABE idazten denean, zer ulertu behar ote da "-E" horretaz: "Erakundea" ala "Erakunde" hitza?

Nire ustez ez dago beste hautabiderik: izen sintagma mugatuaren ordaina izanik ere, siglak berak ez du mugatzailearen markarik bere baitan. Ondorioz, mugatzailea adierazi egin behar da, siglari itsasia.

Jakina denez, siglaren idaztarauak dio sigla beti maiuskulaz idatzi behar dela. Izan ere, grafia horrek adierazten bait du sigla izen sintagma berezia (apartekoa, esan nahi bait da) dela. Aurrekoan azaldu nuen bezala, minuskulazko idazkera siglaren lexikalizatzearen adierazpen besterik ez da (gogora UNESCO, Unesco), lexikalizatze horren adibiderik garbienak izen faktizioak direlarik (radar, laser, sonar). Ondorioz, sigla ezinbestean maiuskulaz idatzi behar baldin bada, atzetik itsatsi behar zaion mugatzailea eta deklinabide atzizkia orobat minuskulaz idatziko dira, zer den zer zuzen ezagutzeko era bakarra bait da. Horrela, "HABEko ikuskatzaileak" edo "HABEaren egitura" idazten denean argi dago sigla "HABE" soila dela, eta gainerakoa mugatzailea edo/eta deklinabide morfemak.

Izen arruntekin gertatzen den bezala, hauetan ere deklinabide morfemak aldatu egin litezke izena bokalez ala kontsonantez bukatzen baldin bada. Baina erne! Idatzitako sigla esan egiten denean, sigla bera esan liteke, baina baita siglak ordezkatzeko duen izen sintagma osoa, beti ere siglaren "indarraren" eta usadioaren arabera (adibidez, ohituak gaude "HB hatxe-be" esaten, baina errazago esaten dugu "EE euskadiko-ezkerra", azken sigla honen ahuldadeagatik edo). Beraz, sigla bati bere mugatzailea eta deklinabide kasuaren atzizkia erantsi nahi zaionean, siglaren jatorrian den izen sintagma osoa hartu behar da kontutan, eta hura bokalez ala kontsonantez bukatua den. Adibidez, "BEZ" sigla ("Balio Erantsiaren gaineko Zerga" alegia) itxuraz kontsonantez da bukatua, baina horren arabera "BEZeko bulegoak" idazten badugu, eta

siglaren ordezen izen sintagma osoa irakurri (ulergarritasunaren faboretan, agian), "Zergaeko" edo halako zerbait aterako zaigu. Beraz, "EAJeko", "HEZlan", "OLiko" (Ordenadorez Lagundutako Irakaskuntza), "HUISetik" (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila), etc.

Salbuespen argi bat badela uste dut hala ere: -A batez bukatutako siglak. Izan ere, hauetan berezko -a balute bezala jokatu behar da, bestela -A horren segidan mugatzailearen -a jarrita era zelebren samarrak sortzen bait dira. Esate baterako, "EIMA" sigla (Euskal Ikasmaterialgintza) hartzen badugu, mugatzaile soila jarriz gero "EIMAA" geratutako litzateke...

4. Erdaretako siglen deklinabidea

Orain arte esandakoak euskarazko izen sintagma baten ordain diren siglen deklinabidea egiteko balio dute. Nola jokatu ordearen erdaretatik zuzenean (itzulpenik gabe, esan nahi bait da) hartutako siglekin?

Hauetan ez dago, gehientsuenetan bederen, siglaren oinarrian den izen sintagma nolakoa den ere jakiterik, ez eta bokalez ala kontsonantez bukatua ote den. Beraz, sigla bera bakarrik hartu beharko dugu, bere izen sintagma zer den kontutan eduki gabe, eta horren gisara jokatu. Alegia, sigla bera bokalez edo kontsonantez bukatua den ikusita. Esate baterako, "NATO" siglaren deklinabidea bokalez bukatutako edozein izen arrunt bezalaxe egingo dugu, eta "SALT" siglarena kontsonantez bukatutakoen arabera.

* * * * *

SINTESIS

La complejidad de la declinación en la lengua vasca impone al traductor ciertos problemas específicos de solución discutida. Uno de ellos es el de la declinación de las siglas y de algunos nombres propios; tema este que se inscribe en la preocupación más generalmente sentida y que se refleja en los numerosos artículos sobre la traducción y adaptación de los nombres propios en la traducción que a lo largo de todo este año vienen publicándose en las revistas especializadas.

Ambos problemas, sobre todo el de la declinación de las siglas, son tanto más frecuentes cuanto se está multiplicando en gran medida su uso, sobre todo en los textos técnicos y administrativos.

El autor analiza primero el caso de los nombres propios descriptivos (nombres propios que a su vez son descriptivos de objeto que nombran: Partido Comunista, por ejemplo). Este tema es problemático en euskara por cuanto la declinación de los nombres comunes difiere de la de los nombres propios. Tras un breve repaso de lo que hay escrito sobre el tema, el autor se inclina por declinarlos siempre como propios.

Por lo que se refiere a las siglas, el autor distingue dos tipos: las originadas en euskara, cuyo substrato es conocido, declinables como nombres comunes; ello mismo permite, además, distinguir perfectamente lo que es propiamente la sigla de lo que es la desinencia (que se visualizará en la escritura por diferencia entre las mayúsculas y las minúsculas: HABEaren, por ejemplo). Y por otro lado las siglas más comunes internacionalmente, a declinar como nombres propios (visualizadas en la escritura de la misma manera que en caso anterior: NATOren, SALTeko).

SYNTHESIS

The complexity of the declination of Basque presents the translator with specific problems the solutions to which may be argued. One of them is that of the declination of initials and of some proper nouns: this is one of the most generally worrying points and is reflected in the numerous articles which have appeared through this year in specialized magazines concerning the translation and adaptation of names.

Both problems, though mainly that of the initials, are of course more frequent the more they are used —specially in technical and administrative texts.

The author analyzes first the problem of descriptive proper nouns. (Names which also describe the noun —for example Partido Comunista). This in Basque is problematic as the declination of common nouns is different to that of the proper nouns. After briefly looking over what has been written on this subject, the author tends towards declining them always if they were names.

The author goes on to speak of two types of initials: those originating from Basque, their substratum being known, and being declinable as common nouns; this itself in fact enables us to distinguish perfectly the actual abbreviation from the desinence. And on the other hand the more internationally common initials or abbreviations, to be declined as proper nouns (seen in writing in the same way as above —NATOren, SALTeko).

Enfasizko adierazkera baten azterketa XIX mendeko itzulpen batean

J. M. Zabaleta

Itzultzaile Eskolako Irakaslea

J. M. Arrizabalaga

Itzultzailea

Ez icaratu, iracurle maitea, etzayozu ere ipiñi berealatic beusco illuna liburucho honi. Ez bertan berá utzi ere escuetatic, izututa, liburucho hau, alabaña, ceñ eta eciñ gueyagoraño iracequi eta goritua dagoen. Zuc eta nic, alcar ongui adituaz adisquidetasun osoan beguietaratuco ditugun eguia oyec eztizquitzute erreco béátzac, ceren escuen artan darabilgun sua, suaren ichura baño eztan (Liberalen dotriña pecatu da. Sarrerako hitzak).

Ez izutu, iracurle ona, eta ez becozcotu bereala asieratic liburuts onenganaco. Ez ere icaraz escutic asca papera; bada, naiz-ta gorritutzeraño kiskaldu ta goritubac egon, biyoc bertan etsecoi ta aiskire-izketan erabilico ditugun jardungariyac, etzaizkitzu, ez, berakin biatzac erreco; bada emen esaten degun suba, itzaldaketa da, ta ez besteric (Liberaleria pecatuba da. Sarrerako hitzak).

Sarrera

Askotan gertatzen zaigu itzultzaileoi hitz baten, edo gehiagotan hala ere, modismo baten esanahia eta erabilera zehatzu nahi dugunean, itzulpenean zehatz erabili behar bait dugu gero, nekeak izatea lan ho-

rretan. Normalean, gainera, behar baino gutxixeagotan egiten ez ote dugun, nago, lan hori. Ez bakarrik, ordea, hitz bat edo besteren esanahia eta erabilera zehaztu gabean geuretzako lauso geratuko zaizkigulako bakarrik, beste bi modutako arrazoirengatik ere bai baizik.

Lehenik eta behin, geurontzat zehaztu gabea daukaguna itzuri egingo dugu maizenik, eta itzuri ahala geure idazkera pobretu, txairo, urri eta eskas izatean geratu, aberastu ez, malgutu ez, adierazkortu ez. Langintza horretarako deia inork badu, ordea, idazleak eta itzultzaileak du, adierazi beharrak xehe eta mehe adierazi behar dituenak.

Bestetik, eta garrantzirik handieneko arrazoia hauxe dateke apika, hitzen eta modismoen esanahia eta erabilera aztertu, finkatu eta beren neurri doietara ekartzeko ahalegin honek, neurri batean edo bestean teorizatzeraren behartzen du itzultzailea, une horretan azterlari bihurtua. Eta ondorioztapenak hain urriak diren hizkuntz erabileraren alor honetan, itzultzaileak behar duen hizkuntz konparaketakoan, beti, edo askotan, sortuko zaio ideia berriren bat, beti suertatuko zaio ordura arteko teorizazioaren muga zertxobait hedatzea, zabaltzea, berritzea.

Artikulu honetan asmo horretako saio bat egin nahi izan dugu, aztergai izan dadin esakera jakin bat harturik. Horretarako, lehendabizi, testu bat hautatu dugu: **Liberalen dotriña pecatu da**, testu horretan guk hautatu dugun modismo bat nola erabiltzen den begiratzeko. Itzulpena denez, jatorrizko testuarekin eta hartatik egindako beste zenbait itzulpenekin konparatu ahal izateko sailkatu ditugu testuak. Zazpi esaldi aukeratu ditugu, liburuaren erdia pasatxoan aukeratu dugun modismoa azaltzen den guztiak, eta horiei buruz zenbait gogoeta eta bilaketa burutu dugu. Esaldiok, batera, artikulua ondoen jarri ditugu, konparagarri izan daitezen.

Autorea eta obra

Itzultzaileak, bere hizkuntzaren finkotasun horren bila, maisuak hautatzen ditu. Maisu idazleak, maisu itzultzaileak, maisu hiztunak ere. Hizkuntzaren harrobiaren hautapena. Baliapideen iragazia, ikasketak eta lanak, premiak irauten dion arteraino, berak egingo bait du, bere erizpideen eta inguruaren kontrastasunak eragiten dioten bezala.

Euskaraz zerbait aurreratu nahi duenak hizkuntz harrobi horretan, liburutegiko apaletan, eduki behar lukeen liburua da **Liberalen dotrina pecatu da**, Felix Sardá y Salvany, Sabino Arana Goiriren mentore erlijiozkoa izango zenak egunkarietan idatzitako artikuluen bilduma liburuan bildu eta handik itzulirik 1.887an Bartzelonako "La

Hormiga de Oro" inprimategian argitaratua. Honela dio lehen orri-aldeak: "Liberalen dotriña pecatu da. Galda bician dauden auci-bideác erriaren errevista deritzan paperaren zucendari D. Felix Sarda eta Salvani, apaizác arguitara emanak. Dei bedi Racionalisten, Irabia za-leen, edo naiz Liberalen dotriña; ezur eta mami, oso eta bici, naiz ez-cutuan eta naiz aguirian, fede eguiazcoaren ucamena izango da beti".

Liburu horrek berberak edizio monumental bat ezagutu zuen, 1.891 urtean inprimategi berberean argitaratua. "El liberalismo es pe-cado. Cuestiones candentes, por D. Félix Sardá y Salvany, presbí-tero, director de la *Revista popular*. Edición políglota monumental". Zortzi hizkuntzatan agertzen da bertan: gaztelania, kataluniera, eus-kara, portugesa, latina, frantsesa, italiara eta alemana (Lan hau buru-tzeko, ordea, aleman eta latinezko testuak ez ditugu kopiatu, artikulua-aren bukaeran ematen dugun corpuserako, ustez irakurlegoaren gehien-goarentzat ezin iritsiak direlako eta konparazailenak ere beraiek dire-lako). Euskarazko itzulpenaren titulua, edizio honetan, **Liberalakaria pecatuba da** da. Euskarazko testua, ordea, ez da 1.887an euskaraz-soilik eta inprimategi bereberean argitara eman zena, oso bestelakoa baizik, geroxeagoko adibideetan aise antzemango zaion bezala. He-mendik aurrerako aipamenetarako komenigarria da tituluen diferentzia kontutan hartzea.

Itzulpen hauen bi autoreez apenas askorik esan litekeen. Itzulpenek ez daramate izenik. Eta Zegamako D. J. M. Etxeberria izeneko kano-nigo batetik hasi eta Miguel Antonio Antia eta Gregorio Arruerai-nokoak aipatu izan dira itzultzaile bezala. Bi itzulpen hauek gipuzke-rara eginak dira. Juan San Martin jaunak behin baino gehiagotan esan digu bere iritzirako, lehenengo argitaratu zen itzulpena, euskaraz baka-rrik argitaratu zena alegia, Gregorio Arrue jaunak itzulia dela, irizpide horri eusteko batez ere idazkeraren zenbait ezaugarritan oin hartzen duelarik, "h" izkiaren erabilerarenean batez ere. Adibideetarako jaso di-tugun esaldietan beraietan ikusten da izan ere, naiz eta gipuzkeraz idatzia izan, eta idatzi zen garaikoa, "hilgarri" idazten duela, eta ez "ilgarri", legokiokeen bezala.

Bigarren itzulpenaren, beste zazpi hizkuntzekin batera argitaratu ze-naren, egilearen aztarrenik ez dugu bilatu inon.

Liburu honen beraren beste itzulpen bat ere bada, joan den mende-aren bukaeran edo XX. honen hasieran bizkaierara egina, eta J. M. Zabaletak eta A. Mendigurenek Zarauzko frantziskotarren komentuan beste paper askoren artean aurkitua. Argitaratu gabea ordea, esku izkri-buan, eta ezin izan dugu begiratu behar den moduan.

Aztergaia

Liberalen dotriña pecatu da irakurriz, eta gaztelaniazko testuarekin parekatuz, bertan behin eta berriro aurkitzen diren hizkuntz baliapide askok dute, sintaxiaren alorrean batez ere, hizketan entzunaren eta batek eskura ohiki darabilen literaturan ez irakurriaren halako oihartzun moduko bat. Horien artean —askoren artean— bat bereziki deigarria gertatzen da. Are deigarriagoa, hala ere, zeren lehen irakurrian ez bait da bat ohartzen, ezta euskal eta gaztelaniazko testuak bat bana-ka eta beren gisan irakurririk ere, bi testuak zehatz, hitzez hitz, esaldiz esaldi konparatzean bakarrik ohartzen delako baizik, esan nahi bait da euskarazko testuak bere korrizio natural bat duela, berezko labaintasuna, gaztelaniazkoak duen bezalaxe, eta hala ere zenbait elementu, zenbait hitz segmentu edo andana, euskarazko testuan badirenak, gaztelaniazkoan ez dira. Hala ere modu bat da hain zuzen, esaten ari garen elementu horietako bat, euskarazko testuan ageri dena, eta gaztelaniazkoan parekorik ez duena.

Hasiera hasieran, sarreran ageri da, lehenengoz: "Ez, beintzat; bada, eguia bada, Jaungoicoaren eguia dan becela, gure Erligio santua, eguia dira, eta eguia garratza *alere*, bere etsaiyac; eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia *alere*, oyen jatzar eta erasóac". Gaztelaniazko testuan "No por cierto, que si es verdad, como divina verdad es el Catolicismo, verdad son y dolorosa verdad sus enemigos, verdad son y sangrienta verdad sus combates, verdad han de ser, y no pura fantasía de teatro sus ofensivas y defensivas" dioen lekuan. Egia behar den bezala esateko, hala ere hori baino gehixeago ere badago zer komentaturik zati honen itzulpenean.

Gertakari honek aztergai bat baino gehiago ematen digu, zeren bistan dago, alde batetik, hala ere horren esanahia ez dela, kasu horretan behintzat, adbertsatibo soil bat, oso bestela baizik, eta bestetik euskarazko testuan agertu izana eta gaztelaniazkoan ez, itzulpen kritikak baloratu behar duen auzia da, eta baloratu ondoren teoriarako ondorioak atera, hala behar balitz.

Definizioa

Lehentxeago jarri dugun adibidea, eta artikulua honen amaieran proposatzen ditugun gainerantzekoak ikusirik normalean, adbertsatiboen artean sailkatuz aurkitzen den forma honek (hala ere) adbertsatibo zentzurik ez duela da ohartzen den lehenengo gauza. Adbertsatibo ho-

rren, eta beharbada adbertsatibo adierazpen mota gehiagoren (baina, ordea) beste balio hau zehazteko, hiztegi eta gramatiketara begiratzuz bilketa hau egin daiteke:

a. R. M. Azkueren hiztegian:

Baiña (AN-b, B, G), baiñan (G), bainan (L): 1. Pero (delante de una palabra). Eztakigu norena dan, baiña jan zazu. No sabemos de quién es, pero cómallo. Pospuesto es "aunque": Jan zazu, eztakigu norena dan baiña. Comedlo, aunque no sabemos de quién es.

Ordea: 2. (AN-b-lez, BN,..., Gc, Lc, R, L) mas, pero, en cambio.

Ordean (BN, L, S): mas, empero.

b. P. Lhanderen hiztegian:

Hala ere, halere: 1. même ainsi; 2. cependant, toutefois, néanmoins; 3. bien plus, qui plus est, certes; 4. hereusement, par bonheur.

c. I. López—Mendizabalenean:

Ala ere: Así y todo, así también. / menos mal!

Baña: Pero, sin embargo.

Ordea: Pero, el caso es que, mas.

d. P. Mujikaren hiztegian:

Ordea: 1. G: pero, empero, en cambio: zu etxean..., aita ordea kanpoan; urrea dala diote, urretxarra ordea = sino que (sólo que) es mal oro.

Baina: pero, mas, empero, en cambio. Bainan ordea: con todo, aún así, sin embargo.

Baino: G 1. pero, mas, empero, en cambio; neronek diot baino AN = aunque me esté mal el decirlo. 2. que: zu baino (baño) gazteagoa naiz = soy más joven que tú. 3. sino: ez naiz pasaitarra, irundarra baino (baizik) = no soy de Pasajes, sino de Irún.

Ala ere = sin embargo.

Alere (c) 1. así y todo, aún así, sin embargo, con todo, no obstante; (c) empero, pero, mas. 2. por cierto: etxe ederra da eta ez alere txikia = es una casa hermosa y por cierto no pequeña.

Gainerako hiztegiak, gaur gehien erabiltzen direnak behintzat aipatu horien zordun dira, eta begiratuarren, aipatu beharrik ez dago.

Gramatikei dagokienez, berriz, hona haietan bilduaren laburpen adierazgarri bat:

- a. Fr. Luis Villasanteren *Sintaxis de la oración compuesta* gramatikazko liburuan, "Coordinación adversativa" deritzaion atalean, Axularrengan baina hitzak hartzen dituen bi erabilerak aipatzen dira ("adversativo restrictivo" eta "adversativo exclusivo"). "Otro adversativo muy usual es ordea" gehitzen du.
- b. Txillardegiren *Euskal Gramatika*n adbertsatiboei buruz dagoen informazio nagusia hau da: baina hitzak gaztelaniazko *pero* hitzak bezalaxe jokutzen duela, eta esaldiaren aurretik nahiz atzetik jarri litekeela.
- c. P. Goenagaren *Gramatika* bideetan ez da gehiagorik esaten.
- d. A. Arejitaren *Euskal Joskerak* 56. orrialdean Txillardegiren gramatika zekarren gauza beretsua dakar, eta 182.an baina ia beti konjuntzio adbertsatiboa izan arren, esaldiak koordinatuz, kasu batzutan "alandagutzizko" esaldietako ezaugarri ere izan daitekeela esaten du ("Ondarru herri polita da, ez da aundi aundia baiña", alandagutzizkoa).
- e. R. M. Azkueren *Morfología Vasca*, S. Altuberen *Erderismos* eta F. Lafitteren *Grammaire basque* ere begiratu ditugu. Gramatika zerrenda gehiago luzatuagatik ere, ordea, nekez aterako da bat definizio horietatik. Salbu eta, agian, Fr. Diego de Alzoren *Estudio sobre el euskera hablado* begiratzeko bada. Honela dio berorren 213. orrialdean:
ALA-ERE = sin embargo, menos mal, por cierto, por fin, gracias a Dios. c) ALA-ERE con significado de *por cierto*, se pone a los adjetivos cualificativos y cuantitativos: "Beia saldu zidazun, ederra ala ere" = "me vendió Vd. una vaca, hermosa por cierto" (Ondarribi). "Organistik ez dago? Ondo gutxi ala ere" = "No hay organista? Bien pocos por cierto" (G).

Ikusten denez, Plazido Mujikak eta Diego Alzokoak bakarrik ematen dute argibidea, jarria dugun adibidea behar bezala ulertzeko. Nahiz eta, egia esan, horrekin adierazpen horretarako dagoen egitura osoa agortzen ez duten. Badira, izan ere, adierazkizun berbererako (enfasi adierazpenerako) hizketan, euskara mintzatu arruntean, beste zenbait egitura, adibideetan agertzen direnen guztiz parekoak ia, gramatika eta hiztegieta jaso gabe daudenak. Egitura honek hizketan dituen adierazgarri guztiak ez daude bildurik eta esplikatutik.

Jarri ditugun adibideetatik, eta P. Mujika eta Diego Alzokoak dakartzatenetatik ageri denez, baliapide enfatiko, enfasi adierazle bezala definitu behar da aipatzen ari garen baliapide hau. Gaztelaniaz, beraz, y ... por cierto, y... ciertamente behar luke itzulpen arruntanak.

Irizpide horrekin alderantziatzko bidea egin dugu, cierto eta ciertamente hitzen itzulpenerako euskaraz zein baliokide ematen zuten begiratzuz. Begiratu ditugun hiztegi guztietatik, *Diccionario Auñamendi Español — Vasco hiztegiaren tomo cast—clar* liburukian aurkitu dugu bilatzen ari garen esanahiaren aztarren bat: "Sí, por cierto!: etedan ba!; bai, baldin bere!; bai, zelan bere batedea! (B); bai egitan!; bai, noski! (G, AN); bai, ainbat!; bai, alegia!; bai, orixe!; ondo, ala ere! (G): baieiki! (L); bai, segurki! (S).

Egitura

Osagaiak, adibide ia guztietatik atera daitekeenez, esateko tonueraz eta beste baliapide extratestual batzuek gainera, [eta + izenlaguna + hala ere] dira (Adjetibo kualitatibo edo kuantitaboa dio Diego Alzokoak). Egitura hori era askotara da hedagarria. Hona geroztik hizketan obserbatu ahal izan ditugun adibide eta egitura batzuk, beti ere izenlagun baten enfasi adierazle direnean:

[eta + izenlaguna + hala ere]

[Ø + izenlaguna + hala ere]

[Ø + izenlaguna + ordea]

[Ø + izenlaguna + baina]

Izenlagunari dagokionez, adjetiboaz gainera beste izenlagun egitura guztietakoak izan litezke. Hona zenbait adibide, lehen jasotakoei jarraituz eta hedatuz:

- 1.— Beia saldu zidazun, eta ederra alere.
- 2.— Beia saldu zidazun, ederra alere.
- 3.— Beia saldu zidazun, ederra ordea.
- 4.— Beia saldu zidazun, ederra baina.
- 5.— *Beia saldu zidazun, eta ederra ordea.
- 6.— *Beia saldu zidazun, eta ederra baina.

Hirugarren esaldia ez da ohizkoena, eta "ordea" gehituz eraikitzen diren esaldiak ez dira beti onargarriak izaten. Badirudi miwesmen eta harrimen handienezko esaldietan izaten direla honelako esakerak onargarrien, isilune esanguratsu baten ondoren eta tonuera oso adierazkor batez laguntzen direnean ("Sekulako sarraskia egin dute. Bildurgarria ordea, e!").

Izenlagunaren egiturari dagokionez, era askotara dira hedagarriak, eta ez dute derrigor zertan beti adjetibo soil izanik. Funtzio adjetibala betetzen duen edozein egituran txerta liteke enfasi adierazle hau. Hona adibide bat, eta aski, zenbateraino den hedagarri erakus lezakeena:

- 7.— Filme ondo aspergarria ikusi dugu atzo, horrelakotara behin joan eta "hemendik aurrera ez naute horrelako beste batean harrapatuko!" esateko modukoa baina, e, ez pentsatu!

Horrelako esaldi bat, edonork entzunda, dudarik ez litzateke, egia izatera, onargarria egingo litzaikeela gutziz.

Liberalen dotriña pecatu da liburitik atera ditugun abibide-etara itzultzen bagara, ordea, aipatu dugun egitura hori gramatika eta hiztegiek esaten dutena baino zabalagoa dela ikus genezake. Kasu batzuetan izan ere, bete egiten bait da orain arte esandakoa, baina bes-tetan ez:

- 8.— ... eguia dira, eta eguia garratza alere, bere etsaiyac...
9.— ... eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia alere, oyen jatzar eta erasóac.
10.— Eta ona emen liberalen dotriña eztirudielaric, eguiaz eta benaz ala dana, eta cimarroí galgarriena alere, alacoaren antzic eztu-elacoa.
11.— Nic, dotriñ eguiazcoari narraicanác becela, au pecatu dala topatzen det; eta au fede chit onaz eguiteac, edo beste aringarriren batec aitzazuíatzen ezpazaitu, pecatu eriozko edo mortala alere...
12.— Contu eguizu, bada, nic, peccataria banaiz ere, Jaungoicoaren mesedez, cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere ... esaten dedala...
13.— Patu gaiztoco oyec liberalen gaiztaqueri gucietan culpagarri, eta lenengo culpagarri alere, dira...
14.— Badaude, bada, paper liberalac ececcic, liburu liberal edo liberalen dotriñan cutsutzen diranac ere, eta ugari alere...

- 15.—Ortic ondoretzen da, bada, urcoa maite izan litequeala, eta berari ona opa lizayoqueala (eta asko alere) berari gogoco etzayona eguiñaz...
- 16.—Guc jotzen ditugu liberálac, eciñ uca liteque, eta chit maiz alere...

8.etik 14.era bitarteko adibide guztietan betetzen da goian esandakoa, eta gainera "da", "dira", "daude" aditzen predikatiboak diren izenlaguntzaileekin gertatzen dira beti.

15. adibidea zalantzarriagoa da, interpretatzen zailagoa. Zeren izan bait liteke "eta (on) asko alere (opa litekeala)", Diego Alzokoak esaten duen bezala "adjetivo cuantificativo" batekin doala; ala izan liteke "eta asko (biziki, arront, gogotik) alere (opa litekeala)", eta kasu honetan aditz laguna izan "asko", 16. adibidean garbiago azaltzen den bezala.

16. adibidean azaltzen den "chit maiz alere" kasuan dudarik ez dago, aditz lagun batekin doala. Beraz, aditzlagunetara ere hedatu beharra dago Diego Alzokoak ematen duen adierazpena.

Gauza bera esan behar da Auñamendi hiztegiak dakarren adibidez:

- 17.— Sí por cierto! = Ondo ala ere!

Horrela bada, beste lau egitura gehitu beharko litzaieke lehen ezarri ditugunei:

[eta + aditzlaguna + hala ere]

[Ø + aditzlaguna + hala ere]

[Ø + aditzlaguna + ordea]

[Ø + aditzlaguna + baina]

Gramatikari dagokiona laburtuz eta gramatikazko ezaugarri berezienak azaleratuz, beraz, esan liteke *gehienetan* (zortzi kasuetatik bostetan), adjetibo baten lagungarri doala aipatzen ari garen segmentua: "egia *garratza* alere", "cimarroi *galgarriena* alere", "pecatu *eriozco* edo *mortala* alere", "cristau *zarretacoa* alere, *lenengo culpagarri* alere".

Nahiz eta adjetiboaren esanahiak ez baldintzatu egitura, kontutan hartzekoa litzateke hala eta guztiz ere esanahi hori oso nabarmena dela beti. Alde horretatik, ikuspuntu semantikotik alegia, adjetibo hauek badute zerikusia bai agertzen diren zenbatzaileekin (asko, ugari), baita

aditzlagun edo adberbioekin ere (txit, maiz). Ezaguna da gainera euskaraz adjetibo eta adberbioen artean dagoen kidesasuna.

Gehienetan, ez beti (sei kasutan), substantiboa ageri da egituraren baitan: [eta + substantiboa + adjetiboa + hala ere]: "egia dira, eta egia garratza alere"; "cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere". Kasu guzti hauetan balio enfatiko oso markatua ikusten da: batetik erabiltzen den adjetiboaren edo izenlagunaren esanahiagatik beragatik; bestetik, substantiboaren errepikazioagatik; esan gabe entonazioa eta gainerako baliapide extratestualak. Kontestuan aztertuz, gainera, esaldi hauek ez dute balio informatzailerik; elementu adierazkor hutsak direla esatera ausartu liteke.

Gramatikazko ikuspegi honi amaiera emateko, iruditzen zaigu honelako kasu bat (hau da, baina, ordea, hala ere) adbertsatibo izatetik (zeinetan informaziozko balioa bait da baliorik nagusia) enfasi adierazpeneko elementu (zeinetan informaziozko balioa ia galdu eta komunikaziozkoa hartzen bait du gehienik) izatera aldatze hau, fenomeno hori gramatiketan eta hiztegietan hain modu urri eta eskasean, ia txiripazkoan, aipaturik agertzea, nahiko arazo larria dela, eta geure hizkuntzaren deskripzio saioak zenbait alorretan, estilistikoan batez ere, zenbateraino dauden buruturik neurria hartzeko balio beharko lukeela.

Testu konparaketa

Hala ere ordea, era honetako azterketek, hizkuntzaren erabilera finkatu eta hedatzeko, malgutzeko, egiten direnek, itzultzailearentzat eta idazlearentzat —eta beharbada gramatikariarentzat— garrantzi handia badute ere, bada proposatzen ditugun testuetan beste aztergai bat itzultzailearentzat bereziki berebiziko garrantzia duena.

Testu konparaketa saiorik laburrenak ere berehala erakusten du, esan dugun bezala, elkarren paraleloan jarrita dauden testu hauetan, aurreko paragrafoetan aztertu dugun "eta ... alere" segmentua **Liberalen dotriña pecatu da** liburutik ateratako paragrafoetan azaltzen dela bakarrik, eta ez dela paralelorik, parekorik azaltzen ez sorburuzko testuan, ez euskarazko beste itzulpenean, **Liberalkeria pecatuba da** itzulpenean, ez beste hizkuntza erromanikoetara egindakoetan. Atera ditugun adibideetan —ez ahaztu liburu erdia baino gehiagoraino dauden guztiak direla— behin bakarrik ere ez da euskarazko adierazpen horren paralelorik, parekorik aurkitzen.

Adierazten erraza baina erabakitzen zaila den arazo bat sortzen du horrek: Zilegi da? Zilegi da horrelako jokabidea itzulpenean? Besterik

gabe ez dugu asmatuko. Banaka ditzagun arazoaren osagarriak, ez bait da arazo bat bakarra, bi baizik: Ba al zegoen zer itzulirik jatorrizko testuan, aipatzen ari garen segmentuaren bidez itzul zitekeenik? Eta bigarrena: Itzulpen hori egokia al da (emanik zer itzulirik badela)? Beharbada, hirugarren galdera bat ere egin liteke: Kasu horretan, egin litekeen itzulpenik onena horixe al da?

Itzulpen teorian lehenengo puntua, kakoa, itzulpen unitatea definitu eta banakatzea, apartatzea, bereztea, izan da beti. Gure kasu honetan era honetara formulatu beharko genuke galdera: Zer itzultzen du, zeren pareko da eta ... hala ere? Eta ezeren itzulpen baldin bada, itzulpen egokia da?, soluziorik onena da?, ez dago beste soluzioren bat hori baino hobea?

Testuak, ekarri ditugun bezala, probaleku bikaina dira, berez bezala emango dizkigute galdera horiei dagozkien erantzunak. Zeren alde batetik jatorrizko testua konpara bait liteke, puntu jakin zehatz honi dagokionean, gaztelania bezala hizkuntza erromaniko diren besteetara egin diren itzulpenekin, eta euskarari dagokionean gainera bi konparaketa termino ditugu, eta azter ditzakegu batak eta besteak eragiten duten estilistikazko efektua.

Gure ikerketaren gidari izan litezkeen bi galderetako lehenari erantzun beharko diogu beste ezeren aurretik.

Esana dugu lehendik ere eta ... hala ere eta lehen aipatu ditugun kidekoak, hemen begiratzen ari garen zentzuan, enfasi adierazle bezala hartu behar direla. Jatorrizko testuan dagokeen enfasi adierazpen baten ordeko izan beharko du, beraz, itzulpena puntu honetan ontzat emango baldin bada. Ikusia dugu, aukeratutako esaldiei begiraturik, enfasi adierazle lexikalizaturik ez dagoela, gu bila ari garenen parean jartze korik.

Jakin beharra izango dugu, beraz, ea enfasi adierazpen lexikalizatu gabetik izan daitekeen, jatorrizko testuan lexikalizaturik topatzen ez denez, lexikalizatu gabea beharko bait du, itzulkizunik baldin bada.

Izan daitekeela dudarik ez dago. Hainbat eratakoak, hala ere. Gramatikaz gairikoa, ordea, ia beti. Gehienez ere sintaxiari dagozkionak izango dira enfasi modu horiek. Baina sintaxiari dagozkionean ere, mezuaren antolamenduaren ondorioz izango da (informazio andanaren simetriak, etenak, errepikazioak, etab.). Enfasia da hain zuzen, hizketan ere baliapide extralinguistikoa, edo extratestual, edo idatzira bihurtuezin gehienez adierazten den mezu parteetako bat. Ez guztiak, ordea, zeren baliapide horietako batzuk isuri bait litezke idatzian.

Baieztapen bat azpimarratu nahi delarik, galdera enfatiko batez abiatzen denean bezala, galdera ez den esaldi interrogatibo batez, alegia. "Jatortzuz (gogoracino loiak, gurari charrac, araguizco tentamenduac) or-emen zabalduric, nonnai deslai dabiltselaco zure zentzunac? Batu eguizuz", galde eta erantzun planta egiten du Añibarrok **Lora sorta espirituala A. Palaciosen** testutik egindako itzulpenean, inori ezer galdetzen ez diolarik, bistan denez, aurrez bait zekien erantzuna. Horregatik "planta"; baina planta egitea ere mezu da.

Adibideak parrastaka ugaldtu litezke. Badira, asko hala ere, lexikalizatu gabe geratzen diren adierazkizunak, eta hala eta guztiz ere adierazpen direnak, baliapide extratestualez aparte ere, testuan adierazten den mezuaren ordenamenduaren bidez eta testuaren eta kontestuaren arteko erlazioa eta orekaren bidez aditzera ematen direlako eta ulertu egiten direlako, ondo ulertu hala ere, eta entzule edo irakurle gehienek ulertu gainera.

Horrela bada, adierazkizun diren neurrian, mezu alegia, era batera edo bestera itzulgai dira, itzulpen unitate, hain zuzen. Zentzu horretan esan liteke testuaren eta kontestuaren arteko egokiera eta oreka aztertu arte ez direla erreparatzen itzulkizun diren guztiak, ez dela ulertu mezu osoa.

Aztertzen ari garen kasu honetan, jatorrizko testuak ageri duen doinu jaso eta polemista ez dator eztabaidatzen eta aipatzen diren kontzeptuek emanik soilik, maiz eta bistako gauza izan liburu guztian zehar egiten diren baieztapen eta ukazioak polemikoak direna. Baina mezuaren beraren, eta mezuaren osagaien hautaketan ezezik, berorien ordenamendu eta antolamenduan ere somatzen da doinu jaso bortitz hori. Erretorika. "Figures de grammaire" eta "figures de pensée" dio P. Lafittek **Grammairean**. Horri berehalaxe antzematen zaio. Badago, beraz, itzulkizun bat, adierazkizun bat, jatorrizko testuan, euskarar-atzerakoan era batera edo bestera testu berrian bihurtu behar dena, galdu behar ez dena.

Itzulmodurik egokiena zein izan litekeen begiratzen ez da erraza. Zilegi izan litezkeen modu guztiak ezin dira zerrenda batean sartu. Kasu honetan ordea euskarara egindako bi itzulpen dauzkagu. Konpara litezke. Batean gainera, **Liberalen dotriña pecatu da** liburuan, jatorrizko testuak lexikalizatu gabe zuen itzulkizun enfasi adierazle hori lexikalizatu egiten da; bigarrean, **Liberalkeria pecatubaa da** itzulpenean, ez. Hona bi testuak, ahalik eta laburrenean konparagarri, parez pare jarririk:

- a.— ... eguia dira, eta eguia garratza alere, bere etsaiyac...
... egiya dira, eta samiñki egiya, bere etsaiak...
- b.— ... eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia alere, oyen jatzar eta erasóac.
... egiyac dira ta odola dariyon egiya, bere jazarrialdiac.
- c.— Eta ona emen liberalen dotriña eztirudielaric, eguiaz eta benaz ala dana, eta cimarroí galgarriena alere, alacoaren antzic eztuelacoa.
Eta ara-emen zerbait izatea, Liberalderia dala ezpadirudi-ere, bada ordea; eta piñeratuena eta categorriena, alacoaren itsurarik ez daucalako-ber-beragatic
- d.— Nic, dotriñ eguiazcoari narraicanác becela, au pecatu dala topatzen det..., pecatu eriozko edo mortala alere...
Nic onetan, zillegikinlari catolicoa naizanez, pecatugaya icusten det; eta ... pecatu larriaren gaya...
- e.— ... cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere ...
... catolicoa naizala
- f.— Patu gaiztoco oyec liberalen gaiztaqueri gucietan culpagarri, eta lenengo culpagarri alere, dira...
Doacabe oec dira partaleric lembizicoenac...
- g.— Badaude, bada, paper liberalac ececic, liburu liberal edo liberalen dotriñan cutsutzen diranac ere, eta ugari alere...
Badira beraz, ez bacarric jiraizribu liberalac, baita ere liburu liberalac edo Liberalkeriaz cutsutubac, eta ugari daude...
- h.— Ortic ondoretzen da, bada, urcoa maite izan litequeala, eta berari ona opa lizayoqueala (eta asko alere) berari gogoco etzayona eguiñaz...
Ortic datorrena da, bada, maita leikeala, eta ongi-nai-izan lagunurcoari (eta asco) desgustaziric eta contraegiñic berari, eta...
- i.— Guc jotzen ditugu liberálac, eciñ uca liteque, eta chit maiz alere...
Guc emateizcagu ederrac liberalei, eziñ uca-leike, eta sarri-sarri emateizcagu ederrac...

Pare hauetatik guztietatik bigarrenak gaztelaniazko esakeraren kalkoa egiten du ia beti. Horrek ez du esan nahi, berez, itzulpen txarragoa denik; kalkoa baliapide bat da, eta gaizki erabiltzen denean, orduantxe bakarrik eragiten du itzulpen txarra, bestela ez, Pero Grulloren egia badirudi ere. Osotasunaren zentzuak erabakiko du azkenean itzulpenik

onena zein den. Eta horretan, enfasiaren adierazpenari dagokionez, pare guztietan lehenengoa adierazkorragoa da beti, duda gutxi egiteko moduan gainera.

Esan liteke, beraz, kasu honetan behintzat, euskarazko adierazpen lexikalizatuak hobeto adierazten duela gaztelaniazko testuan lexikalizatu gabe adierazten den enfasia, itzulpen hobea dela, beraz.

Ondorio gisa

Laburtuz esan liteke, beraz, kasu batean behintzat —eta pentsatzekoa da behin gertatzen dena gehiagotan ere gerta litekeela—, jatorrizko testuan lexikalizatu gabe dagoen itzulkitzuna xede hizkuntzara lexikalizaturik hobeto itzultzen dela lexikalizatu gabe baino. Eta lehenengo parteak beti du bigarrena: Esan duguna zilegi eta are beharrezko gertatzea litekeena den neurri berean gerta liteke zilegi eta beharrezko izatea, itzulpenean, sorburu hizkuntzako testuan lexikalizaturik zegoena xede hizkuntzara lexikalizaturik itzultzea.

Itzultzailearen ihardunean itzulkerak hauetxe izaten dira gehienetan ongi egiten zailenak. Redukzionismoan erortzea oso gauza erraza da, eta nekez iristen da deskribatu duguna bezalako konpentsazio modu hauek, baliokidetasun modu hauek aurkitu eta idatziratzeko erreflexu azkarra.

Prozedura hauei neurria hartzeko sorburu eta xede hizkuntzako hitunen eta idazleen hizkuntz ohiturak oso ongi ezagutu behar dira. Baina ezin esan liteke, Vinay—Darbelnetek itzulpen prozedurak deskribatzeko eraiki zuten eskemari jarraiki, prozedura hauek baliokide edo egokipentzat jo behar direnik. Zeren eskema haren arabera, baliokidetasuna eta egokipena mezuaren transformazioei dagozkien prozedurak bait dira. Horietan mezu segmentuak aldatzen dira, mezua osotasunean ulergarri bihurtzeko.

Deskribatu dugun fenomeno hau trasposizioen artean sailkatu beharrekoa da, eskema haren arabera, ez bait da mezurik ezertan aldatzen.

Normalean itzultzaileak gutxiratu egiten du jatorrizko testua. Lexikalizaturik dagoen mezuari lotzen zaio; gehienez ere huraxe urritu egingo du. Jatorrizkoan lexikalizatu gabe dagoen mezua betirako galdurik geratzen da, baldin eta xede hizkuntzan ere lexikalizatu gabeko egitura batez adierazi ezin baldin badaitezke, gure adibidean hizkuntza erromanikoetara egindako itzulpenetan gertatzen den bezala; alegia egitura parekoak direla, eta adierazkizun bat gehiago lexikalizatu beharrik

ez zegoela; adierazkortasuna bete betean gordetzen zela itzulpen literala besterik egin gabe ere.

Beste aztergai baterako sarbidea ere bilatu liteke orain arteko lerro hauetatik. Froga ezina da, ordea, lanerako hipotesi bezala erabili litekeena bakarrik, eta halakoxetzat formulatuko dugu.

Askotan bururatzen zaigu susmoa itzulpenean tipikoa den redukzionismo honetxek ez ote lukeen, neurri batean behintzat, esplikatuko euskarazko prosan batez ere, prosa arrunt eta are literario asmokoan, askok antzeman uste dugun malgutasun eta adierazkortasun gutxi hori. Literatura ez da hizkuntz abilitadea bakarrik; baina ez da hori eztabaidagaia. Sospetxa arazten duena fenomeno horren hedadura da: zein hizkera eta idazkera gogor, zurruna erabiltzen den, ustez behintzat askoz ere malguagoa eta zauliagoa, adierazkorragoa eta arinagoa erabiltzeko izango liratekeen adierazkizunetan: prentsa, literatura, haur liburu, komunikabide etab.

Eta sospetxa berez datorrena da, horren jatorria, arrazoia ez ote den informazioa neurri handi batean gaztelaniaz datorkigulako, eta zentzu horretan kontu gutxiz emandako bitarteko itzulpen pauso bat dagoelako.

Kontu egin beharko genuke ea erdarek euskaran duten eragin kutsakorra lexikoaren aldakuntzan, eta egituren kalkoan ezezik —horiek arrunt ezagunak bait dira, eta hizketa askotarako gaia eman dutenak—, gaztelaniazkoekiko parezkotasunik ez duten adierazkerenmurrizketan eta geratzen direnen esklerotizapenean gauzatzen ez den.

Are gehiago, zeren gauza frogagarria da zenbat eta hizkuntz produktiorako modua geldiagoa, ohartuagoa, erreflexuagoa izan, orduan eta sarriago gertatzen direla salatzen ditugun kalko moduok. Jarri dugun adibideari irauarazteko, hizketa arruntean aise eta sarri entzuten den eta ... hala ere enfatiko horixe bera, inoiz ez dugu entzun komunikabideetatik, ohartu dugularik behintzat, eta ezta irakurri ere aspaldi honetako testuetan, ohartzeko moduan behinik behin. Eta zer esanik ez dago horrelako gauzetarako adi egoten ohituak eta are biziatsuak gaudela.

Hizketa, izan ere, askoz ere azkarragoa da, ohargabeagoa, publikoan edo entzutezko komunikabidez aritzea baino; eta hori bera askoz ere oharkabeago eta arinago idatzizko iharduera baino. Esango litzateke zenbat era hizkuntz iharduera erreflexuagoa, zenbat eta iharduera formalizatuago, orduan eta menpekotuago gaudela informazio iturri arrotzei eta berorietan isurtzen diren erduei. Adibide barre- ala negargarria —azkenean ez bait da jakiten zer esan—, esajerazioaren muturreraino

eramanda, hobeto uler dadin: politikoen superesdrujulazioa —gaitz ondo kutsakorra—, bai gaztelaniaz bai euskaraz: "El Párlamento debería réchazar los présupuestos présentados por el Gobierno".

Hori, ordea, espekulazio zilegi baina nekez frogatzeko direnetan barenna abiatzea litzateke, gaur gaurkoz.

Bitartean, saio honekin, itzulpenen estilozko azterketa xehe eta puntualak egin ahal izateko eredu bat proposatu nahi izan dugu. Horixe genuen asmoa; baten bati baliagarri gerta balekio, gure ilusioa konplutua izango da.

* * * * *

Konparaketarako testuak

1.

No por cierto, que si es verdad, como divina verdad es el Catolicismo, verdad son y dolorosa verdad sus enemigos, verdad son y sangrienta verdad sus combates, verdad han de ser, y no pura fantasía de teatro sus ofensivas y defensivas.

Ez, beintzat; bada, eguia bada, Jaungoicoaren eguia dan becela, gure Erligio santua, eguia dira, eta eguia garratza alere, bere etsaiac; eguia dira, eta odolezco malcóaz negar eraguin bear luquean eguia alere, oyen jatzar eta erasóac. (Liberalen Dotriña pecatu da, 6. or.).

Ez noski; zerren, nola egiya jaincozcoa baitan, catolocismoa edo Guzionkeria: egiya dira, eta samiñki egiya, bere etsaiak; egiyac dira ta odola dariyon egiya, bere jazarrialdiac, eta egiya izan bear dute ere, eta ez lausoa eta irudipen uts icusgarria, bere erasotze eta babesatzeac.

Cert que no, porque si es veritat, com divina veritat es lo Catolicisme, veritat son y dolorosa veritat sos enemichs, veritat son y sagnanta veritat sas batallas, veritat han d'ésser y no pura fantasía de teatre sas ofensivas y defensivas.

Não, per certo; pois que, se é verdade, como divina verdade é, o catholicismo; verdade são, e dolorosa verdade, os seus inimigos; verdade são, e sangrenta verdade, os seus combates; verdade hão de ser, e não pura phantasia de theatro, suas offensivas e defensivas.

No, per fermo, cha se vero é il Cattolicismo com'édivamente, veri sono e dolorosamente veri i suoi nemici, son vere e di molto sangue le sue battaglie, e vere hanno a essere e non invenzione di teatro, le sue offese e difese.

Non certes, car si le Catholicisme es, comme il l'est en effet, una réaltité divine, et si nos ennemis sont une triste réaltité, une triste et sanglante réalié leurs combats, il faut qu'il y ait entre eux et nous une vraie lutte et non une vaine représentation d'attaques et de défenses.

2.

Y hé aqui el caso de algo que pareciendo no ser Liberalismo, lo es sin embargo, y del más refinado y del más desastroso, por lo mismo que no tiene apariencia de tal.

Constitucioac ecertan ikutu bear etzayolacotzat ematendu Erreguea; ez ordea Jaungoicoa. Eta ona emen liberalen dotriña ez tirudielaric, eguiaz eta benaz ala dana, eta cimarroí galgarriena alere, alacoaren antzic eztuelacoa. (Liberalen Dotriña pecatu da, 53. or.).

Eta ara-emen zerbait izatea, Liberalderia dala ezpadirudi-ere, bada ordea; eta piñeratuena eta categorriena, alacoaren itsurarik ez daucalako-ber-beragatic.

Y aqui teniu lo cas d'alguna cosa que tot no semblant Lliberalisme, no obstant ho es, y del més desastrós, per aixó mateix de no tenirme apariencias.

Eis aqui o caso de alguma cousa que parecendo não ser Liberalismo, o é não obstante, e do mais refinado e desastroso, por isso mesmo que não tem essas apparencias.

Ed eccoti que alcuna cosa che non parendo esser Liberalismo, pur lo é tuttavia, e tanto più raffinato e ruinoso, per ciò stesso che non ne mostra le fattezze.

Et voilà une chose qui, sans paraître libéralisme, l'est cependant en effet, et du plus raffiné et du plus désastreux, précisément parce qu'il ne paraît pas l'être.

3.

Yo, á fuer de moralista católico, veo en esto materia de pecado, y si no te abona una suma buena fe ó algun otro atenuante, materia de pecado mortal... Haz cuenta, pues, que yo, que por la gracia de Dios, aunque pecador, soy católico, y por añadidura soy de los más viejos, porque el Catolicismo data del Calvario y Cenáculo de Jerusalem, que son fechas muy viejas; ...

Nic, dotriñ eguiazcoari narraicanác becela, au pecatu dala topatzen det; eta au fede chit onaz eguiteac, edo beste aringarriren batec aitzaz-quitzen ezpazaitu, pecatu eriozko edo mortala alere... Contu eguizu, bada, nic, pecataria banaiz ere, Jaungoicoaren mesedez, cristaua naicen onec, eta cristau zarretacoa alere (alabaña nere Erligio eguiazcoa Calbariotic eta Jerusalengo afaltegitic datorrena da, eta au, chit antziñaco demboretacoa esatea da esaten dedala,... (Liberalen Dotriña pecatu da, 60. or.).

Nic onetan, zillegikinlari catolicoa naizanez, pecatugaya icusten det; eta sinismen gañgañeco on bat edo beste meegarrirembat ire alde ez-padet, pecatu larriaren gaya... Contu-zac bada; ni Jaincoaren graziaz, naizta pecataria, catolicoa naizala, bada nere Catolikeria Calbariotic daator, eta Jerusalengo bazcaltegitic, zeñac egunaldi oso zaarrac baidira; ...

Jo, com moralista católich, en aix 'hi veig materia de pecat, y si no t'escusa una gran bona fe ó algun altre atenuant, materia de pecat mortal... Feste cárrech de que jo, que pér la gracia de Dèu, encare que pecador, so católich, y que además o só dels més vells, perque'l mèu Catolicisma data del Calvari y del Cenacle de Jerusalem, que son fetxhas ben vellas; feste cárrech, dich...

Eu, na qualidade de moralista catholico, vejo n'isto materia de peccado, e se te não salva uma extrema boa fé, ou alguma outra attenuante, vejo materia de peccado mortal... Faz de conta, pois, que eu, pela graça de Deus, ainda que peccador, catholico, e para cumulo dos mais velhos, porque o meu catholicismo data do Calvario e do Cenaculo de Jerusalem, que são datas muito velhas; ...

Io, in ragione di moralista cattolico, scorgo in questo materia di peccato, e se non ti scolpa una somma buona fede o altra cosa attenuante, materia di peccato mortale... son cattolico, e per soprassello lo sono dei più vecchi, datando il mio Cattolicismo del Calvario e dal Cenaculo di Gerusalemme, che sono date assai vecchie; ...

Pour moi, à titre de moraliste catholique, je vois en tout cela matière de péché, et si vous n'avez pas à votre décharge une grand bonne foi, ou quelque autre circonstance atténuante, matière à péché mortel... Or, je suis catholique, par la grâce de Dieu, quoique indigne, et par surcroit, je suis catholique des plus vieux, car mon catholicisme es si ancien qu'il date du Calvaire et du Cénacle de Jerusalem.

4.

Estos desdichados son los primeros cómplices, los grandes cómplices de todas las iniquidades de su partido; aún sin conocerlas detalladamente, son verdaderos coautores de ellas y participan de su inmensa responsabilidad.

Patu gaiztoco oyec liberalen gaiztaqueri gucietan culpagarri, eta lenengo culpagarri alere, dira; gaiztaqueri oyec argui eta garbi ez ezagutuarren, eguiaz liberalac eguiten dituztenen lagúnac dira, eta horien culpa izugarrian parte dute (Liberalen Dotriña pecatu da, 73. or.).

Doacabe oec dira partaleric lembizicoenac, beren partiduco gaizkintza danen partale aundi-aundiyac; aec banaca-banaca ez ezagutu-arren, beren egillelagun egiazcoac dira, eta beren erantzukizun baztergabearen parte dira.

Aquests desgraciats son los primers cómplices, los grans cómplices de todas las iniquitats de son partit, y encara que detalladamente no las conegan, son vers co-autors d'ellas, y participan de la inmensa responsabilitat.

Estes infelizes são os primeiros cúmplices, os grandes cúmplices de todas as iniquidades do seu partido; e também, sem conhecê-las minuciosamente, são verdadeiros coautores d'ellas e participam de sua inmensa responsabilidade.

Questi sciagurati sono i primi complici, i grandi complici di tutte le iniquità del loro partito; quand'anche non le conoscano in ragguaglio, sono di esse veri collaboratori e se ne pigliano addosso l'immenso conto.

Ces malheureux sont les complices, les grands complices de toutes les iniquités de leur parti; alors même qu'ils ne les connaîtraient pas en détail, ils en sont réellement les coopérateurs et ont leur part de cette immense responsabilité.

5.

Hay, pues, no sólo periódicos liberales, si que libros liberales ó resabiados de Liberalismo, y los hay en abundancia, y triste es decirlo, pero en ellos se...

Badaude, bada, paper liberalac ececiç, liburu liberal edo liberalen dotriñan cutsutzen diranac ere, eta ugari alere; eta gauza chit hilgarria da esatea,... (Liberalen Dotriña pecatu da, 89. or.).

Badira beraz, ez bacarric jiraizcribu liberalac, baita ere liburu liberalac edo Liberalkeriaz cutsutubac, eta ugari daude; ta pena da esatea, beretan batezera bazcatzen dala oraingo gizaldiya.

Hi ha, doncs, no solament periódichs lliberals, sino llibres lliberals ó tocats de Lliberalisme, y n'hi ha molts, y fa tristessa dirho,...

Ha, pois, não só periodicos liberaes, mas livros liberaes, ou com laivos de Liberalismo; abundam, e triste é dizel-o,...

Ci sono quindi non solo periodici liberali, ma libri liberali o affumicati di Liberalismo, e ce n'è gran copia, ed è pur triste cosa a dire,...

Il y a donc non seulement des journaux libéraux, mais aussi des livres libéraux ou imprégnés de libéralisme; il y en a en abondance, et, chose triste à dire, c'est là de préférence que...

6.

Síguese, pues, de ahí, que se puede amar y querer bier al prójimo (y mucho) disgustándole, y contrariándole...

Ortic ondoretzen da, bada, urcoa maite izan litequeala, eta berari ona opa lizayoqueala (eta asko alere) berari gogoco etzayona eguiñaz, berari contra eguiñaz, eta nolarebait berari miñ emanaz, eta suertaldiren batean, berari bicia quenduaz ere. (Liberalen Dotriña pecatu da, 96. or.).

Ortic datorrena da, bada, maita leikeala, eta ongi-nai-izan lagunur-coari (eta asco) desgustaziric eta contraeguiñic berari, eta...

D'aquí se'n segueix, donchs, que's pot estimar y voler bè al pròxim (y volerli'n molt) disgustantlo, fentli la contra,...

Segue-se, pois, que se póde amar e querer bem ao proximo (e muito) desgostando-o, contrariando-o,...

Di ciò conseguita, che si può amare il prossimo, se gli può voler bene (e molto) non gli andando a versi, contrariandolo, pregiudicandolo materialmente,...

De là il suit qu'on peut aimer son prochain (et grandement) tout en lui causant quelque dommage matériél, et même en lui ôtant la vie quelquefois.

7.

Nosotros pegamos á los liberales, no puede negarse, y les pegamos muy á menudo; con meras palabras,...

Guc jotzen ditugu liberálac, eciñ uca liteque, eta chit maiz alere, ezta cer esan itz utsaz jotzen ditugula. (Liberalen Dotriña pecatu da, 120. or.).

Guc emateizcagu ederrac liberaleri, eziñ uca-leike, eta sarri-sarri emateizcagu ederrac; itz utsakiñ alegiya.

Nosaltres fustejám als lliberals, no's pot negar, y sovintet, sovintet de paraula no més, ja se suposa.

Nós fustigamos os liberaes, não póde negar-se, e muito a miudo, com meras palavras, por supposto.

Noi battiamo i liberali, non può negarsi, e li battiamo spesso; a parole, s'intende.

Nous frappons les libéraux, nous ne pouvons dire le contraire, e celà nous arrive très-souvent, ce n'est, bien entendu, qu'en paroles.

* * * * *

SINTESIS

La estilística en la traducción literaria es uno de los campos de la investigación sobre la traducción donde menos elaboración teórica se ha dado, y donde mayores dificultades existen para avanzar. La referencia continua a la lingüística contrastiva por un lado, y a la semántica y al análisis del discurso, a la gramática del discurso por otro, hacen todavía más ardua esa labor. Tanto más cuando se pretende hacer aportaciones válidas y concretas para una lengua en estado de precariedad en tantos sentidos como el euskara.

El autor intenta aportar su contribución a la vez a una gramática descriptiva del euskara, y plantear algunos problemas teóricos para la traductología, sobre todo en el campo de la estilística comparada.

Parte para ello del análisis de una serie de frases extraídas de dos traducciones del castellano al euskara del mismo libro, llevadas a cabo por dos traductores desconocidos a finales del s. XIX: *El Liberalismo es pecado* (F. Sardá y Salvany) - *Liberalen dotriña pecatu da*.

En una de las traducciones de dichas frases, de marcado énfasis también en el original, la marca enfatizante viene dada en euskara por un giro lingüístico, al que normalmente se le atribuye valor adversativo. Tanto en el original castellano, como en la otra traducción al euskara, como en otras seis traducciones a otras tantas lenguas románicas que el autor presenta, en ninguno de los casos aparece una marca enfatizante similar a la comentada.

A partir de ahí, la investigación toma dos rumbos:

Por un lado el autor intenta definir, desde el punto de vista semántico y y morfosintáctico, tanto el contenido como la estructura del giro citado. Consta que no existen más que breves y escasísimas referencias y descripciones de él en los diccionarios y gramáticas actualmente más usados, a pesar de ser un giro muy común en uso hablado de la lengua. Casi todas las referencias lo describen como expresión puramente adversativa, sin citar más que en tres breves casos, su valor enfático.

Por otro lado este artículo plantea un problema teórico de la traducción: Comparando las dos traducciones existentes al euskara —una la descrita, y la otra que intenta expresar en euskara el mismo énfasis del original por medio de un calco— se aprecia fácilmente que la mejor traducción es la primera, que expresa mejor el énfasis que en castellano no está expresado explícitamente; pues ahí reside la paradoja, que la teoría de la traducción deberá resolver: los elementos enfatizantes, que en el original castellano son contextuales y no están lexicalizados tienen, en este caso, su mejor traducción cuando son lexicalizados.

Existen pues componentes del mensaje, que pueden no estar expresados explícitamente, pero que al ser traducidos a otra lengua, al estructurarse el contexto de otra manera, deben lexicalizarse, y si no lo son se pierden, perdiendo con ello la traducción.

El autor afirma que son precisamente éstos los aspectos más difíciles y delicados de la traducción, los que requieren una sensibilidad lingüística más fina; y termina preguntándose si la pérdida de la riqueza lingüística, el empobrecimiento que observa en muchos campos del uso del euskara no será debido, en parte, a que buena parte de la actividad lingüística de muchos vasco-parlantes tiene muchas componentes de traducción, al ser la información original muy a menudo en castellano; pues —observa— cuanto más consciente es la actividad lingüística de los individuos, más calcos del castellano se dan en su producción verbal, y menos aparecen unidades de expresión que no tengan su paralelo en castellano, como el apuntado.

SYNTHESIS

Stylistics in literary translation is one of the fields of investigation in translation where there has been least theoretical elaboration, and where there is greatest difficulty to advance. The continual reference the contrastive linguistics on the one hand, to semantics and speech analysis on the other make this task even more arduous. Even more so when one tries to make valid and concrete contributions to a language like Basque which is in many senses, in such a precarious state.

The author tries to contribute in turn to a descriptive grammar of Basque an look at some theoretical problems in translation, mainly in the field of compared stylistics.

In order to do this, he starts by analysing various sentences taken from two Spanish to Basque translations of the same book, carried out by unknown translator at the end of the 19th century *El liberalismo es pecado* (F. Sardá y Salvany) — *Liberalen dotriña pecatu da*.

In one of the translations of the said extracts, having marked emphasis in the original work too, the emphasizing mark appears in Basque through a linguistic turn of phrase, to which adversative value is normally attributed. Neither in the original Spanish, nor in the other translation to Basque, nor in another six translations to six other Romanic languages which the author puts forward, does their appear a similar emphasis mark to one commented on above.

From that point the investigation takes two directions:

One the one hand, the author tries to define, from a semantic and morpho-syntactic point of view the content, as well as the structure of the said expression. He says that only very scarce and brief references and descriptions of the expression are to be found in the dictionaries and grammar books most used nowadays — in spite of being a very common turn of phrase in the spoken language.

In almost every case it is referred to as a purely adversative expression, its emphatic value only being mentioned in three brief cases.

On the hand this article looks at the theoretical problem of the translation. In comparing the two existing Basque translations, one, the above mentioned and the other which tries to express in Basque the same emphasis as in the original by way of a copy, it can easily be seen that the best translation is the first, which expresses much better the emphasis which in Spanish is not explicitly expressed; which is just where the paradox lies which will have to be solved by the theory of translation: the emphasizing elements being in the original Spanish contextual and not lexical, are in this case better translated when they are lexicalized.

So there are parts of the message which may not be explicitly expressed but on being translated, the context being structured in another way, must be lexicalized and if they are not these parts of the message, hence the translation, can be lost.

The author states that is precisely these most difficult and delicate aspects of translation which require a finer linguistic sensitivity, and he ends by asking himself if this loss of linguistic richness, the impoverishment to be seen in many fields in Basque usage, is not due to, at least in part, to the fact that a lot of the linguistic activity of many Basque speakers has many components of translation —the original information being in Spanish—. He observes that the more conscious the linguistic activity of the individual is, the more the copying from Spanish appears the verbal production, and the less often expressions having no Spanish parallel appear.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Rédaction et administration: Maison de la Francophonie, 11, rue de Navarin, 75009 PARIS. C.C.P. Paris, n° 9728-01 Y. Rédacteur en chef: Denise Baccara. N° 126, Octobre 85/IV.

Sommaire

Un au revoir... pas un adieu. *Pierre Duhem.*

Le mot juste. *Jean Maillot.*

Datum, datums, data: an odd trio. *Stephen Dyson.*

Gérer sa documentation. *Margaret Seren-Rosso.*

Atelier de traduction à Cambridge. *Guillemette Belleteste et David Lord.*

Deux philosophies de la traduction. *Barrie C. Willett.*

Echos. *Maurice Voituriez.*

Conseil-export. *Elisabeth Lisiak.*

Nous avons lu pour vous. *Daniel Lemaire, Maurice Voituriez, Elisabeth Lisiak, Stephen Dyson.*

Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*

La vie de la S.F.T.

Composition du Comité.

Avis aux sociétaires.

META. Journal des Traducteurs / Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Montréal, décembre 1985. Vol. 30, N. 4, p. 309-424.

Sommaire-Contents

A Peculiar Burden: Some Technical Problems of Translating Opera for performance in English. *Ronnie Apter.*

L'interprétation de conférence et la connaissance des langues: quelques réflexions. *Daniel Gile.*

Microdictionnaire avec micro-encyclopédie et illustrations par diapositives pilotées. *B. Gouadec - A. Le Meur.*

La traduction et la langue française. *Antoine Berman.*

Études terminologiques et linguistiques

The Terminology of Translation. *Roda Roberts.*

Glossaire de la théorie interprétative de la traduction et de l'interprétation. *Monique C. Cormier.*

Les bovins de boucherie. (Lexique anglais-français des concours agricoles et de l'élevage). *Anne-Marie Lavoie.*

Terminologie de la télédétection aérospatiale. *Serge Paul.*

Commuter: un mot pour tout dire. *Charles Dupont*

Documentation

Bibliographie. *Irène V. Spilka, Robert Serré.*

Comptes rendus:

E.U.T.I. Cuadernos de Traducción e Interpretación. Quaderns de Traducció i Interpretació. Barcelona. 1982. *Emile Suetin.*

BERMAN, Antoine: L'épreuve de l'étranger: Culture et traduction dans l'Allemagne romantique. Paris, 1984. *Sherry Simon.*

BOUTON, Charles B.: Le Discours physique du langage. Genèse et histoire de la neurolinguistique. Paris, 1984. *Jean-Luc Nespoulos.*

FORGET, C.: Elsevier's Dictionary of Jewellery and Watchmaking. Amsterdam, 1984. *André Clas.*

BRINKMANN, Karl-Heinz, SCHMIDT, Rudolf: Data Systems Dictionary, German-English, English-German. Wiesbaden, 1983. *Dr. Vladimir N. Nekrassoff.*

PÖCKL, Wolfgang: Österreichische Literatur in Übersetzungen: Salzburger Linguistische Analysen. Wien, 1983. *Rolf Max Kully*.

Ed. Gauthier-Villars: Dictionnaire aérospatial, français-anglais-allemand-espagnol. Paris, 1984. *N.-E. Giannini, F. Guertin et C. Martel*.

Bloc-Notes

Le traducteur et le droit d'auteur. *G. Cammaert*.

Machine Aids to Translation: Automated Language Processing System (ALPS). *Don Sugden*.

Humour - L'esprit des lois. *Denys Lessard*.

La théorie de la traduction: a quoi ça sert? *Robert Larose*.

Colloque sur l'enseignement de la traduction juridique. *Geneviève Mareschal*.

Index du Volume 30

META. Journal des Traducteurs / Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Montréal, juin 1986. Vol. 31, N. 2, p. 119-223.

Sommaire-Contents

Recherches en traductologie en République fédérale d'Allemagne: Tendances et perspectives. *Frank G. Königs*.

Literal Value and Meaning. *Leo Zawadowski*.

A problem of Russian-to-English Translation: Aspectual Opposition in Infinitival Constructions. *Stephen Capaldo*.

Les banques de terminologie de l'avenir. *Jean Baudot*.

Sémantique syntagmatique et traduction: des notions qui sont aussi des outils. *Jean-Claude Choul*.

Théorie/pratique: une fausse alternative. Pour un concept dynamique de la traduction. *Y. Gambier*.

Études terminologiques et linguistiques

Problems of Mining Terminology in India. *R. K. Singh.*

Quelques remarques sur les adverbes français en -ment et leur rapport avec les adverbes anglais en -ly. *Chantal Bertrand.*

Courrier des lecteurs. *André Favreau.*

Documentation

Bibliographie. *Irène V. Spilka, Robert Serré.*

Comptes rendus:

VOLLNHALS, Otto: Elsevier's Dictionary of Personal Office Computing. English, German, French, Italian, Portuguese. Amsterdam, 1984. *Henri Béjoint eta Phillippe Thoiron.*

DALLAIRE, Pierre: Répertoire de termes de baseball. 1984. *Stanley Aléong.*

DAGENAIS, Gérard: Dictionnaire des difficultés de la langue française au Canada. Montréal, 1984. *Pierre Cardinal.*

Bloc-Notes

Arles, capitale française de la traduction littéraire. *Jean-Paul Partenski.*

Pragmatic Evolution of Translation in an Industrial-Scale Translation Service. *Peter Gawn.*

CONTRASTES. Revue de l'Association por le Développement des Études Contrastives. N. 11. Decembre 1985.

L'harmonie vocalique en finnois. *M. Tukia.*

Le superlatif en français et en italien. *M. G. De Boer.*

Le shibboleth, indice contrastif de discrimination culturelle. *J. M. Larroche.*

A contrastive study of some Western and African addresses: the case of English, French and Ngambay (Chad). *Laumai Ge Bernard Boukar-Selim.*

Les interférences sur le système linguistique second en formation. *A. Minguzzi.*

L'adverbialisation de l'adjectif en français et en néerlandais. *M. Van Willigen.*

Comptes rendus. Ouvrages reçus.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXI. n. 3/1985

Sommaire - Contents

Editorial.

Articles

DAN SHEN: Fidelity Versus Pragmatism.

MARTIN O CRIOMHTHAIN: Terms of Address in Translation.

YOWELL Y. AZIZ: Modes of Address in English-Arabic Translation.

JACK PALMER WHITE: English Technical Translation: A New Tool in International Trade.

KALUMBO MBOGHO: Observations on Bilingual Lexicography Involving Bantu and Indo-European Languages.

Le monde de la traduction - The World of Translation

La Vie de la FIT - The Life of FIT

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT.

Nouvelles de la FIT - News of FIT.

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

FAARRAX M. J. CAWL: Ignorance is the Enemy of Love (B. W. ANDRZEJEWSKI).

RAMPRASAD: Chants à Kâli (MICHELLE LUPSA).

Informations bibliographiques et lexicographiques - Bibliographical and lexicographical information.

JEAN DELISLE: L'analyse du Discours comme Méthode de Traduction (MARIANNE LEDERER).

Ed. MARILYN GADDIS: Translation perspectives.

KAZIMERAS AMBRASAS-SASNAVA: Vertimo tyrinéjimai (GYÖRY RADO).

Historické a internacionální aspekty umeleckého prekladu - Jazyková kultura prekladu.

KLAUS-PETER ESCHENBACH: Wörterbuch der Medicin.

JOHN DESMOND DALLAGHER: Deutsch-englische Übersetzungsübungen.

JOHN DESMOND DALLAGHER: Deutsch-französische Übersetzungsübungen.

L. Y. CHABALLE: Elsevier's Sugar Dictionary.

WOLF FRIEDRICH, SABINE GEIS: Russisch-deutsches Neuwörterbuch.

KARL-HEINZ BRINKMANN, RUDOLF SCHMIDT: Wörterbuch der Datentechnik.

OTTO VOLLNHALS: Elsevier's Dictionary of Personal and Office Computing.

ALFRED WITTMANN, JOEL KLOS: Dictionary of Data Processing.

SOLTÉSZ FERENC, SZINYEI ENDRE: Ogörög-magyar szótár.

Ed. BERRAR JOLAN, KAROLY SANDOR: Régi magyar glosszárium (GYÖRY RADO).

Terminologie - Terminology.

Terminologie scientifique internationale. Néologismes en cours d'unification (ZYG MUNT STOBERSKI).

Forum.

Translation Award Winners To Be Honored (Japan Translation Culture Prize).

Europäisches Übersetzer-Kollegium in Straelen.

Orden Ministerial por la que se convoca el premio nacional de traducción 1985.

Der Hieronymus Ring.

Gold. Verdienstorden des Staates Ungarn.

Der Premio Montecchio.

Der Johann-Heinrich-Voss Preis.

Neoterm.

Nos auteurs - our Authors.

DAN SHENek esaera ezagun batetatik abiatuz, traduttore-traditore, termino berriak erabiliko ditu binomio horren parean. Leialtasuna da kontzeptua, eta beti beste elementu baekin egongo da harremanetan. Edertasuna eta pragmatikotasuna dira itzulpenak zaindu beharko dituen bi alderdi leialtasunari garrantzia kendu gabe.

Edertasuna - leialtasuna binomioa itzulpen literarioetan azalduko da, eta leialtasuna - pragmatikotasuna itzulpen teknikoetan. Bere ustez bi alderdi horiek beti hartu behar dira kontutan eta askotan bat etorri arren, baina ez datozenean zein alderdiri ematen zaion garrantzia garbi utzi beharko du itzultzaileak.

Beste artikulu garrantzitsua MARTIN O CRIOMHTHAINena dugu. Zenbait hizkuntzetan "zuzentzeko-moduak" ikertzen ditu. Alegia, izen propioak nola itzuli behar diren eta zehazkiago, artikulu honetan "izenordainen" itzulpena nola egin izango da aztergaia. Izenordain pertsonalak nola itzuli izango da aztergaia. Izenordain pertsonalak nola itzuli hizkuntza batek bi maila edo gehiago bereiz ditzakeenean eta besteak berriz ez, xehetasun guztiak itzuli nahi badira zenbait testutan bereizketak gal daitezke. Ingelesa, frantsesa, errusiera, alemaniera, irlandera eta erromaniera dira hemen aztertzen direnak.

Antzekoa da YOWELL J. AZIZen lana, baina ingelesa eta arabiera dira konparatzen direnak.

JACK PALMERek itzulpen teknikoak merkataritzan eta industria-munduan nola ari den garatzen azpimarratzen du eta bere esperientziaz frogatzen du frantsesa eta ingelesaren artean harremanak gehitu egin direla azken urte hauetan.

Azkenik, KALUMBO MBOGHOk bantua eta hizkuntza europarren arteko hiztegi-konparaketa egiten du.

Aintzane Ibarzabal
Itzultzaile Eskolako irakaslea

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXI. n. 4/1985.

Sommaire - Contents

Editorial.

Articles

MARIO WANDRUSZKA: Das Übersetzen menschlicher Sprachen.

VILEN KOMISSAROV: The Practical Value of Translation Theory.

INGRID KURZ: The Rock Tombs of the Princes of Elephantine.

Earliest References to Interpretation in Pharaonic Egypt.

DERYLE LONSDALE: A Rationale for Interactive Translation.

Le monde de la traduction - The World of Translation

La Vie de la FIT - The Life of FIT

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT.

Réunions du Congrès Statuaire Extraordinaire, du Bureau et du Conseil de la Fédération Internationale des Traducteurs.

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

Australien.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

OKOT P'BITEK: La chanson de Lawino.

Entre les murailles et la mer (Poètes turcs).

Informations bibliographiques et lexicographiques - Bibliographical and lexicographical information.

American Translators Association Conference 1984 Proceedings: Silver Tongues.

MILDRED L. LARSON: Meaning-based Translation (GYÖRY RADO).

K. STÖTZEL: Dictionary of Metallurgy and Foundry Technology.

W. BINDMANN: Dictionary of Microelectronics.

P. K. BUDIG: Dictionary of Electrical Engineering and Electronics.

Terminologie - Terminology.

MAGDALENA KOMMER-BENZ: World Guide To Terminological Activities

Forum.

Einiges über die Möglichkeit und Berechtigung nicht-muttersprachlicher Nachdichtungen (FERENC KEMÉNY).

Confessions of a tyro translator (JAY DEAN).

International Association of Literary Semantics.

Index 1981-1984

Nos auteurs - our Authors.

Ohizko berri emateaz gainera aldizkariak bi artikuluko sakon ditu itzulpenaren munduan oso ezagunak diren bi idazlerenak: MARIO WANDRUSZKA eta VILEN KOMISSAROV. Lehenak hizkuntza disberdinen artean egitura zenbaiten konparaketa egiten du eta KOMISSAROVek itzulpen teoriaren mugak azpimarratzen ditu. Ondorioz ideia orokorrak eta joerak besterik ezin daitezkeela eman esango digu. Guztia lan praktikoko batetan frogatzen du, lokuzio edo esanaren itzulpenak nola egin azaltzen duelarik. Teorian modu posible guztiak ematen ditu: xede-hizkuntzan maila eta esanahi berbera duen lokuzio parekoa erabiltzea, esanahi berdina duen beste lokuzioa, hitzez hitz egindako itzulpena, esanahiz itzultzea azalpena eginez... Bide guztiak azaldu ondoren itzultzaileak egokiena aukeratu beharko duela erabakitzen du, testuaren esanahiz, estiloa, maila eta abar gordetzen duen forma, ahal dela behintzat, erabiltzea.

Ondoren artikuluko bitxia dakar, itzultzaile eta interpretarien sustraiak arakatu.

INGRID KURZEk Egipto zaharrean, hango hilobietan jasotako inskribapen hieroglifikoetan aurkitu ditu interpretari zaharren testigantzak.

Aintzane Ibarzabal
Itzultzaile Eskolako irakaslea

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXII. n. 1/1986.

Sommaire - Contents

Editorial.

Articles

GASTON R. RENAUD: Les français de traduction.

JOSEPH L. MALONE: Trajectory Analysis: Five Cases in Point.

JIRI ELMAN: Le problème de la traduction des noms propres.

Le monde de la traduction - The World of Translation

La Vie de la FIT - The Life of FIT

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT.

Nouvelles de la FIT - News of FIT.

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

Italia.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

Supplément au Catalogue 1983 - Supplement to the 1983 Catalogue.

Informations bibliographiques et lexicographiques - Bibliographical and lexicographical information.

F. J. M. WIJNEKUS - E. F. P. H. WIJNEKUS: Elsevier's Dictionary of the Printing and Allied Industries. English - French - German - Dutch - Spanish - Italian.

Editor in Chief HELMUT GROSS: Dictionary of the Chemistry and Chemical Technology. German - English.

Compiled by K. NENTWIG: Elsevier's Dictionary of Solar Technology. English - French - German - Dutch - Spanish - Italian.

Terminologie - Terminology.

DAVID L. GOLD: Ordering the Senses in a Monolingual Dictionary Entry.

Terminologie scientifique internationale. Néologismes en cours d'unification (ZYGMENT STOBERSKI).

Forum.

JULIO-CESAR SANTOYO: A propósito del término "translema".

IRMA SORVALLI: Inforeme - How to Measure Information-Content.

Nos auteurs - our Authors.

Kanadan itzulpenaz eta hizkuntz-konparaketaz zer esana badago herrialde elebiduna dugunez gero. Hori dela eta, GASTON R. RENAUDEk bi frantses mota aztertu ditu, Kanadako eta Frantziako. Bere lan honetan bost hizkuntz-maila bereizten ditu hizkuntza batean: jakintza mailakoa, literaturakoa, sendiartekoa, herritarra eta argota. Saikapen honen zein mailatan agertzen den desberdintasunik handiena izango da lanaren helburu.

Izen rpioien itzulpena dugu beste gaia. Ez da lehenengo aldia BABELEk gai hau azterten duena. Oraingoan "izenak" berak dira aztergai. Pertsona izenak hizkuntza orijinalean agertzen diren bezala gordetzen diren ala ez ikusten da lehenik. Badira itzulpena duten izenak eta baita ere sede hizkuntzan aldaketarik egin gabe mantenduko direnak, adibidez erregeen izenak. Arazoa argitzea zailagoa izango da hizkuntza izenak direnean edo lurralde ezezagunetako idazkera erabiltzen denean, edo izen internazionalak deitzen direnak leku batean era batera eta bestean bestera idazteko ohitura dugunean, ohitura honek zenbaitetan gaizki ulertzeak ekar ditzakeelarik.

JOSEF L. MALONEk itzulpen praktika egiteko eskema moduko bat erakusten digu. Itzultzeko orduan egiten diren aldaketak, bai formazkoak eta bai esanahiezkoak. Lau mota eta bederatzi azpimota bereizten ditu: hedapena, murrizketa, laburpena, gehitzea, eta abar, guztia adibideak erabiliz.

Terminologia-alorrean DAVID L. GOLDen artikulua hiztegien egituraz eta terminoen ordenamenduaz izango da, alegia, esanahiak nola ordenatu hizkuntz bakarra jasotzen duten hiztegiatan.

Forum sailean SANTOYOek eta SORVALIk bi ikuspegi eskaintzen dituzte "itzulpen unitatea" definitzeko. Horrela, bi izen erabiliko dituzte termino hori adierazteko, batak "translema" esaten duena, bidarrenak "inforema" dio, teoria ere zertxobait aldatzen delarik.

Aintzane Ibarzabal
Itzultzaile Eskolako irakaslea

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXII. n. 2/1986.

Sommaire - Contents

Editorial.

Articles

Politiker zur Übersetzung (FRANZ JOSEF STRAUSS, BÉLA KÖPECZI, JACK LANG, ACHILLE CASANOVA).

INGRID KURZ: Das Dolmetscher-Relief aus dem Grab des Haremhab in Memphis. Ein Beitrag zur Geschichte des Dolmetschens in alten Ägypten.

EDNA APHEK and MIRA LEVINE: Problems in the Terminology and Translation of Judaic Studies.

FRITZ PAEPCKE: Hermeneutische Text- und Übersetzungsprobleme.

GYÖRY RADO: Zur den mehrsprachigen Übersetzungen des Gedichts von Attila József *A Dunánál* (An der Donau).

Le monde de la traduction - The World of Translation

La Vie de la FIT - The Life of FIT

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT.

Nouvelles de la FIT - News of FIT.

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

Italia.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

Informations bibliographiques et lexicographiques - Bibliographical and lexicographical information.

RENÉ HAESERYN: The First Series of Van Dale's Bilingual Dictionaries.

Terminologie - Terminology.

International Organization for Unification of Terminological Neologisms.

Forum.

HEIDEMARIE SALEVSKY und MANFRED SCHMITZ: Zur Sprachmittlerausbildung in der Deutschen Demokratischen Republik.

GUNTER NEUBERT: Die Ausbildung von Fachübersetzern in der DDR.

Translation Award Winners Announced (Japan).

Nos auteurs - our Authors.

Aldizkariaren zenbaki hau 1985 urtean zenbait politikaririk itzulpenari buruz egindako aitormenekin hasten da: Strauss, Köpeczi, Jack Lang eta Achille Casanova jaunek hain zuzen.

Ingrid Kurz-ek Egipto Zaharreko adierazletzaren historiarako ekarpen bat eskaintzen du "Haremhaben hilobikoadierazlearen erliebea Menfis-en" gaiarekin.

Aphek-Levine-k "Judu-estudioetako terminologi eta itzulpen arazok" gaia lantzen dute.

Fritz Paepcke-k "Testu eta itzulpen-arazo hermeneutikoak" gaia tratatzen du, eta azkenik György Radó, aldizkariaren zuzendariak zenbait ohar egiten du Attila József poeta hungariarraren A Dunánál (*Danubion*) olerkiaren zenbait itzulpenen inguruan.

Ondoren, ohi bezala, "Itzulpenaren Munduaren" berri ematen du, eta besteak beste, txosten zabala dakar Alemania Errepublikan Demokratikoa hizkuntz-arartekoei ematen zaien formazioaz.

Xabier Mendiguren

Bibliografía

SANTOYO, J. C.: *El delito de traducir*. Universidad de León. León, 1985.

Gustora irakurtzen den liburua da hau. Nobela balitz bezalaxe, utzi ezinik. Bukatutakoan ordea, ez dakigu oso ongi zer pentsatu. Alde batetik iruditzen zitzaidan, bai. Bestetik gehiegizkoa ote den susmoa, edo nahia agian...

Liburuak zein gaizki itzultzen diren erakutsi nahi du. Eta lortzen du bai, bete-betean gainera. Esan behar da ez duela inolako asmo edo helburu "zientifiko" edo antzekorik; hau da, ez da exhaustiboa, ez ditu —era esplizitoan behintzat— gaizki itzultze horren arrazoiak aurkitzen. Haserrea dela liburuaren motibazio nagusia, dirudi: haserrea, nekea eta nazka. Gainera haserrea ironiaz jazten da, lana atsegindu eta borobilduz. Eta oso ongi derizkiogu guk horri. Ikus sarrera:

El que esto escribe no comprende cómo las cárceles y juzgados de este país (a pesar de indultos y amnistías) no están llenos de traductores ... Ciertamente y demostrable es asimismo el hecho de que el lector español está siendo sistemáticamente engañado, robado, estafado e inducido a error, cuando lee un libro traducido por el que ha pagado 500 o 1000 pesetas (9. or.)

... *Todo se queda en lamentos. Y es hasta probable que los capítulos que sigan sólo sean, a su vez, quejas desatendidas, vanos e inútiles lamentos. Casi nada puede hacerse contra la marea negra de las malas traducciones...* (11. or.)

Aipatzekoa da halaber liburuari hasiera ematen dion zita:

No es preciso entender un idioma para traducirlo, puesto que solo se traduce para quienes no lo entienden. (Diderot: *Las alhajas indiscretas*, 42. kapitulua).

Eta tristeena da, itzulpenetik hurbil gabiltzanontzat behintzat egia dirudiela iritzi horrek.

Egileak horrela gaurko gaztelaniazko itzulpenari erreposoa ematen dio. Zabala: alde batetik idatzizko testuak aztertzen ditu (prosa literarioa, ohizkoa, poesia, antzerkia); bestetik mass-media direlakoak, zinea eta telebista bereziki. Horrez gain, atal berezi batzu daude zentsura eta plajioari buruzkoak, itzulpenari buruzko datuak (zenbat itzultzen den, zein hizkuntzatatik, zeintzu diren liburu itzulienak...). Liburuaren amaieran, eraskin gisa, hiru artikulua datoz: **Fraude editorial español** (J. J. Coy), **Antología particular del disparate** (Justo Gárate) eta **Traducciones y opiniones**.

Hasiera aldeko atal batetan, itzultzaileei buruz mintzo zaigu egilea (**Aficionados, amateurs y traductores**). Ideia bat agertzen da etengabe: Itzultzaile profesiorik ez da izan. Amateurra izan da beti itzultzailea. Eta ez gainera zaletasunez edo, beharrez (diru beharrez) baizik. Egileak ematen dituen iritziak eta egiten dituen aipamenak ikustekoak dira. Horrela, XVIII mendean Fray Gerundio de Campazasek dioena: *En los tiempos que corren es desdichada la madre que no tiene un hijo traductor* (28. or.) Edo Juan Marséren hitzak: *Cuando escribí **Ultimas tardes con Teresa**, mi situación económica era bastante mala. Hacía trabajos para el cine (diálogos para películas de los que es mejor no hablar), traducciones (del francés y también del italiano (idioma que traducía sin saberlo) y textos publicitarios* (30. or.)

Eta arrazoia, dirua: "El vil metal" beti, gaiztokeriara bultzatuz arima inuxente elebidunak (elebidunak kasurik onenetan noski).

Halako tradizioa luzea dela dirudi. Zorionez, gauzak aldatzen hasi ote diren dirudi: *En el transcurso del siglo XX ha cambiado algo este carácter de aficionados que resulta casi consustancial con los hombres de la traducción. Sería fácil citar aquí cuatro o cinco auténticos maestros contemporáneos (tampoco más) de este noble oficio —Andrés Bosch, Octavio Paz, Jorge Guillén, José M^a Valverde, Rafael Vázquez Zamora, Ricardo Baeza—* (29. or.)

Horixe da ordea egileak ematen digun arnasa bakarra. Hemendik aurrera, astakerien galeria hasten bait da, zein baino zein handiago.

Literaturan bi era nagusitakoak direla astakeriak iruditzen zaigu. Goi mailakoan (poesia, prosa poetikoa) irudimen gehiegizkoak eragin-dakoak. Ohizko prosan (batez ere folleto, iragarki eta antzekoetan), ez-jakintasun huts eta borobilez egiten direnak. Adibide pare bat besterik ez dugu hona aldatuko.

(Thackeray-ren *La feria de las vanidades*)

But there was no hope now.

Pero el vendaval de la desventura había disipado estas esperanzas. (44. or.)

Ohizko prosa itzulia irakurtezina da batzutan. Hona italieratik itzultako *Instrucciones para el uso*:

(...) *La cafetera puede ser usada sobre cualquier fuente de calor, para limpiarla en la parte exterior, usar el normal detergente pero no hay que usar papillas de hierro o cosas iguales.*

Desenrojar la parte superior de la parte inferior, sacar el embudo y llenarlo de café, aplicar la reducción y llenar de café para la dose reducida. El agua nel primer caso (...)

Bukatzeko gainera, garantiaz hitzegiteko azala du norbaitek (horrela esan beharko da, ez bait dakigu nor den testuaren egilea):

El productor de garantía del producto y el funcionamiento y no responde de los danos causados por un mal uso de la cafetera y porque no siguen las reglas para el uso aquí sobra indicados. (52). Komentarioak sobran daude. Zer kafe hartzen ote dugun da orain zalantza.

Eta abar.

Zinea eta telebistako arazoak nahikoa ezagunak dira. Zinean zentsurak eragindako aldaketa, mozketak eta abar dira nabarmenenak. Halere, ikustekoa da filmeen izenburuen itzulepena (?). Itxuraz, komertzialtasunaren izenean egin dira, ikusle goaren emozioak (morboa eta abar) astinduz. Hona batzu:

Mildred Pierce: *Alma en suplicio.*

Sally, Irene and Mary: *Como las mariposas.*

Gable and Lombard: *Los ídolos también aman.*

Harriet Craig: *La envidiosa.*

Mame: *Toda una mujer.*

Mississippi: *El cantor del río.*

Bersek: *El circo del crimen.*

Lillian Russel: *La reina de la canción.*

Rosemary: *La semilla del diablo*

Eta abar (142. or.)

Telebistan berriz, gatzelania berria sortzen ari dela dirudi, ingelesaren antz sospetxagarria duena, noski. (Ai ETB, kontuz ibili).

Eraskinetan, interesgarriena J. J. Coyren artikulua iruditzen zaigu. Bertan, itzulpenean sortzen diren (?) laburketen kuantifikazioa eskain-

tzen da, bilibururen azterketa egin ondoren. Nathaniel Hawthorneren *The Scarlett Letteren* jatorrizkoan 9.221 lerro; itzulpenean kendutakoak 4.073. Alan Sillitoeren *A tree on fire* liburuan antzera gertatzen da. Hemen ere komentariarik ez.

Liburua bukatu, eta gurpil zoro batetan gaudela dirudi. Gaizki itzulzen da, eta itzulpena eta itzultzaileak gaizki ikusiak daude (eta gaizki ordainduak, etab.). Itzultzaileak oso baldintza txarretan egiten du lana, eta gaizki itzultzen du.

Gauzak aldatzen hasi dira. Aldizkari hau berau izan liteke horren lekuko. Edo han eta hemen sortu diren Itzultzaile Eskolak eta Elkartek. Edo eta gero eta maizago egileen kontrola beren itzulpenetan. Eta abar. Hala ere, denon lana eta laguntza behar da: Argitaletxeak, Administrazioa... Eta bitartean, beste hizkuntzak ikasi eta zuzenean jatorrizkoak irakurtzea gomendatuko genuke.

Koro Navarro
Itzultzaile Eskolako irakaslea

L. CALVO RAMOS: Introducción al estudio del lenguaje administrativo. Madrid, Gredos, 1980

Liburu honetan gaztelaniazko administrazio hizkeraren azterketa burutzen da. Nahiz eta berria ez izan (1980. urtean argitaratua da), aipamen zabala merezi duelakoan gaude. Bi dira lehenengoz, arrazoiak: administrazio hizkeraren berezitasunaz eskuartean daukagun liburu bakarra delako (artikuluak ugari dira, hori bai: besterik gabe, ikus Kataluniako *Escuela d'Administració Pública* delakoak argitaratutakoak; baina artikuluak artikulu beti, mugatuak oso); eta bigarren, zoritxarrez edo zorionez, euskal administrazio hizkera ia osoki itzulpena denez gero, itzuli behar den hori ezagutzea komenigarria dirudielako.

Hasteko beraz, lanaren laburpena egiten saiatuko gara, gaztelaniazko hizkera administratiboaren ezaugarri (eta akats, ugariak bait dira) larrienak azpimarratuz. Ondoren eta aurrekoaren argitan, euskal itzulpen administratiboaren arazoez burutazio batzu egingo ditugu.

Lehenengoz, eta nahiz eta egilea ez den eztabaida teorikotan sartzen, ez hizkera administratiboa definitzerakoan, ez azterketa metodolo-

giari dagokionean —eta eskertzekoa da, bai bait dakigu halakotan hasiz gero zer gerta litekeen—, oinarrizko arazo bati heltzen dio, alegia "lenguaje administrativo" hori mugatzeari. Guk euskaraz honela eman dezakegu arazoa aditzera: administrazio hizkera hizkera administratibo al da? Eta ez da noski hitz jokua. Administrazio hizkera bada, noski: Administrazioak erabiltzen duena da. Baina hori deitu al genezake "hizkera administratibo", estilo berezia bailitzan? Honetaz, eta oso zuhur, honela dio L. Calvok: "...el lenguaje administrativo es una variedad diastrática (sozio-kulturala beraz) del sistema, es decir es la lengua especial empleada por los órganos de la Administración en sus relaciones con los administrados" (14. or.). Eta aurrerago, administrazioaren hizkera teknikoaz: "... la originalidad del tecnicismo administrativo está constituída más que por la exigencia de una terminología propia y específica, por la inclinación de la Administración hacia cierto tipo de palabras y giros que se repiten en la mayor parte de sus manifestaciones, y de que hay cierto número de términos y locuciones que en el lenguaje normal pasan despercebidos, pero que la Administración, por el uso constante y determinado que hace de ellos, transforma en términos administrativos más o menos justificados (...) tratar de separar lo peculiar y específicamente administrativo de la lengua culta común queda reducido sencillamente a ver el "uso" de la lengua culta común que hace la Administración". (17. or.)

Horrela, hizkera (berez) berezia baino, hizkuntza estandarraren erabilera berezia dela dirudi administrazioarena. Azpimarratu behar da hala ere, beste zenbait hizkera moten eragina oso nabarmena duela administrazio hizkerak: alde batetik juridikoarena, oratoria politiko eta parlamentarioarena, bestetik ekonomikoarena. Administrazio hizkeran erabiltako hitz teknikoak beraz alor horietatik datozenak dira batez ere.

Lanerako 1974eko urtarrileko B.O.E. aztertzen du egileak; hautaketa hori arrazoi birengatik egin da: teknikoak (duen homogeneousatasunagatik, eta Ministeritza, sail eta erakunde gehienek adierazpenak jasotzen dituelako) eta historikoa (distantzia alde batetik, eta aldaketa garaia zelako hura bestetik). Azterketa metodologiari dagokionean berriz nahiko tradizionala da (Luciana Calvo, Rafael Lapesa eta Manuel Secoren ikasle izana da), eta estrukturalismoak ondo finkatutako tresneria besterik ez du erabiltzen, eztabaida teorikoak alboratuz.

Hiru zatitan banatzen dira azterketaren agerpenak: (I) Alderdi lexiko semantikoak, (II) Morfosintaxia, (III) Estiloa. Egileak berak aitortzen du bereizkuntza hori nahiko arbitrarioa dela, baina praktikoa ordea. Atal bakoitzaren amaieran berorren sintesia agertzen da, eta horietan oinarrituko gara gure agerpenetan. Esan behar da halaber adibideak oso ugariak direla (nahiz eta maiztasun indizerik ez izan). Lanaren didaktikotasuna eta erabilkortasuna ziurtatuak geratzen dira honela.

- (1) Alderdi *lexiko-semantikotan*, hauek dira ezaugarriarik nabarmenenak:
- hiztegi sorkuntzarako gaztelaniaz ohizko diren bideak erabiltzen dira (eratorpena, konposaketa, maileguak...). Eratorpenez sortutako hainbat hitz *neologismoak* dira (*siniestralidad, declasificar, procedimental...*)
 - Latinismoak oso ugariak dira, nahiz gordinak (*venia docendi, in rem...*) nahiz gaztelaniaratuak (*locatorios, óbito...*); baita ere erdarakadak: galizismoak eta orain batez ere anglizismoak (*taquillaje, aparellaje, pool, barman...*). Eskualdekerak ere agertu ohi dira, batez ere nekazaritzako neurri, leku, objektu eta abarretan.
 - Arkaismoek nahiko maiztasun handia dute; gehienbat hiztegi juridikotik datoz: *pedimentos, resultancia, deudario*.
 - Gaurko gaztelania estandarrak bezalaxe, Administrazio hizkerak sigla eta laburdura asko erabiltzen du.
 - Kontzeptu zehaztasuna aurkitu nahian edo, esanahi hurbileko terminoak erabiltzen dira sarritan (batzutan sinonimo edo ia sinonimoak); *daños y perjuicios, riesgo y ventura, riñas o pendenias*.
 - Eufemismoak ohizkoak ditu Administrazioak: prezioen igoera *reconstrucción global del sistema de precios* izango da, eskualde pobreak *comarcas de perfil socio-económico no evolucionado*, zaharrak *tercera edad*. Beste zenbaitek "metafora politiko" deitzen dituztenak direla esan liteke.

Hona nola komentatzen dituen egileak aipaturiko ezaugarriak:

"*Algunos de los rasgos (...) nos indican que el vocabulario administrativo participa de las tendencias generales acusadas en el español de hoy; pero en cambio, otros (...) ponen de manifiesto en él una tendencia más conservadora y arcaizante (...). Es un nivel léxico culto, ritual y con escaso margen de variación, cuya finalidad es la precisión conceptual en cuanto dispone o publica, de ahí la necesidad del uso de sinónimos y repeticiones. Este afán de sobriedad y precisión le resta expresividad y viveza, y en muchas ocasiones le da rigidez y afectación. Por otra parte, la limitación de sus campos semánticos a 2 fundamentales, la "comunicación" con los administrados y la "regulación" administrativa del país, contribuyen a hacerle monótono y homogéneo". (95-96. or.).*

(II) Alderdi morfosintaktikoa.

Atal honetan, kategoria desberdinen erabileraz mintzo zaigu egilea.

- Izena: oso nabaria da izenen pilaketa. Arrazoi desberdinetatik sortzen da: zehaztasun asmoz (*bonificaciones, exenciones, subvenciones*), kontzeptuak kontrajarriz (*exportación e importación*), nahiz erantsiz (*número, nombre, mineral, hectáreas y término*), etab. Pilaketa areagotu egiten da gorago aipatutako "izen bikote"en bitartez; baita ere oso maiz erabiltzen delako "aditz hutsa + izena" egitura (*dar cumplimiento, tomar parte, hacer uso, llevar a cabo...*). "*Las acumulaciones producen, en general, un ritmo retardado y lento en la frase administrativa*" dio Calvok (195. or.).
- Adjetiboak ere ugariak dira; gainera, gaztelaniaz bi egitura eman daitezkeezkeelarik, estereotipoak nabarmentzen dira (*preceptiva forma, exacto cumplimiento, buena y debida forma*).
- Aditzari dagokionean, honako hauek azpimarratu behar dira:
 - a) Izenetan bezala, bikoteak eta pilaketak: *reglamentará y hará pública, lo pronunciamos, mandamos y firmamos*.
 - b) Aditz forma arkaikoen erabilera (subjuntiboko etorkizuna). Bestalde, aditz moduei dagokienean, subjuntiboa indikatiboa baino gehiago erabiltzen da: hori ez da harritzekoa, agindu, debeku eta abarren kasuistika hipotetikoa kontutan izanik: *que concurren, si ampliasen, que se efectúen*. Ugariak dira halaber aditz ezpertsonalak ("se" erabiliz): *se hace, se convoca, se darán a conocer*; baita ere aginduzko formak (inperatiboa, nahiz beste formak erabiliz: *suscribirán, dése, deberán presentar*).
 - c) Aditzaren erabileran, dena den, nabarmenena jokatu gabeko formen ugaritasuna iruditzen zaigu: partizipio eta gerundio absolutu direlakoak, eta bereziki "gerundio del B.O.E." izendatu dutena (gerundioaren erabilera desegokia eta B.O.E.-n ohizkoa): *Visto el expediente, decreto acordando, instancias solicitando, resolución declarando*.
- Beste forma gramatikalei dagokienean gutxi batzu aipatuko ditugu: "*mismo*" izenordearen erabilera desegokia, erakusleen errepikapena; *-mente*-z bukatutako adberbioen pilaketa, oso nabaria eta pisua (besteak beste, ingelesezko *-ly* adberbioen eraginez).
- Azpimarratu behar dira halaber erlazio elementuz osatutako estereotipoak: *a tenor de, de conformidad con, en uso de, en virtud de*.

- Zenbait arkaismo eta akats sintaktiko ere badirela esan behar da.
- Azkenik hizkera administratiboaren esaldiari dagokionean, hiru eratakoak bereizten ditu Calvok:
 - a) Esaldi luzea, batez ere Lege, Aginduen eta abarren sarreratan; Legebiltzarreko erretorikaren eragina oso nabaria du.
 - b) Esaldi laburra eta parrafo ordenatuak, zuzenbide administratiboaren erara, eta hizkera horren eragina nabarmena duelarik: Lege, Agindu eta abarren korpusean agertzen da bereziki.
 - c) Iragarki, deialdi, eta abarretan erabiltzen den frase formularioa.

Orain ere, ezaugarri morfosintaktikoen balorazioa egiteko, egilearen hitzak aldatuko ditugu honuntza: "*La estructura sintáctica (...) se presenta como binaria y reiterativa debido a las parejas de formas y acumulación de elementos iguales o singulares, (y) presenta contraste fuerte entre la conservación de arcaísmos sintácticos o literarios y el uso de vulgarismos o incorrecciones gramaticales (...). Es una sintaxis rígida, monótona y acartonada, víctima de la caricatura de los humoristas, hasta cierto punto justificada*". (199. or.)

(III) Estiloa.

Hona ezaugarri nagusiak:

- Oso titulu eta tratamendu luze eta nahasiak, kargu, erakunde eta abarrak izendatzeko.
- Ezezko egiturak (*no se ajusten, no concurren, no cumplan*); hauei eransten zaizkie ezezko esanahia duten aditzak: *denegar, excluir, prohibir*, egileak "estilo prohibitivo" deitzen duena sortuz.
- Argitasun asmotan (?), lokuzio eta esaldi ilatibo asko erabiltzen du administrazio hizkerak: *en su caso, si hubiere lugar, en concreto*, etab.
- Irudiak gutxi erabiltzen dira (lexikalizatutako batzu: *puente, fuente, polígono*); pertsonifikazioa aldiz oso sarri agertzen da, zuhurtasunez edo izena ezagutarazi asmoz: *Orden Ministerial que impone, Decreto que regule, Fondo que abonará*.
- Akenik, formulen ugaritasun handia azpimarratu behar da, testu administratiboak hasi, luzatu eta bukatzen dituztenak, eta irizpide desberdinen arabera sailka daitezkeenak.

Orohar, estilo administratiboa kontraesankorra dela esan dezakegu: alde batetik estilo horren objektibotasuna, homogeneousotasuna, zehaztasuna, dotorezia daude. Horien ondoan ordea, sarritan aurkakoak agertzen dira: iluntasuna, subjektibotasuna, luzamenduak, etab.

Lan honen iritzi kritikoa ematekotan, ohar pare bat egingo genioke: alderdi positiboena, liburuaren argigarritasuna eta, ondorioz, erabilgarritasuna, azpimarratuko genuke. Gaztelaniazko Administrazio hizkeraren ezaugarri nagusiak ongi zehaztuak eta aztertuak daudela iruditzen zaigu; gainera, literatura eta soziolinguistika aldera egiten diren ihesak eskertzekoak dira; ikus adibidez "... al lado de las preferencias de una política inoperante y huera por los abstractos en '-ción', los postverbiales en '-al' y los adverbios en '-mente' se transparenta la colonización de lo americano en los anglicismos técnicos y semánticos (...) Los eufemismos hablan por sí solos (...) ponen sobre el tapete la 'imaginería' que para hablar de problemas latentes emplea la administración" (97. or.).

Alderdi negatibo nagusia berriz aurrekoaren beste aurpegia dela derizkiogu. Egileak berak aitortzen du sailkapen metodologikoa (alderdi lexiko-semantikoak, morfosintaxia, estiloa) ez dela oso zehatza, eta agertuko dela interferentziarik. Zehaztasunean galdutakoa praktikotasunean irabazten da, egia da: baina gure iritziz, bai hiztegian, bai morfosintaxian aztertutako ezaugarri gehienak (eta batez ere, egileak berak nagusitatzat jotzen dituenak) estilo ezaugarriak dira; azken finean, administrazio hizkeraren berezitasunak (edo arazoak, edo akatsak), estilora (desestilora batzutan) reduzitu litezkeela. Autoreak behin baino gehiagotan dio hizkera administratiboak, hizkuntzaren bariante diastatikoa delarik, ez dela berez orijinala, aitzitik, gaztelania arruntaren erabilera berezia burutzen duela: estilo kontua beraz. Hau argitzeko, ikus ditzagun hauetako kasu batzu: alderdi lexiko-semantikoan, neologismo, arkaismo, latinismoen agerpena; hitz bikoteen eta eufemismoen erabilera; errepikapen eta tautologiak. Morfosintaxian, izen eta aditzen pilaketa; adjetiboz osatutako estereotipoak, jokatugabeko aditz formak; akatsak; *-mente*-z bukatutako adberbioen ugaritasun eta errepikapena, etab.

Ezaugarri horiek guztiak estilistikoak dira; horregatik ez dago arrazoirik hauen ondoren eta beste gauza balitz bezala hirugarren sail bat (*Estilo*) eraikitzeko. Izan ere atal hori besteak baino askoz laburrago eta kaxkarragoa gertatzen da liburuaren osotasunean; gehiena esana bait dago. Estiloa garai bateko zentzuan hartua dagoela iruditzen zaigu, ornatus' gisa alegia; horregatik agertzen dira hor pertsonifikazio, irudi, tituluen luzeera eta antzeko ezaugarriak; aurrekoen aldamenen, eta estiloa sortzerakoan, askoz garrantzi gutxiago dutenak hain zuzen. Estiloa, gaurko estilistek (ez literaturarenak, baina berdin dio) ondo dakiten bezala, leku guztietan bait dago: kasu honetan, izenetik edo artikulutik hasi, esalditik pasa, iruditarraino.

Esan behar da egilearen beraren artikulua hurbilago batetan ("*Algunos caracteres del lenguaje administrativo castellano*",

Llengua i Administració, Barcelona, 1984. Generalitat de Catalunya, Escola d'Administració Pública), iritzi hau bera agertzen dela: *"Estos rasgos que hemos sintetizado por razones de tiempo y porque ya están publicados (komentatzen ari garen liburuan hain zuzen), le confieren personalidad propia y podemos decir sin riesgo alguno que dan estilo al lenguaje administrativo"* (103). Bestalde, guretzat oso interesgarri diren iritziak ematen ditu artikulu honetan: *"Ha sido a partir de la entrada en vigor de la Constitución española, cuando, con la formación de las autonomías propiciadas por ella, se ha sentido la necesidad urgente de actualizar los lenguajes administrativos de las restantes lenguas peninsulares. Esto ha hecho que desde las otras lenguas peninsulares, no castellanas, haya saltado el problema el lenguaje administrativo al tapete de la vida cultural española. Probablemente es mayor la preocupación fuera del ámbito de la Administración Central que en interior de ésta. Y tal vez debería ser al contrario: las lenguas peninsulares, distintas al castellano, parten, para su fortuna, de la propia lengua en el momento actual, aunque algunas tengan una importante tradición administrativa interrumpida durante siglos; pero, al menos, no arrastran el lastre de tradición a veces mal asimilada y no depurada que arrastra el castellano"*. Aipamena luzea bada ere, merezi zuelakoan gaude: izan ere, bildur bait gara "lastre" hori itzulpenaren ate txikitik ez ote den sartuko gurera. Hor legoke euskal itzulpen administratiboaren koska. Edo kosketako bat, behintzat.

Euskal hizkera administratiboari, izan ere, edo zehatzago esanda, itzulpen administratiboari, ikuspuntu honetatik begiratzen badiogu, esan dezakegu estiloa ez dagoela zertan itzuli beharrik, zehatzago esanez: estilo hori ez dago itzuli beharrik. Beste estilo bat sortu beharko litzateke. Esaten erraza da noski, zailagoa egiten; baina hori da gure iritzia eta ideia hau gogoan izan behar dela derizkiogu. Izan ere, ez gaude literaturan, hizkuntzaren bariante guztiz pragmatiko batean baizik: *mezua soil-soilik itzuli behar da; gaurko definizioen arabera, esan nahi eta ulertu behar dena*, ez besterik (Seleskovitch, 75).

Administrazioaren helburuak herritarrekiko harremanetan zehatzasuna eta gardentasuna badira, euskarazkoak orain du bere aukera. Ikusi dugunez, gaztelaniazkoak zehazasun asmorik badu ere, asmoak asmo utziz, aurkako estiloan erortzen da: iluntasuna, monotonia, opazidatea. Gogorragoak ez esateagatik, ezaugarri jakin batzuri begiratu: eufemismoa, inbertsonalizazioa, fetitxismoa. Euskararako itzulpenak ez du mimetismo itsuan erori behar; tradiziorik ez dagoelarik, ez eta (gaur egun) eredu bakarrik, hizkera administratibo funtzional eta gardena egin litekeela iruditzen zaigu.

Mezua itzuli behar bada beraz, mezu horretara iristeko jatorrizkoaren deskodifikazioa egin beharko da lehenik. Jatorrizkoa sinplifikatu alegia, mezua gero hizkuntza hartzailean berregiteko. Jatorrizko mezura iritsi ondoren beraz, trasposizio eta aldaketak bidezko izango dira -eta beharrezko askotan.

Arazoak badira noski, eta era askotakoak hala ere. Esate baterako, administrazio hizkeraren egituraketa zehatza. Parrafoen (edo paragrafoen) egitura esanahigarria bada edozein hizkera motatan, zer esanik ez dago honokoa. Eta hizkuntza administratiboa prosa arruntetik berezten duen lehen ezaugarria dela iruditzen zaigu. Gainera, sarritan (edo gehienetan) parrafo bakoitzeko esaldi bakarra (konplexua) dago, eta ardatz semantiko-sintaktikoa berriz perpaus nagusiaren aditz nagusian datza. Sailkatze hori askotan behintzat nahi ta ez errespetatu behar denez, eta baita ere parrafoaren barne egitura, ñabardura (edo ezaugarri) batzu halabeharrez igarotzen dira hizkuntza batetik bestera.

Beste arazo bat hitz teknikoena izan liteke. Hasieran esan dugunez, administrazioak ez du terminologia berezirik, baina beste alorretatik hartutako asko erabiltzen ditu (Zuzenbidea, Ekonomia). Terminologia edo izendegi honen itzulpen sorkuntzan ere bada arazorik, guztiz berriak bait dira euskaraz. Arazo honi dagokionean, puntu pare bat azpimarratu nahi genuke. Jakina denez, izendegi teknikoek hiztegi orokorraren sail berezi bat (edo batzu) osatzen dute (Trujillo, 76). Honetan luzatu gabe, eta izendegi horien ikastea dela eta, esan behar da delako zientzia edo teknikaz jabetu ahala ikasten direla. Hitz teknikoek errealitatearen zatikatze zuzen eta objektiboa egiten dute (ez intuitiboa, hiztegi orokorrean bezala): lehenik errealitate hori ezagutu behar da beraz. Horrek esan nahi du, besteak beste, itzultzaileak kultura zabal baten jabe behar duela izan; areago, Zuzenbide, Ekonomia eta abarren gutxienezko ezagupena eskatu behar zaiola. Bestalde, eta hiztegiei dagokienean, ideologikoak ohizkoak baino komenigarriagoak direla iruditzen zaigu. Hauek beste abantaila bat dute gainera, idazkerari begira: mimetismoaren arriskua gutxiagotzea. Hitz kategoriak esate baterako; ez dago beti kategoria bat kategoria berbereko beste hitz batez itzuli beharrik. Horrela, gaztelaniazkoaren estilo nominalak idazkerari ematen dion pisua arindu liteke.

Besteak beste, hizkera eta itzulpen administratiboarekin kezkatua dagoen orok irakurri beharko lukeen liburua dela hau iruditzen zaigu.

Koro Navarro
Itzultzaile Eskolako irakaslea

BIBLIOGRAFIA

D. SELESKOVITCH: *Langage, langues eta memoire*. Paris, 1975. Lettres Modernes.

R. TRUJILLO: *Elementos de semántica lingüística*. Madrid, 1976. Cátedra.

MARINA YAGUELLO: *Alicia en el país del lenguaje (para comprender la lingüística)*, Madrid, Mascarón, 1983.

Linguistikaren inguruan, hizkuntzalaritzaren (edo hizkuntzaren, berezkuntza ez bait dago inoiz oso garbi) aurkezpena egiten duten liburuak ugariak dira. Astun samarrak ordea, "iniziatu" gabekoentzat behintzat. Eta honoko hau, hizkuntza (edo/eta hizkuntzalaritzaren aurkezpena) berau, nahiko berezia gertatzen da: hizkuntza nagusiki hitz-joku gisa ulertzen bait da, eta horrela aztertu eta aurkezten. Horregatik aukeratu dugu aipamen honetarako.

Hizkuntza jokua da, liburua ere jolastekoa beraz: ez dakigu zenbateraino lortu den, baina hau da egilearen asmoa. Izan ere, liburuari begirada bat ematea nahikoa da 'desberdina' dela konturatzeko. Azala: titulua eta marrazkia (Alizia); atalak: izenburuak ("Los elefantes rosas", "Serrar las palabras", "Dijiste león o pichón?", "Naranja y espaguetis"...) eta marrazkitxoak. Liburuan barreiatuak, etengabe agertzen dira abestiak, hitz jolasak, txisteak, poemak...

Hitzazurre gisako batetan, egileak hizkuntzaz dituen ideia eta iritziak agertzen dizkigu. Honela laburbilduko genituzke: (11-13 or.)(azpimarrak egilearenak dira, ez gureak).

- Hitzun orok egiten du linguistika: "*todo hablante ejerce una actividad metalingüística inconsciente*".
- Hori bereziki jolasean agertzen da: "*en un ámbito donde esta actividad metalingüística se revela del todo particularmente es en el juego (...)*" "*En el niño, el aprendizaje de la lengua es inseparable de los juegos verbales...*"
- Ikuspuntu horretatik, poesiaren garrantzia: "*La poesía es igualmente una forma de juego con las palabras. Juego y poesía están*

unidos por una misma gratuidad (...) Quizás los poetas y los niños —es decir, quienes, entre los usuarios de la lengua, mejor saben jugar y gozar de ello— tienen más que esneñarnos sobre el lenguaje que los especialistas.

- Jolasa da beraz (nolanahiko jolasa: haurrena, txisteetakoa, poetena) hizkuntzaren ardatza: *"El juego con las palabras, al basarse sobre una actividad metalingüística inconsciente, revela la competencia lingüística del sujeto hablante y nos permite de ese modo incluso plantear la función poética, a la que se vincula la función lúdica, como central entre las diversas funciones del lenguaje".*

Lehenengo kapituluan berriz, beste funtsezko idea —hizkuntz ideologia horren baitan— agertzen da. Galdera oinarritzakoa da: zertarako bali du hizkuntzak? Berriz ere, egilearen hitzak emango ditugu zuzenean: *"La respuesta parece ser evidente: el lenguaje sirve para comunicar. Pero comunicar, para los humanos, no es sólo transmitir información. A menudo, se habla para no decir nada, o se dice lo contrario de los que realmente se quiere decir (...) En resumen, se habla por toda clase de razones ajenas al acto de informar".* (17. or.)

Guzti hau honez gero ez da oso berria: hainbat bidetatik (Semiotika, Berbaldiaren Gramatika, Semantika logikoa, eta betidanik Literatura) agertu da. Azpimarratzeari ongi derizkiogu ordea, informazioa, komunikazioa eta abar gehiegi entzun bait ditugu azken garai honetan.

Lana hamalau ataletan banatzen da. Adibide ugariren bitartez, linguistikaren gai nagusien aurkezpena egiten da: hizkuntzaren funtzioak, unibertsalak, hitz klaseak, hizkuntza eta errealtatea, semantika, figurak...

Gure iritiz, atal interesgarrienak hamabi eta hamahirugarrena dira: lehenengoan metafora, metonimia etab. komentatzen dira, eta bigarrenean polisemia eta sinonimia. Izan ere, egilearen ikuspuntuari ongien egokitzen zaizkion gaiak dira hauek.

Atal bakoitzaren amaieran lekuan lekuko iturriak aipatzen dira. Ez dira ordea iturri hauek gahiegi aldatzen: Benveniste, Jakobson, Culioli dira gehien aipaturiko hizkuntzalariak. Literaturgileen artean berriz, Queneau, Vian, Breton, Lewis Carrol, Ionesco eta abarren lanak sarritan agertzen dira.

Liburu honen aurkezpena amaitzeko, ohar pare bat egin nahi genuke.

Lehenik, esan behar dugu behin baino gehiagotan lana moztarrotuta dagoela edo antzeko inpresioa egin digula. Adibide bat emateagatik: 'Colinas y valles' izeneko atalean, abisatu gabe, oposizio motak agertzen dira (exklusiboak, graduatzaileak etab) estilorik ortodoxoan. Horrelakoak oso maiz gertatzen dira, halako bikoiztasun bitxi

bat gertatzen delarik. Bestalde, aipatu ditugu hasieran kapituluaren izenburuak: politikak bai, baina deserosoak oso. Horrela, kapitulu batetako gaia hizkuntz errekurtsibitatea da: izena, 'Los elefantes rosas'. Azpitilulu bat gutxienez ez lekioket batere gaizki etorriko gai jakin bat landu nahi duen irakurleari. (Baina horrela jokua —berriz ere jokua— agerian geratuko litzateke: izenburu serioa, deskribatzailea batetik, eta katxondoa bestetik...). Zer egingo diogu: linguistika gauza serioa bait da, eta askotan gainera zozoa.

Beste komentarioa itzulpenari egin nahi diogu. Sarritan gertatzen da linguistika liburuak (besteak bezala) gaizki itzuliak egotea. Baina lotsagarrikeria dela hala ere ezin da ukatu. Halako loreak irakurtzen ditugu: "*Una vez lexicalizadas, las figuras no se notan más*" (181. or.); azpimarra gurea da). Halakoetara, zoritxarrez, ohitu gara. Baina badira horiek baino nabarmenagoak: beti ere hitzez hitz edo eta zalaparta batean itzultzearen ondorio. Horrela, gaztelaniazko lokuzio berria asmatu du itzultzaileak: "Llamar a las cosas por su nombre"-ren aldamenean *"llamar a un gato, gato": frantsesez bai, "Appeler un chat un chat". Baina gaztelaniaz katuak ez ezik, ogia eta ardoa dira garrantzitsu gauza hauetan.

Azkenik, barkamenik gabeko bat aipatuko dugu. Hitz beteak eta instrumentalak berezterakoan, izenordeez honela dio: "*los pronombres están a caballo sobre las dos categorías, según aparezcan bajo su forma acentuada, mí, o no acentuada, yo. 'Mí' es un enunciado, pero no 'yo'*". (61. or.) Hori horrela da, baina frantsesez: je aditzarekin agertzen da beti —aditzak, ahoskeran, ez bait du pertsona adierazten, eta hori da hain zuzen je-ren funtzioa—. Moi-k, berriz, azpimarratu egiten du lehenengo pertsona, ez bait da beharrezkoa: je l'ai vu chez toi gauza bat da, eta beste bat moi, je l'ai vu chez toi. Gaztelaniaz berriz (euskararen antzera honetan) yo ez da beharrezko eta balio enfatiko hartzen du agertzean: lo he visto en tu casa / yo lo he visto (*zure etxean ikusi dut / nik (neuk) ikusi dut*). Zaindu egin behar dela itzulpena: behin eta berriz esan beharko dugu.

Koro Navarro

Itzultzaile Eskolako irakaslea

**BERRI
ETA
ALBISTE**

APETIk 1.986rako ezarritako tarifak

Asociación Profesional Española de Traductores
e Intérpretes
Espainiako Itzultzaile eta Interpretari Elkarte Profesionala

Berandutxo bada ere, APETIk (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes - Espainiako Itzultzaile eta Interpretari Elkarte Profesionala) 1986rako gomandatzten dituen itzulpen tarifak argitaratu ditu.

Honako gomendio hau egiten du elkartean sarreran: "La Asociación Española de Traductores e Intérpretes pone a disposición de sus asociados, y de los traductores y usuarios de la traducción e interpretación en general, los cuadros de tarifas mínimas cuya adopción se recomienda para 1986. la APETI pretende contribuir así a una normalización del mercado de la traducción, y dar cumplimiento a sus Estatutos y a la Recomendación de la Unesco sobre la protección a los Traductores".

Hona, euskarara itzulirik, APETIk argitara eman dituen tarifak:

Literatur eta giza gaien itzultzaileen saila

Hizkuntza multzoak

- A. Frantsesa eta gainerako hizkuntza erromantzeak. Ingelesa.
- B. Grekoa (moderno), alemaniera eta jatorri germanikoko gainerako hizkuntzak.
- C. Grekoa (antzinakoa), latina, errusiera eta gainerako hizkuntza leto-eslaboak, hizkuntza fino-ugrianoak, arabiera, Afrikako hizkuntzak eta euskara.

- D. Ekialdeko herrietako hizkuntzak, arabieraz kanpo. Txinoa, japoniera eta gainerako hizkuntza ideografikoak.

Zailtasun mailak

- I. Divulgazio eta informazioa.
- II. Ikerketa eta teoria.
- III. Sorkuntzako literatura orokorrean.
- IV. Olerkia.

Tarifak

Folio bakoitzeko (2.100 karaktere: 30 lerro bider 70 espazio) (pezetatan):

	Multzoa		Maila	
	I	II	III	IV
A	700	780	1.130	1.650
B	825	1.085	1.560	2.080
C	1.000	1.240	1.900	2.420
D	1.175	1.520	2.255	2.765

Oharrak

1. Hitzen kontakera: Xede hizkuntzako testuaren arabera egingo da.
2. Itzulpenaren aurkezpena: Hemen ematen diren tarifak inolako zuzenketarik behar ez duten itzulpenentzako dira. Itzulpenak zuzenketak beharko balitu, itzulpenaren erabiltzaileak eskubide izango du itzultzaileari haien kostua kentzeko, baldin eta berak egingo ez balitu behintzat.
3. Berrikusketarako tarifak: Inoren itzulpenaren berrikusketarako tarifa bateratu batzuk zehaztu ezin direnez gero, itzultzaile bakoitzak finka ditzala gomendatzen da, horretan ematen dituen orduen arabera, oinarritzat espezialitate jakin horretako itzulpenean orduko zenbat itzultzen duen oinarri hartu eta goragoko mailako lana denez gero, eta hartzen den erantzukizunagatik, ehuneko 20ko errekaratu bat gehituz.

4. Errekarguak:

Urjentziagatikoak: Tarifa bakoitzagatikoaz gain ehuneko 30 bat.

Urjentziatzen itzultzeko testua hartu eta handik hogeita-lau ordu baino lehen itzulita bihurtu behar dena hartzen da, edo bestela, normalaz behetiko epetan bihurtu beharrekoa, alegia, eguneko 3.000 hitz, edo asteko 15.000 normalizat harturik, hortik gorako lan abiada eskatzen duena.

Zientzi eta teknika gaien itzultzaileen saila

Hizkuntza multzoak

- A. Frantsesa eta gainerako hizkuntza erromantzeak.
- B. Ingelesa, alemaniera eta jatorri jermanikoko gainerako hizkuntzak. Grekera modernoa.
- C. Erusiera eta gainerako hizkuntza leto-eslaboak, hizkuntza fino-ugrianoak, arabiera eta euskara.
- D. Ekialdeko herrietako hizkuntzak, arabieraz kanpo. Txinoa, japoniera eta gainerako hizkuntza ideografikoak eta erromanizatuak.

Zailtasun mailak

- I. Zientzi eta teknika dibulgaziozko testuak egunkari edo aldizkari-tarako, edo aldizkako argitalpen eta liburu bidez zabaltzekoak.
- II. Erabilera arunterako eskuliburuak. Industri instalazio, arkitektura, injinaria, erakuntza publiko eta gisako proiektuak. Medikuntza orokorrean. Mota orotako prozedura teknologikoen deskribapenak.
- III. Teknologia soilezko sorkuntzazko testuak zientzi alor guztietan.

Tarifak

Folio bakoitzeko (2.100 karaktere: 30 lerro bider 70 espazio) (pezetan):

	Multzoa		Maila	
	I	II	III	
A	1.130	1.385	1.815	
B	1.385	1.730	2.250	
C	1.730	2.335	3.350	
D	2.335	2.940	3.630	

Alderantziako itzulpen saila

* Goian ezarri diren berberak, tarifa mota bakoitzari dagokionaz gainera, gainera 30eko errekaruarekin.

Konferentzi itzultzaile eta interpretarien saila

Interpretazio mota

- A. Aldiberekoa.
- B. Ondoz ondokoa.

Tarifa moduak

	A	B
1. Interpretaria eguneko	30.0000	35.000
2. Lan egunaz gainera ordu extra edo zati bakoitzeko tarifa		8.000
3. Konferentzi edo oturuntza mintzaldiko tarifa	22.000	

Oharrak

- 1. Lan eguna: 6 ordu lan, edo 7 ordu egon behar hartuko da hala-kotzat.

2. Aitzinkontua: Konferentzian erabiltzeko diren hizkuntzen kopuruaren arabera izango da beti ere, eta horrenbestez, bertarako behar diren interpretarien kopuruaren arabera. Konferentzia laburra izanez gero, eta ordu bat eta erdiko gehienezko muga batetaraino, kabina bakoitzeko interpretari bakar bat aritu liteke.
3. Bidaia gastuak: Antolatzailearen kontura izango dira beti.
4. Dietak: Konferentzia interpretaria bizi den herritik kanpora baldin bada, antolatzaileak eguneko 10.500 pezeta ordaindu beharko dizkio. Antolatzaileak har dezake bere kargu interpretariaren ostalari-tza eta mantenua, eta horrelakoetan egun bakoitzeko aipatu den kopuruaren herena ordaindu beharko dio.
5. Hizkuntzak: Tarifak berdinak dira hizkuntza guztietarako.
6. Konferentzia itzultzaileen ordainketak interpretarien berberak izango dira.

Albisteak

Itzultzaile Ikastaroa Zornotzan

Datorren larunbatetik aurrera itzultzaile-ikastaroari ekingo zaio Zornotzan. Itzulpen-arloan Bizkaian eratu izan den lehen ikastaro hau larunbat goizetan izango da, bost ordutan zehar, goizeko 8etatik 13etara bitartean.

Zortzi hilabete iraungo du ikastaro honek, datorren larunbatean hasi eta maiatzaren azken larunbaterarte.

Ikastaro honetako programa gehienbat praktikoa izango da. Teoria apurren bat hasieran, baina hortik aurrera, jardun eta jardun, ariketa praktikoko hutsak izango dira.

Irakasleak Josu Oregi, Jose Luis Etxebarria, Eneko Oregi eta Jon Agirre izango dira. Ikasle izateko, berriz, ez da inolako titulurik eskatzen. Baldintza bakarra, alfabetatua edota euskara landuaren jabe izatea.

Ikastaro hau "Uzturri" Kultura Taldeak eratu du eta klaseak Zornotzako Batzokian izango dira. (Deia, 1981eko urriak 8. Asteazkena. 31 or.)

* * * * *

II Jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu

Kataluniako Administrazioan hizkuntzaren erabilera normaltzeko lehenengo ihardunaldiak ospatu zirenetik 2 urte pasa direlarik, eta oraindik orain **II Congr s Internacional de la LLengua Catalana** ospatu berria duten honetan Kataluniako Generalitatearen Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Orokorrak eta Kataluniako Administrazio Publikoko Eskolak bat harturik antolatu dituzte **II Jornades** hauek.

Irailaren 29, 30 eta urriaren leian ospatu dira. Kataluniera erabiltzen den herrietako ihardueren baterakuntza lortzea, eta akordio zehatzetara iritsi eta finkatzea zuten helburua.

Bertan landu diren gaiak:

- Lurralde bakoitzaren antolamenduzko markoa.
- Hizkuntz barietateen aprobetxamendurako metodologiazko erizpideak.
- Administraziozko dokumentuen prestaketarako prozedura.
- Legeak eta administraziozko erabakiak:
 - a. Hizkera parlamentarioa eta legeak.
 - b.. Administraziozko erabakien idazkera.
- Terminologia: TERMCAT eta Hizkuntza Administrazioarako Aholku Batzordearen lanak.
- Administraziozko testuen itzulpena.
- Koordinazioari buruzko mintegia.

Lan hauek guztiak mahainguruz, mintzaldiz eta mintegi bidez landu dituzte. Aldizkari honen beronen hurrengo aleren batean itzulpenari dagokion neurrian berri zehatzagoa ematen saiatuko gara.

* * * * *

Itzulpen Ikastaroa Donostian

Urtero bezala aurten ere itzulpen ikastaro bat emango du Itzultzaile Eskolak Donostiako Martutenen duen egoitzan. Gaiak landuko dituzten irakasleak Itzultzaile Eskolako irakasle direnak eta zirenak izango dira, aurreko urteetan bezala.

Ikastaldia, ohitura den bezala, ostiral arratsaldez eta larunbat goizez egingo da. Lehen mailako ikastaldia, Azarotik Gabonetara bitartekoa, azaroak 7, ostiralean hasiko da, eta esan bezala Gabonak arte iraungo du. Bigarren mailako ikastaroari, berriz, Otsailean emango zaio hasiera.

Lehenengo mailako ikastaldi honetan banatuko diren gaiak honako hauek izango dira:

- a.— Itzulpen teoria: Sarrera. Itzulpen prozesuaren azterketa. Itzulpenezko korrespondentziak. Itzulpen prozesuan eragina duten faktoreak.
- b.— Linguistika: Hizkuntzaren atal nagusiak: Hizkuntzalaritzaren ikasketa alderdiak. Hizkuntz zeinua.
- c.— Itzulpena eta hizkuntz ereduak: Euskarazko hizkuntz ereduak. Hizkuntza mailak.
- d.— Itzulpen azterketa: Oinarrizko kontzeptuak. Hizkuntzaren oinarrizko estilistika - estilistika pertsonala. Ariketa praktikokoak.
- e.— Itzulpen pragmatikoa: Ariketa mailakatuak.
- f.— Itzulpen literarioa: Ariketa mailakatuak.

Bigarren mailako ikastaldian, Gabonetatik aurrerakoan, landuko diren gaiak honako hauek dira:

- a.— Itzulpen teoria: Itzulpeneko baliokidetasunaren ikerketa. Hizkuntz zeinuen mailako baliokidetasuna. Enuntziatuaren mailako baliokidetasuna. Mezuaren mailako baliokidetasuna. Situazioaren deskribapena eta baliokidetasuna. Komunikazio-helburua eta baliokidetasuna. Ariketak.
- b.— Linguistika: Hizkuntza, hizketa, araua. Linguistika eta itzulpena.
- c.— Itzulpena eta hizkuntz ereduak: Hizkuntza mailak eta testu mailak: ariketak.
- d.— Sintaxia eta mezuaren antolamendua: Antolamenduaren azterketarako oinarri teorikoak.
- e.— Itzulpen pragmatikoa: Ariketa mailakatuak.
- f.— Itzulpen literarioa: Ariketa mailakatuak.

Itzulpena saritu asmotan

Literatur sorkuntzak badu saririk Euskal Herri honetan. Eta hemendik kanpo ere bai. Lekuko bezala, lehiaketak, sariketak, txapelketak, norgehiagokak eta gainerako antxintxiketak dituzu.

Itzulpena ez omen da sorketa, aldaketa baizik, edo azkoitiarrak esango zukeen bezala: alkahuetekeria hutsa. Beraz, itzultzailearentzat apenas izan ohi den saririk edo laguntasunik.

Edozein modutan, badira batzuk, eta horiek aipa ditzagun.

Batetik, dago, aurtengo urte honetako eta Durangoko Euskal Jaien barruan sari bat, 500.000 pezetakoa. Sari bakarra. Guk dakigunez ez bide da emana izan, ez bait da haren berririk eman, gainerakoen berri eman den bezala. Areago, ez dakigu jarraipenik izango duen ere hurrengo urteetan.

Bestetik badago beste bat Eusko Jaurlaritzak emana. Iazko urtean bi dirulaguntza eman ziren, bi liburu euskaratzeko. Aurtengo iragarpenean ikusten denez, laguntza hori murriztu egin da: alegia oraingoan, bat bakarra dago. Baina, hau, egia esan dirulaguntza da, ez saria.

Sariatara itzulirik: bi ditu jarriak Madrilgo Gobernuak. Lehendabiziko bat haur eta gazteen literaturaren itzulpenerako. Baina kasu honetan, Estatu osoko edozein hizkuntzataratza itzultitakoak sartzen direnez gero, euskarazkoentzat apenas izaten den lekurik. Iaz ordea galiziarerra itzultitako batek irabazi zuen, alegia Alizia lurralde miragarrian liburuak.

Bigarrena da helduen liburu batentzat. Hau ere gisa berean da Estatuko edozein hizkuntzatarara itzulitako obrarentzat. Lehendabizikoak 1.000.000 pezetako saria du. Bigarrenari 2.000.000 ematen dizkiote. Euskaldunei apenas ezer tokatu zaigun orain arte. Baina bi kasuetan ere, liburu horiek argitara emanak izan behar dute. Ez da beraz, itzultze lanari ematen zaion laguntza, aldiz itzulitakoari emaniko saria.

Bada laguntzarik, horretaz aparte: Espainiako hizkuntzetatik gaztelarrera itzultzeko obrentzat. Eta noski, laguntza dagokio argitaletxeari, ez zuzenean itzultzaileari.

Eta areago, azkenik, Estatuko edozein hizkuntzatan idatzitako obrak bestelako hizkuntza batetara itzultzeko laguntzak daukazu. Kasu honetan ere, laguntza izango da itzultzailearekin eginiko tratua bestekoa, eta ez gehiagokoa.

Beraz, horiek dute jakitera heldu zaizkigun posibilitateak. Gero datorrela Milan Kundera esatera Europa itzultzaileek egin dutela... Gobernuetan behintzat apenas inork sinetsiko dion.

Pedro M. Zabaleta

Itzultzaile Eskolak: gora eta behera

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak, bere 188. zenbakian, 1981eko urriaren 1ekoan, Lehendakaritza eta Zuzentza sailak "Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskola" bat sortu, antolatu eta araupetzen duen Dekretua argitaratzen du.

Dekretu horren sarrera eta xede adierazpen denean honela dio:

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, Azaroaren 24eko 10/1982 Legeak, alegia, bere lehen idazpuruan herritarren hizkuntza-eskubideak eta herri-agintaritza eta administrazioaren betebeharrak finkatzen ditu.

Betehebar horiei aurre egiteko, hain zuzen, sortzen da oraingo honetan Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile-Eskola, Euskal Herriko Itzultzaile ofizialak prestatzeko eta hobetzeko xedez.

Euskal Herriak euskararen alde egin duen apustua ez da, argi da, itzultzaileak ugaritze soilaz beteko, baina ezinbesteko eritzi dio Jaurlaritzak alor hori ere araupetzeari bi hizkuntza ofizialen baliokidetasuna bermatu eta maila guztietan euskararen erabilera bultzatu nahi bada.

Pozgarriak dira horrelako berriak, Pozgarria da Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskola baten sorrera. Egiaz badagoen premia bat betetzen bait du. Urteak dira Administrazioko itzulpengintzak traeta berezi bat behar zuela esaten ari ginela. Euskal Herriko beste itzulpen alor batzuek ez dituzten arazo espezifiko bat baino gehiago bait du: Administraziozko komunikazioaren berezitasun propioak (aldi berean tekniko eta erabilera hedatuko izatea); Administrazioko euskararen erabilera ia dena itzulpen izatea; Administrazioko hizkera finkatu gabe egotea; hizkuntz eredu residual baten aldeko joera duen itzultzaile multzo batek bertan lur hartu eta apalankatu izana; itzultzaile multzoa egituraturik eta modu funtzional batean antolaturik ez egotea, etab. Aurrerabide egoki bat emango bazaie ahalegin berezi bat beharko duten era askotako arazoak.

Ahalegin hori egiteko, eta gauzak egoki eginez gero konponbidea eman lezakeen antolamendu bat sortzen denean, pozteko gauza da.

Dekretuak, nolahi ere, aparteko azterketa eta komentario berezi zehatz bat merezi du, puztuz puntu eta komaz koma, asko jokutzen bait da bertan esaten denean (Egin bedi kontu, lehen ikusiko adibide bat emateko besterik gabe, Eskola horren zuinak, ardatzak eta egin-kizun nagusiak erabaki behar dituen Aholku Kontseiluan, dekretuaren arabera, inon direneko zuzendari orokor, azpizuzendari, bien erdiko, eta gainerantzeko guztiak direla parte hartzeko, baina aldi berean parte hartzekorik ez dela itzultzaile bat bera ere azaltzen. Oi Administrazioaren misterio ondorik gabeak!).

Poz horrekin ere, ordea, ezin aipatu gabe utzi liteke albistearen poza iluntzen duen atsekabe handiago bat: Euskaltzaindiak 1980an martxan jarri eta orain arte lanean aritu den Itzultzaile Eskola, Martutenekoa, Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi nahi izan zuenetik Erakunde horrekin bost urtez fruiturik eman ez duten elkarriketa eta negoziaketa asmo amaigabetan ariturik, eta berorrek erakarri duen ekonomiazko krisi estu eta larriaren buruan, bertako irakaslegoa arras urritzera beharturik aurkitu da, bost irakasle ziren lekuan bi geratzera hain zuzen; eta berriro lehengo oinera ekartzeko esperantza gutxiarekin. Ahal delarik, eta galduak galdurik, bertan den ikaslegoari bere ikasketen amaierara arte laguntzea izan da neurrian arrazoia.

Azken aurreko hatsetan aurkitzen da, beraz, orain arte Martutenen izan den Itzultzaile Eskola, eta etorkizunerako geratzen zaion bidea es-tua eta laburra. Profetarik merkeenak iragarriko luke gertatuko denetik asko urrutiratzeko beldurrik gabe, horrelako egoera batean, guztiaren

errua bertako irakasleei nork bota faltako ez dela. Atsotitzen erdiak asmazioaren alde daude.

Hau ez da lekua Itzultzaile Eskolaren, Martutenekoaren, merezimenduak aipatu eta goraipatu aritzeko. Esan bai, ordea, itzulpengintza hobetu eta garapenera jasotzeko asmoa aitortzen duenarentzat berberarentzat biderik onena ez dirudiela aurretik metaturik dagoen esperientzia bazter utzi eta hutsetik hastea.

Eta konstatatu, berriro, non diren hitzak eta egintzak desberdin; eta etsimenez, deitorez, damuz eta tamalez ohartu, berriro eta berriro, norren esku dagoen euskal kulturaren aurrerabidea.

J. M. Zabaleta

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Kalea Herria

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia

Sukurtsala

Kontuaren jabea

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean doazkizuen erreziboak.

Sinadura

Helbidea

EUSKALDUNON HIZKUNTZA EUSKARA

EUSKALDUNON PRENTSA EUSKARAZKO PRENTSA

ARGIA

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN DEITURAK

Helbidea

Herria Probintzia

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

SINADURA

ARGIA astekaria
Ramonenea etxea, behea.
Virgen del Carmen, z/g

Donostia (12)
T. 28 33 99

1

Gaiak:

Ale honetan / Euskal itzultzailearen egoera eta iritziak (Inkesta baten emaitzak) / Itzultzaile elkarte eta itzulpenaren inguruko zenbait lan Katalunian / Galiziako itzultzaile elkarte / APETI (Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes) / Kataluniar hizkuntzako itzulpenaren I Sinposio Nazioartekoa / Katalunieratik euskararako itzulpenaren gaur eguneko egoera / Sigla eta izen berezi batzuen deklinabidea / Enfasizko adierazkera baten azterketa XIX mendeko itzulpen batean / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / SANTOYO, J. C.: El delito de traducir / MARINA YAGÜELLO: Alicia en el país del lenguaje (para comprender la lingüística) / APETIk 1.981erako ezarritako tarifak / Itzultzaile ikastaroa Zornotzan / II Jornades sobre l'establiment del llenguatge administratiu / Itzulpen ikastaroa Donostian / Itzulpena saritu asmotan / Itzultzaile Eskolak: gora eta behera.